


Zu hemen zaude. goiena



ESKOLA BERRITUA ESTREINATUZ HASI DUTE IKASTURTEA ANTZUOLAN

Debagoieneko hezkuntza-zentroek eskolak hasi dituzte asteon, hainbatean egokitzapen lanak eginda; nabarmenena, Antzuolako Herri Eskola, 300 metro koadroko eraikin modernoarekin / 6

Antzuolako Herri Eskola berrituaren aurrean, eskolatik irten berri, eguaztenean. XABIER URZELAI



LOLO VASCO

Duela 20 urteko New Yorkeko Dorre Bikien aurkako erasoen gaineko iritziak jaso ditu GOIENAK / 4

Zelaietara itzuliko dira zaleak Bergaran eta Oñatin, futboleko liga hastearekin batera / 38

Bergarako San Martin feria egingo dute bihar, Ibargarai kalean jarritako 40 posturekin / 28

SINADURAK

	IÑAKI ARTOLA ZUBILLAGA / 8		CAROL PALACIO / 35
	OIANA SANCHEZ / 11		ANDER ETXEBERRIA / 48

Eskoriatzako Errekan Gora irailaren 17an itzuliko da, asteburu bakarrean eta sei emanaldirekin / 20



Angiozar, tokiko entitate txiki izateko lanean

Igor Ortega ikertzaileari elkarrizketa

Hemen garbiketak

Inoiz baino garrantzitsuagoa

ZURE KONFIANTZAKO GARBIKETA ENPRESA

ESKORIATZA
T. 943 71 48 45
www.hemen-garbiketak.com
hemen@hemen-garbiketak.com

SKODA ENYAQ IV



DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 35 • ARRASATE • 943 71 18 70






KORONABIRUSA

Intzidentzia-tasaren eboluzioa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA



Positibo kasuak eta intzidentzia

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak	Positiboak biztanleekiko	Intzidentzia tasa 14 eguneko, 100.000 biztanleko
Oñati	13	9	1.671	%14,57	191
Aretxabaleta	12	6	963	%13,60	254
Arrasate	11	41	3.508	%15,89	235
Bergara	8	19	1.831	%12,18	179
Aramaio	6	3	225	%15,20	608
Eskoriatza	6	16	513	%12,50	536
Antzuola	3	4	293	%13,45	321
Elgeta	1	2	83	%7,34	265
Gatzaga	0	0	13	%5,20	0
DEBAGOIENA	60	100	9.100	%14,04	246

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

Beheranzko joera: 100etik 60ra jaitsi dira positiboak aste honetan

Egoerak hobera egin du bailaran; horren adibide da aste honetan aurrekoan baino 40 positibo gutxiago erregistratu direla eta intzidentzia-tasa 310etik 246ra jaitsi dela.

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA
Debagoienak erakutsitako joera bera izan du Euskal Autonomia Erkidegoak ere, eta, gauzak horrela, bi aste barru osasun neurriak arindu litezkeela eman du aditzera Bingen Zupiria Jaurlaritzako bozeramaileak eguazten honetan: "Bilakaera epidemiologikoa ikusita, osasun egoera hau beste modu batean kontrola daiteke".

BAILARAKO EGOERA
HERRI HANDIENETAN INTZIDENTZIA-TASA APALAGOAK DAUDE

Bailarako herrien egoerari erreparatuta, aste honetan, biztanle gehien dituztenetan atzeman dira kasu gehien: Oñatin, Are-

txabaletan, Arrasaten eta Bergaran, alegia. Halere, hiri handiak txikiekin alderatuz gero, oro har, intzidentzia-tasak apalagoak dira handietan –goiko taulan daude datuak–.

Aramaio eta Eskoriatza izan dira aste honetan eremu gorritik irten ezinda geratu direnak. Aramaio hilaren 5ean bost kasu erregistratu zituen eta 400eko tasa gainditu zuen orduan. Eskoriatza, berriz, abuztutik dago 400etik behera jaitsi ezinda.

Horri lotuta, aipatzekoa da egun hauetan Aretxabaleta eta Antzuola ere egon direla 400etik gorako intzidentziarekin –hots, eremu gorrian–, baina Aretxabaletak bost egunetan lortu zuen tasa 400en eta 300en azpira jaistea –eguztenez 254koa zuen– eta Antzuola eremu laranja-

igaro zen astelehenean, 321eko intzidentzia-tasarekin.

Debagoien osoa kontuan hartuta, 246,87ko tasa erregistratu zen eguztenez. Aurreko eguztenez, hilak 2, eremu laranja zegoen eskualdea, eta horian da egubakoitzaz geroztik. Baina datuak hobera egin arren, oraindik Gipuzkoak eta Euskal Autonomia Erkidegoak baino intzidentzia altuagoa du.

GAINERAKO ADIERAZLEAK
EZ DA HERIOTZARIK ERREGISTRATU DEBAGOIENEAN

Tasak albo batera utzita, nabarmentzekoa da aste honetan ez dela heriotzarik erregistratu bailaran. EAEn, berriz, abuz-

tuaren 30etik irailaren 5era, 24 lagun hil dira –aurreko astean baino bat gutxiago–, eta pandemia hasi zenetik 4.625 pertsona zendu dira Erkidegoan; horietatik 174 dira debagoiendarrak.

Bestalde, Debagoieneko Ospitalean bi lagun daude gaitzaren eraginez ingresatuta, baina, abuztuko joerari jarraituz, egoerak "lasaia izaten jarraitzen duela" esan du Zuzendaritzak.

TXERTAKETAREN BILAKAERA
EAE-KO HERRITARREN %83 DAUDE GUZTIZ TXERTATUTA

3.187.000 dosi baino gehiago jarri dira EAEn dagoeneko. 12 urtetik gorakoena ia %89k jaso dute gutxienez lehenengo ziztada eta herritarren %83 dira txertaketa-ziklo osoa bete dutenak. Osasun Sailaren helburua da datozen asteetan herritarren %90 guztiz txertatuta egotea. Hala, mezu argia helarazi du asteon Sagarduik –batez ere, 20 eta 29 urte arteko herritarrei–: "Hitzorduak hartzeko aukerak zabalik jarraitzen du".

Bestetik, Osasun Publikoko Batzordeak eguztenez erabaki zuen, Europako Sendagaien Agentziaren hitza jarraituz, hirugarren dosia immunoeskasia duten pertsonen soilik jartzea; hau da, organo solidoren bat

transplantatuta dutenei, guraso hematopoietikoen gaitzaren transplantea hartutakoei edota CD20aren kontrako sendagaiak hartzen dituztenei. Dagoeneko hasi dira hitzorduak ematen, Pfizer edo Moderna etxeetako hirugarren dosi hori hartzeko.

OSASUN NEURRIAK
EPE LABURRERAKO HELBURUAK FINKATU DITU OSASUN SAILAK

Pandemiaren –eta, batez ere, txertaketa-kanpainaren– bilakaera aztertuta, datozen asteetan erdiesteko erronkak finkatu ditu Jaurlaritzak: intzidentzia 150etik behera kokatzea –209koa izan zen eguztenez–, ZIUetako okupazioa 1. agertokiko zifrarik baxuenetan egotea eta erabat txertatuta dauden herritarren %90 izatea.

Horrez gain, Jonan Fernandez Labiren batzorde teknikoko koordinatzaileak adierazi du zein den esku artean duten egitekoea: "Labik aztertu beharko du ea gaixotasunak zein puntutan utziko dion gizartearen funtzionamenduari eragiteari". Hain zuzen ere, hori pandemiaren kudeaketan "inflexio-puntua" izango dela gaineratu du Fernandezek, eta, aurrez esan bezala, neurrien malgutzea ekar lezake hilabete bukaerarako.

Eukaliptoen aurka indarrak batzeko gogoz

Helburu hori du martxoan jaiotako Baso Biziak plataformak, eta udalez udal gaiarekin lotuta jarritako mozioak gida batean batu dituzte. Zapatuan Elgetan aurkeztu zuten, eta diote udalek asko egin dezaketela "landare inbaditzaile exotiko" horren aurka

Xabi Gorostidi DEBAGOIENA

EAEko hamalau herritako elkarteek osatzen dute plataforma, eta horien artean dago, esaterako, Bergarako Kuku Baso. "Ikusten genuen bakoitza bere aldetik gauza interesgarriak egiten ari ginela eta elkartzeko momentua zela, beste dinamika batzuk modu bateratuan lantzeko momentua", azaldu du plataformako kide Edu Zabalak. Eta elkarlan horren fruitua da zapatuan Elgetako Espaloian aurkeztu zuten eta eukaliptoaren hedapenari aurre egiteko osatu duten Udaletako Mozioen Gida.

Erkidegoan egindako azterketen arabera, eukaliptoia "landare inbaditzaile exotikoa" dela diote plataformako kideek: "Gure bioaniztasuna izugarri kaltetzen duena". Onartuak izan edo ez, dagoeneko hainbat herritan aurkeztu dira eukaliptoaren kontrako mozioak, eta horien nondik norakoak jaso dituzte osatu duten gidan, beste herri

batzuetarako baliagarri izateko asmoarekin. "Hainbat udaletan jarritako mozioak jasotzea, laburtzea eta ordenatzea izan da asmoa, erakusteko ez dela hain zaila", dio Zabalak, eta azpimarratu du informatzea dela asmoa: "Ez dugu gure iritzirik sartu, jasotze lana besterik ez dugu egin". Antzuolan, Bergaran eta Aramaion aurkeztutako mozioak dira, besteak beste, gidan agertzen direnak.

Udal eskumenak baliatuz

"Herri ekimeneko elkarteak izanda, aldundiak eta Eusko Jaurlaritza bera urrun geratzen zaizkigu, horregatik jarri dugu fokua udaletan", adierazi du Edu Zabalak, baita "udalek ere badiuztela eukaliptoaren hedapenari aurre egiteko eskumenak". Gidan jasotako mozioak askotarikoak dira: debekatzea, moratoria eskatzea, lurrak erostea eta bestelako ekimenak planteatzen dituzte, besteak beste.



Baso Biziak plataformako kideak, Elgetan, gidak eskuan dituztela. TXOMIN MADINA




MAIDER ARREGI

Arantzazuko Ama, berriz ezohiko


Atzokoan ez zen harrera ofizialik egon, baina hainbat erakundetako ordezkariak izan ziren: Markel Olano diputatu nagusia, Bakartxo Tejeria Legebiltzarreko presidentea, Xabi Ezeizabarrena Batzar Nagusietako presidentea, eta baita hainbat batzarkide eta Oñatiko zinegotzi ere. Herritarrek ere ez dute hutsik egin, nahiz eta ohi baino gutxiago izan.

EUSKARAZ

ZABALDU 2021-2022 AUKERAK



UDAL EUSKALTEGIAK



HADE

♦ MATRIKULA
EPEA ZABALK

<p>BEDITA LARRAKOETXEA UDAL EUSKALTEGIA Bidebarrieta 18 Oñati. Tel.: 943 78 24 96 euskaltegia@onati.eus</p>	<p>ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA Arimazubi plaza 2 Tel.: 943 79 70 77 Whatsapp 688 78 09 31 euskaltegi@arrasate.eus</p>	<p>BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA Barrenkalea 33 (Irizar jauregia). Tel.: 943 76 44 53 euskaltegia@bergara.eus</p>	<p>LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA Nafarroa 2 - Aretxabaleta Intxaurbaleta 9 - Eskoriatza 943 79 21 68 idazkaritza@udaleuskaltegia.eus</p>
----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Irailaren 11: hogeit hamar urte mundua hankaz gora jarri zuen atentatutik

Bihar, zapatua, bi hamarkada beteko dira New Yorkeko Dorre Bikiak erori eta AEBetako ekonomiaren eta segurtasunaren ikurrak erasotu zituztenetik. Bahitutako hegazkinekin egindako eraso kamikazeak sarraski historikoa eragin zuen

Xabi Gorostidi DEBAGOIENA

Irailaren 11. 2001. urtea. New York. Manhattan. Martitzena. 09:00ak jotzean eta milaka lagun zeuden hiriko ikur ziren Dorre Bikietako bulegoetan lanean. Eta, bat-batean, hegazkin batek hegoaldeko Dorre Bikia kolpatu zuen, 80. solairuaren parean. Kea eta izua nonahi zabaltzen hasi ziren, eta mundua New Yorkera begira jarri zen.

Baina lehen hegazkinarena hasiera besterik ez zen izan. Handik 18 minutura bigarren hegazkin batek beste Dorre Bikia kolpatu zuen, eta bost kontinenteetako milioika lagunek zuzen-zuzenean ikusi zuten.

Handik 43 minutura hirugarren hegazkin batek Washingtongo Pentagonoa kolpatu zuen, AEBen Defentsa Departamentuaren egoitza eta sinboloa dena. Han-

dik gutxira, bi Dorre Bikiak goitik behera erori ziren, eta bertako lagunak bizirik ateratzeko esperantza izpi apurrak indargabetu.

Iltzatutako oroitzapenak

"Oso ondo gogoratzen dut lehen irudia. Dorreetako lehena sutan ageri zen irudia, hain zuzen. Eta lehen uneetako harridura ere oso ondo gogoratzen dut. Ez ziren bakarrik Dorre Bikiak, Pentagonoa, amerikar armadak leherrarazi zuen beste hegazkina, ustez Kapitolioa erasotzeko asmoa zuena... Zientzia fikzioa zirudien, amerikar jatorriko pelikula beliko horietako ikusten egotearen sentsazioa nuen. Sinestezina zen", azaldu du Juanjo San Miguelek, Euskadi Irratiko nazioarteko albisteekin lan egiten zuen kazetariak.

Dabid Lazkanoiturburu kazetari oñatiarrak *Gara* egunkari-ko nazioarteko sailean egiten zuen lan, eta jai izan arren gogor lan egitea tokatu zitzaion egun historiko hartan.

"Lehen opor eguna nuen, udan lanean egon ostein. Baina bigarren hegazkinaren berri izan bezain pronto, inork deitu gabe, erredakziora itzuli nintzen. Oso lanegun gogorra izan zen, baina arrastoa uzten duten horietakoa ere bai. Zalantza asko genituen, baina egiletzaren susmoa nahiko argi genuen eta teoria konspiratzaileak baztertu genituen. Ez dut ahaztuko Kirol Saileko arduradun zen Juan Carlos Elorza oñatiarrak hartu zuela koordinazio orokorra, eta sekulako lana egin zuen. Jada ez dago gure artean, eta bihoakio aitortza txiki hau".




'Egunkaria'-ren bihamuneko azalak oihartzuna izan zuen nazioartean. BERRIA

Mugarri historikoa

Juanjo San Miguelen ustez, bizi dugun mendearen hasiera ekarri zuen gertakari hark: "Esango nuke azken hamarkadetan lau mugarri historiko garrantzitsu gertatu direla, mundua

aldatzera heldu direnak. Oso ondo gogoratzen dut nola aldatu zuen mundua 1989an Berlingo harresia bota izanatik; ostean, 2001eko New Yorkeko atentatuak; 2008ko krisi ekonomikoak ere bai; eta, azkena, nola ez, 2020ko



MIGUEL LAZPIUR
ENPRESARI OHIA

"Erasoak arduratu ninduen, baita balizko ondorioek ere"

"Enpresako bisita bat egiten ari nintzen, kasualitatez, Bizkaiko aeronautika enpresa batera. Irrati bidez jakin genuen haren berri; zeharo arduratuta geratu ginen. Dorreak lehenengo, Pentagonoa ostean... Beldurgarria zen. Inor ez zen gai terroristek halako eraso bat egiteko gaitasuna zutela aurreikusteko".



PILAR ETXANIZ
IRAKASLE OHIA

"Islamiarren aurkako joerak ugartzearen beldur nintzen"


"Taberna batera sartu nintzen irudiak ikusi ahal izateko. Gogoan dut sarraskiaren tamainak hunkitu egin ninduela, zehatz-mehatz zenbat hildako zeuden ez jakin arren. Eta jarraian AEBen mendekua zein izango zen pentsatzen hasi nintzen, baita islamiar jatorrikoen aurkako xenofobia handitu egingo zela".



IÑAKI PEÑA
MEDIKUA

"Beldurrezko film bat zen, baina egiazkoa zena"


"Lagun batekin nengoen hondartzan, eta zurrumurrua entzun genuen gure inguruan zeudenen artean. Autoan sartzean irratiz jarraitu genuen, eta gero telebistaz. Beldurrezko film bat zela zirudien, baina egiazkoa zena. Bizitzako pasarte harrigarri horietako bat izan da niretzat, ezbaierik gabe".



ANE IRAZABAL
KAZETARIA

"Salto egin zutenen irudia iltzatuta zait"

"Instititutik bueltan harrapatu ninduen, eta etxera heltzean ama telebistaz ari zen gertatutakoa telebistaz ikusten. Garai hartan ez zegoen ez sare sozialik ez Internetik mugikorrean, eta etxera heldu arte ez nintzen ohartu. Inoiz ikusi dudana gertakari politikorik edo erasorik handiena izan zen".



JON ALUSTIZA
LAB-EKO LIBERATU OHIA

"Amerikarren pelikula bat zela pentsatu genuen"

"Bazkalostea zen. LABen egoitzan nengoen beste lankide batekin, eta kanpotik etorritako lankide batek ohartarazi zigun. Hura entzun eta jarraian telebista piztu genuen, eta ezin sinetsi geratu ginen. Egia zor, amerikarren pelikula bat zela pentsatu genuen. Geroxeago ohartu ginen ez zela broma bat".

COVID-19aren pandemia. Ba-koitzak bere erara aldatu du mundua, baina, nire ustez, 2001eko atentatu hark XXI. mendearen hasiera ekarri zuen".

Kamikazeen eraginkortasuna

"Eraso kamikazeen eraginkortasunak bazituen aurrekari historikoak. Japoniar inperioaren kamikazeak eta Vietnamgo *vietkong*-ak dira garbienak, akaso. Martir izateko filosofian eraginez, norbait bere buruaz beste egiteko prest dagoen unean sekulako sarraskia eragin dezake, aurrean munduko armadarik sofistikatuenak eduki arren. Eta horren frogarria izan zen New Yorkekoa, eta ostean etorri diren beste hainbat atentatu ere. Horieta asko Europan gertatu dira, Frantzia, batez ere, baina baita Espainiako Estatuan ere: Madrilgo trenen erasoak,

"MENDEBALDEA BERE AHULDADEAZ OHARTU ZEN EGUN HARTAN"

"XXI. MENDEAREN HASIERA EKARRI ZUEN ATENTATUAK"

"HANDIK AURRERA, GERRAK BESTE ERA BATERA EGIN DIRA"

JUANJO SAN MIGUEL, KAZETARIA

2004an; edo Bartzelonako Rambletako, 2017an", dio Lazkanoiturburuk.

Zera dio horri buruz San Miguelek: "Harridura izan zen nagusi; batez ere, hegazkinak izan zirelako atentatua gauzatzeko erabilitako arma. Atentatu haren eraginez, AEBek eta **mendebaldea** hitzarekin ezagutzen dugun horrek guztiorrek ere bere ahuldadearen kontzientzia hartu zuten. Inongo arma sofistikatuerik eta teknologikorik erabili gabe gauzatu zuten atentatua, eta horrek sekulako babes falta eragin zuen gizartean".

Segurtasun neurrien zorroztea

Babes falta hura nolabait ezalatzeko, segurtasun neurrien "berrehalako gorakada" ekarri zuen atentatuak. "Hari erantzunez etorri ziren denok pairatu ditugun segurtasun neurriak. Se-

"ERA BARREGARRIAN ALDE EGIN DUTE AEB-EN AFGANISTANDIK"

"ERASO KAMIKAZEEN KULTURAK BAZITUEN AURREKARIAK"

"SEGUROKRAZIA' IZUGARRI HEDATZEKO BALIATU ZUTEN AEB-EN"

DABID LAZKANOITURBURU, KAZETARIA

gurtasunaren eta askatasunaren arteko lehia moduko bat ekarri zuen, eta alaketak ekarri zituen legeekin eta oinarritzko eskubi-deekin lotuta. Horri gehitu munduan zehar hegazkinen bidaia-tzeko sorrarazi zuen beldurra", dio San Miguelek.

Antzerako gogoeta egiten du Lazkanoiturburuk ere: "**Segurokrazia** izugarri bultzatu zuten AEBek, eta, hari jarraiki, baita Europak ere. Ez hori bakarrik: terrorismoaren aurka egiteko aitzakiarekin sekulako sarraskiak egiteko baliatu zuten".

Ondorio militarrik

Arlo horretan eragin nabaria izan zuela diote bi kazetariak: "Alde batetik, gerra egiteko modua aldatu zuen. Ordura arteko gerrak armada armadaren kontra formatuan gertatzen ziren, eta handik aurrera talde erregularrak aurkako gerrak egin izan dira gehiago. Horren adibide dira: Afganistango inbasioa, Irak, Siria... Eta islamiar terrorismo deritzonaren gorakada ekarri zuen, ostean atentatu kamikaze ugari egin dira-eta", adierazi du San Miguelek. "Gaur egun gerrak irabaztea oso zaila da, eta horren adibide dira Irak eta Afganistan; ez duzu galtzen, baina galtzea bezala da. Hogei urte pasa dira Afganistan utzi duten arte, eta barregarri gertatzeko moduan egin dute ihes", dio Lazkanoiturburuk.

"Harriduraz eta beldurrez bizi izan genuen; beldurrez, batez ere"

XABIER MUGARZA NEW JERSEYN ZEGOEN OÑATIARRA

Egun historiko hartan Xabier Mugarza oñatiarra han zegoen. Urtebete lehenago ULMArentzat lan egitera joan zen bertara eta gertakarien epizentrotik 25 kilometrora egotea egokitu zitzaion.

Nola izan zuten gertatzen ari zen guztiaren berri?

Bada, bitxia izan zen, Oñatiko lagun batek bidalitako posta elektronikoa izan zelako nire lehen erreferentzia. Nola nengoen galdetu zidan, eta horren harira zabaldu zen albiste bulegoan zehar. Nire emaztea dena ere han zen nirekin, eta amak egindako dei batek esnatu ostean konturatu zen gertatzen ari zena.

Gertakari asko izan ziren denbora gutxian. Nola oroitzen dituzu une haiek?



X.G.


Bulegoan telebista txiki-txiki bat genuen eta hari begira aritu ginen bulegoko 30 lankideak. Harridura asko, baina, batez ere, beldurra. Beldur sentsazioa zen nagusi, eta bigarren hegazkinaren kolpea zuzenez zuzenean ikustea izan zen unerik beldurgarriena, baita dorreak jausten ikustea ere.

Inor ez zen bulegotik korrika atera?

Ez. Hain geunden harridura, ez genuen erreakzionatzeko indarrik; blokeatuta bezala geunden. Gogoan dut etxera itzultzeko beldur izan ginen batek nire etxean egin zuela lo egun hartan.

2005era arte egon zinen han. Zenbat denbora pasatu zen hiriak normaltasuna berreskuratzeko?

Hasieran, asko kostatu zen shock hura gainditzea, eta hiria hilda bezala egon zen. Atentatua pasa eta bi astea Manhattanera gerturatu ginen, eta ez dut sekula ahaztuko han zegoen usaina. Ezin dut deskribatu usain hark eragiten zidan sentsazioa. Baina estatubatuarrek gauza onak eta txarrak dituzte, eta berezkoa duten patriotismo horri esker azkar lortu zuten egoera iraultzea eta aurrera egitea.



BELEN MARTIN
TABERNARIA

"Irratian entzun eta jarraian telebista piztu genuen"

"Hotelean eta tabernan obrak egiten ari ginela oroitzen dut. Irratiaren bitartez iritsi zitzaigun lehen berria, eta atentatua izan zela zioten, nahiz eta egilea nor zen ez zuten esaten. Ikusminak eraginda telebista piztu genuen, eta gogoratzen dut iruditan ikustean fikziozko pelikula bat zela pentsatu nuela".



MIKEL LEZAMIZ
MONDRAGON TALDEAN ARITUA

"Egoera beldurgarria dago mundua; atzerantz goaz"

"Etxera itzultzen ari nintzela, irratiari entzun nuen istripu bat gertatu zela New Yorken. Baina telebistan bigarren hegazkinaren kolpea ikustean, erasoak zela jabetu nintzen. Hark soka luzea ekarriko zuela pentsatu nuen; gerrak han eta hemen. Halaxe izan zen, eta orain, Al Qaeda eta talibanak indartsu daude".



MARIJE UGALDE
MUSIKA IRAKASLEA

"3 urteko semeak: 'Lasai, hori aitzak konponduko du'"


"Sukaldea jasotzen nengoen, telebista jarrita, eta senarra iristean hegazkinaren lehen kolpea ikusi genuen. Istripua zela pentsatu genuen. Bigarren talka ikusi ostean urduri jarri ginen, atentatua zela konturatu ginela, baina 3 urteko semeak esan zuena ez dugu inoiz ahaztuko: 'Aitzak konponduko du'".



MANEX AGIRRE
BERTSOLARIA

"Argi utzi zuen ez ginela mundu seguru batean bizi"

"Ile-apaindegian harrapatu ninduen, eta gogoan dut gidabaimena atera berri nuela. Milaka galdera etorri zitzaizkigun lehen kolpean, eta informazio gehiago jaso ahala esan nion neure buruari: 'Gertatu dena oso potoloa da'. Mundu seguru batean bizi ginela saltzen ziguten, eta hala ez zela frogatu zuten".



GORETTA MADINA
ABOKATUA

"Mendebaldeak porrot egin du Afganistanen"

"Gogoan dut alaba eduki berri nuela eta gurasoen etxean nengoela hura gertatu zenean; ikaragarria izan zen. Abuztuko talibanen erasoak argi uzten du mendebaldeko indar kulturalak, politikoeak eta militarrek porrot egin dutela Afganistanen, eta Kabulgo aireportuko irudiak dira horren erakusle".



Herenegungo lehen eskolen ostean, Antzuolako eskolako ikasleak bazkaltzera bidean, atzean eraikin berria dagoela. XABI URZELAI

Egunerokotasunera itzuli dira ikastetxeak, zenbait berrikuntza tarteko

Bailarako hezkuntza zentro guztietan ekin diote ikasturte berriari jada, egun desberdinetan izan bada ere. Eraikinetan obra ugari egin dituzte; denen artean aipagarriena, 300 metro koadroko azalera duen Antzuolako Herri Eskolako

Hasier Larrea DEBAGOIENA

Aste berezia bizi izan dute Debagoieneko hezkuntza zentroetako irakasle zein ikasleek. Lehen eskola egunek beti pizten dituzte neska-mutilengan sentimentu gazi-gozaok, oporrak amaitu direla esan nahi duelako, bate-tik, eta lagun askorekin berriz elkartuko direlako, bestetik. Hezitzaileen ardura izaten da, lehen egunetan, urduritasunak baretu eta ikasturte berriaren nondik norakoak azaltzea.

Tokian tokiko irekierak

2021/22 ikasturteari ongietorria ematen lehenak Bergarako Aranzadi ikastolako eta Mariaren Lagundia ikastetxeko Lehen Hezkuntzako ikasleak izan ziren, astelehen goizean. Oñatiko Urgain eskola publikoko Txiki Txoko haur eskolak ere orduan ireki zituen atea.

Lehen eskola eguna asteazkena, hilak 8, izatea erabaki zuten bailarako herrietako ikastola eta herri eskola gehienetan. Salbuespenak ere izan ziren: Oñatiko Txantxiku ikastolan martitzenean izan zuten aurkezpen eguna, atzo Arantzazuko Ama Birjinaren eguna zela-eta jai hartu baitzuten. Eskoriatzako Luis Ezeiza herri eskolan atzo izan zen hasiera eguna. Maitane Gomez de Segura irakasleak aipatu du irailaren 8an Leintz Gatzagan jaieguna zutelako hasi zirela egun bat geroago, "Gatzagako zenbait gazte

HEZKUNTZA-ZENTRO GEHIENEK ASTEAZKENEAN EMAN ZIOTEN HASIERA KURTSO BERRIARI

Eskoriatzako ikastetxera joaten dira-eta ikastera".

Berrikuntzak eraikinetan

Aurtengo uda hezkuntza-zentroetan egokitzapen lanak egiteko aprobetxatu dute zenbait ikastetxek. Luis Ezeizan bertan, adibidez, teiltua konpontzen aritu dira, eta gutxi falta zaie langileei konponketak amaitzeko. Hori ez ezik, jolastokiko kantxako lurzorua ere moldatzen ari dira, lehen zeuden zuloak estaltze aldera. Lur horretako marrak margotuko dituzte ondoren, eta "hutsik dauden espazioak zazpi jolas" marrazteko aprobetxatuko dutela aurreratu du Gomez de Segurak.

Obrak egiten ari diren beste eraikin bat Aretxabaletako Kurtzebarri eskolako Haur Hezkuntzako gunea da. Urria eta azaroa artean lanak amaitzea aurrei-

kusita dagoela aipatu du bertako zuzendari Mikel Uribarrenek: "Espazio goxoagoa, erosoagoa eta argiagoa izango da, zoru erradiatzailearekin eta leiho berriekin, berotasuna mantentzeko; funtzio askotariko gelak ere edukiko ditugu, ikasleak une-oro hezitzaileon begiradapean egotea ahalbidetuz".

Erosotasuna, horixe bera eskainiko die Antzuolako Herri Eskolako eraikin berriak bertako erabiltzaile guztiei. Duela urte batzuk sortutako espazio gehiagoren premia "pixka bat berandu" ase dutela onartu arren, Silvia Ezpeleta zuzendaria eta Maitane Olasolo ikasketa-burua "oso pozik" agertu dira 300 metro koadroko eraikin moderno estreinatuta berritan. Hiru urte pasa dira obrak hasi zituztenetik, eta 1,2 milioi euroko aurrekontua izan dute. Instalazioek patioa eta jangela handiagotzea eta gela, bulego eta komun gehiago edukitzea ahalbidetuko diete ikasle zein irakasleei. Hala, lanak egin bitartean jarritako ikasgela aurrefabrikatuak erabiltzeko beharrik ez dute izango aurrerantzean.

Arrasaten ere egin dituzte zenbait egokitzapen hezkuntza-zentroetan. Erguingo Herri Eskolan, esaterako, komunak berritu dituzte, eta atezainaren etxea atontzen dabilza eskolako beharrei erantzuteko (Ikus 12. orria). Musakolako Herri Eskolan ere azaro inguruan hasiko dira "eraberritze lan potoloak" egiten, bertako arduradunek azaldu dutenez.

Protokoloa, ez hain zorrotza

Aurtengoa, iazkoarekin alderatuta, malguagoa izango da pandemiaren gaineko neurriei dagokienez, baina segurtasuna bermatzeko protokoloa eguneratua oraindik zorrotz bete beharko dute eraikin guztietan.

Aldaketen artean dago hemendik aurrera ez dutela ikasleen tenperatura egiazatu beharko. Ikasgela barruan ere taldekako lanak egitea baimenduko die Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak kaleratutako protokoloa

AIREZTAPENA, DISTANTZIA ETA MASKARA DERRIGORREZKOAK IZANGO DIRA

berriak. Gainera, aurtengo ikasturtean kanpora begirako ekin-tzak eta barnetegietara irteerak egin ahalgo dituzte ikastetxeetan. Horrez gain, eskoletako sarretan pilaketak saihesteko neurriak malgutzeko aukera ere badaukate.

Burbuila-taldeak, ordea, mantendu egingo dira; ikasleak zikloka edo mailaka egongo dira sakabanatuta, beraz. Momentuz, protokoloak maskararen derrigorrezko erabilera ezartzen du, baita gutxieneko distantzia errespetatzea eta barruko espazioak une oro aireztatzea ere. Izan ere, "iazko zuhurtzia maila berari" eutsi nahi dio Hezkuntza Sailak.

Ikasleen iritziak

Hain zuzen, ikasgeletan aurkitu dituzten arauen inguruan galdetu die Goienak Lehen Hezkuntzako zenbait ikasleri, eta gehientsuenak bat etorri dira honako eskaera honetan: "Kurtso hau aurrera joan ahala, klaseetan musukorik gabe egotea gustatuko litzaiguke". 6 urtetik beherakoak bakarrik ibil daitezke maskararik gabe.

Unibertsitatea eta heziketa zikloak

Aretxabaletako Lanbide Eskolan eta Bergarako Miguel Altuna Lanbide Heziketan atzo egin zituzten goi mailako graduen aurkezpenak; datorren martitzenean hasiko dituzte, berriz, erdi mailako zikloetako klaseak.

Mondragon Unibertsitateko gradu gehientsuenetako ikasleek atzo izan zuten elkarren berri lehenengoz; heziketa ziklokoek, berriz, herenegun. Beraz, datorren astean ia klase guztiak normaltasunez garatzen hasiko dira.

EHUko graduei dagokienez, bailarako ikasle ugari aste honetan ekin diote ikasturteari; beste zenbaitek, berriz, datorren astean.

Salaketa-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna Aldarrikapen- gutuna Kexa-gutuna

Hiru hildako lan istripuetan

JOSU GARITAONANDIA

'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN
ARDURADUNA

BERGARA

Gipuzkoan, ofizialki, aurtengo lehenengo sei hilabeteetan hiru hildako izan dira, baina, beste iturri batzuen arabera, gehiago izan dira; kontua da zer datu hartzen diren estatistikak egiteko orduan. Edozein kasutan, zero hildako izan beharko zuketean, Joan Vicenc Duranek adierazi duenez; istripu guztiak hartu behar dira larritzat, eta epe berean Gipuzkoan gertatu diren 28 larriak, 4.929 arinak eta bajarik hartu gabeko 5.987ak, denak ondo aztertu izan balira eta dagokion neurriak hartu, ez zen hildakorik egongo.

Ekainaren 9an, 48 urteko bat hil zen eskaileratik erorita Eusko Jaurlaritzako Lakua I eraikinean; momentuz, ez daukat informazio gehiagorik, eta suposatzen dut legearen barruan egongo zirela eskailerak. Orain dela urte eta piku, Bilbon Ingeniaritza Unibertsitateko eskailerak ez zuen legea betetzen, eta istripu batzuen ondoren langile bat hil zen.

Erakunde publikoek izan behar dute gizartearen eredu zero hildako izateko lan istripuetan.

Gure bailaran 2020ko irailaren 25an hil zen azken langilea, Oñatin; ea benetan azkena den.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBIÑE UBEDA





ZABALIK

IÑAKI ARTOLA ZUBILLAGA

Zein da gaia?

Ez dut nahi edota ezin dut *gaia*-ri buruz propio hitz egin. Zertaz idatzi orduan? Horra hor post-it berdeetan bururatu zaizkidanak: Kanadako beroaldia, Alemaniako uholdeak, Mediterraneoan suteak, Ternua urtzen... Errefuxiatuen kanpaleku erraldoiak, Mediterraneoan, Bidasoa... Dagoeneko urperatutako gaiak. Isil-isilik telefoniako antenetako 5G aparailuak gure kale eta mendietan. Munduko aberatsak gero eta aberatsago; pobreak gero eta pobreago. Afganistan, 20 urte igaro eta gero hau! Fosfatoa eta gasa Sahararen negarra, nazioartearen lotsa. Argindarra urrearen pare eta gu auto elektrikoaren ametsarekin. Estatu eta herrien belaunaldietarako zorpetzea, hipoteka eta etorkizuna. Ixtitako denda txikien atarian SEUR furgoneta ugari.

ITZULIKO EZ DEN IRAGANARI BEGIRA JARRI ETORKIZUNA IKUS EZ DEZAGUN

eta manipulazioaren zientzia. Goobels-ek ere amestu ezin izan zuen ingeniari-tza soziala. Eugenesiaren berpizkundea. Pentsamendu bakarra, diziplina eta akritikotasuna. Itzuliko ez den iraganari begira jarri etorkizuna ikus ez dezagun. Indarkerien areagotzea, emakumeen aurkako gain; ni-gu ez dena onartu ezin!

Eta hemen, herri-lotsen multzora: Zubietan isil-isilik dioxina eta furanoa. Zaldibar ahaztua eta Joakin bertan. Suntsiketa eta txikizioa Angiozarren, Elorrion, Atxondon... Euskaltel-en antzera ez izana/ez izena ez duten auzolan zapuztuak. Gure Osasun Sistemak agerian utzitako ahuldadea. Euskal Hezkuntza Sistemak 12 urtez emaitza eskasak eman izana. Euskararen erabileran makalaldi luzea.

Lekutan geratzen ari dira herrien eta norbanakoen erabakitze eskubideak, pentsatzeko eta adierazteko askatasuna.

Post-it berdeak, agian, ez ziren egokienak oraingoan. Zutabe bakarrerako titular ugari. Mariano Ferrer faltan sumatzen dut!

Gertuko aberastasunaren suntsitzea, lanaren prekarizazioa, norbanakoaren ezereza, kontrola eta ahuldadea. Deseraiki berrabiarazteko. Gaixotasunaren medikuntza versus osasunerako medikuntza. Zientziaren manipulazioa

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE



HANDIK ETA HEMENDIK

'Heriortzea'

AITZOL ATUTXA

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Errori zara berriz ere, enegarren aldiz. Jaiki zara azkeneko, momentuz. Ez duzu berriz errori nahi, baina ez erortzeko aukera bakarra lurrean jarraitzea da, geldi egotea, eta zuk ez duzu hori nahi. Pauso bat gehiago ematera zoaz, beldurrez gainezka; horrek eragiten dizu kezka, eta hortxe dago koska. Koska txikia da, baina berriz errori zara.

Bai, ez, bai, ez.

Azkenean, hurbildu naiz galtzeko arrisku mugagabea zen toki horretara. Lurrean zeunden, ez zenuen pauso

gehiagorik eman nahi. Ibilbide malkartsuetan ingurukoak ere kaltetuta ateratzen dira sarritan; sokalagunak ondo aukeratu behar dira, eta hartara nentorren. Bideen zailtasuna bidelagunek egiten dutela adieraztera. Berdin dute sugeen pare arrastaka egin beharreko bide hark zituen zailtasunek, berdin du ahuntzen pare igo beharreko pareta hark, itsaso zakarreak egin beharreko zeharkaldiak edota basamortuko itoaldiak malguagoak dira lagun baten ondoan.

Dena ondo zihuan, dena ondo ez doan arte. Baina ordura arte ez genekien zer zen ondo zihuan hori. Aldaketak egiten saiatzen zara, baina zer aldatu

den jakin gabe galtzaile sentitzen zara. Hain da fina irabaztearen eta galtzearen arteko marra hori, hain daude gertu zerua eta infernua, non sarritan galtzen duen bizitza honek bere zentzua. Berriz ere *heriortzea*, lurrera erroi eta bertan desagertu nahi duzun momentu hori.

Zerk astintzen du zeure burua? Zein da zure helburua? Pasoen sendotasuna nola berreskuratu, gorputzaren irmotasuna nola bilatu.

Puntu garrantzitsuena da guretzat helmuga, baina hanpadura berezia jarriko bagenu ibilbidean?

Gogoratu, sentitzen duena egiten duenak, galdu arren, beti irabazten du.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailtetako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Ziortza Martín,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Arebaleteko Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI


"Sulkonazola nola eman topatu gura dugu orain"

IKER BADIOLA EHU-KO IKERTZAILEA

Julen Iriondo M. de Zuazo ARRASATE Koronabirusaz kutsatutako pertsonengan sulkonazol konposatuak gaitza garatzeko aukerak %85 murrizten dituela ondorioztatu dute Bergaran bizi den Euskal Herriko Unibertsitateko ikertzaile Iker Badiolak eta haren taldeak. Bost hilabeteko ikerketa egin dute, eta urratsak egiten jarraitu gura dute; sulkonazola administratzeko moduak aztertzen ari dira.

Nola iritsi zarete sulkonazolaren inguruko aurkikuntza hori egitera?

Hainbat lankidetzat ditugu, eta garrantzitsuenetako bat da Bordeleko INSERM taldearekin egiten duguna. Frantziako ikerketa instituzio nazionala da hori –Espainiako CSICen parekoa–. Elkarlanean ikertzen ditugu molekula jakin batzuk, eta horien artean dago furina izeneko proteina, minbizi batzuetan aurrera egiteko funtzio garrantzitsua betetzen duena



Iker Badiola. GOIENA

–minbiziak da gure ohiko ikerketa esparrua–. Hala, pandemia iritsi zenean talde horretako arduradun Majid Khatiben deia jaso nuen, eta esan zidan irakurri ote nuen furinaren deskribapen

zientifikoa. Azaldu zidan furinak paper oso garrantzitsua jokatzen zuela SARS-CoV-2a gorputzera sartzen denean; izan ere, lagundu egiten dio birusari gure gorputzeko zelulekin

elkartu eta barruraino sartzen.

Puntu horretatik abiatu zineten?

Bai; orduantxe jakin genuen birusari furinaren laguntza kentzen badiogu, edo, beste era batera esanda, blokeatu egiten badugu, birusak arazoak izango dituela gorputzera sartzeko.

Zein urrats egin zenuten gero?

1.000 konposaturen testak egiten hasi ginen ordenagailu bidez, furina blokeatzeko gai zein botika izan daitezkeen ikusteko. Simulazio bidez 1.000 horietako hogeirekin geratu ginen, onenekin. Gero, horiek laborategian testatzen hasi ginen, birusa blokeatzeko duten gaitasuna neurtuz. Hor gailendu zen sulkonazola; emaitza onenak hark eman zituen.

Eta zer da sulkonazola?

Antifungiko moduan erabiltzen da; onddoen aurkako pomada moduan, alegia. Jakina, horrek ez du esan gura birusari aurre egiteko denok pomada hori hartzen hasi behar dugunik. Botika hori beste nolabait emateko modua topatu gura dugu.

Nola egingo duzue hori?

EHUko Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko irakasle eta ikertzaileak gara

gu, eta gure jakintza eta gaitasunak honaino iristen dira. Egindako aurkikuntza patentatu egin dugu, eta bigarren pausoa da honi bultzada ematea agentzia erregulatzaile ezberdinek onartu dezaten. Izan ere, botika bat asmatzen denean erakunde ezberdinek onartu egin behar dute –tartean, EMAk–, eta aurrez egin behar dira ikerketa oso espezifiko eta berezi batzuk. Baliabide, jakintza eta diru aldetik hutsune handiak ditugu guk horretan: industria farmazeutikoak du horretarako gaitasuna.

Horregatik, bazkide bila ari gara orain, eurekin aurrera egin ote dezakegun ikusteko.

Ze momentutan izan daiteke erabilgarria eta eraginkorra sulkonazola?

Txertoek uzten duten hutsune hori betetzera etorriko litzatekeela esan dezakegu. Txertoek ez dute %100eko eraginkortasunik, eta pertsona batek txertoa hartuta eduki arren gaixotasuna barneratzen badu eta gaixotasun hori larritzen hasten baldin bada, botika moduan erabiltzea litzateke asmoa, hori garatzeko, gorputzean ez hedatzeko eta gaixotasunak aurrera ez egiteko.

ITURRI ONETIK

UDAK 75. urteurrena ospatuko du

Aretxabaleta Kirol Elkarteak 1946ko irailaren 15ean sortu zen; herriko eta inguruko gazteekin osatutako futbol taldeak lehen partidua jokatu zuen egun hartan. 75 urte pasatu dira ordutik, eta irailetik uztaile arteko egitaraua prestatu du UDak: argazki erakusketa, testigantzekin osatutako ikus-entzunezkoaren emanaldia Arkupen, futbol zelaiko paretan horma-irudia margotzea, hitzaldiak hilero, Kurtzebarriko gurutzeargia argizatzea, UDA eguna, omenaldiak...

ALBISTE IZAN ZEN

2005-09-06

Reala eta Eibar, kilometroen alde Atxabalpen

2.000 lagun elkartu ziren Arrasaten, Atxabalpe futbol zelaian, Realaren eta Eibarren arteko partidua ikusteko. Leintz aldean handik hilabetera –urriaren 2an– ospatu zen kilometroak jairako sosa batzeko antolatutako zuten partidua. Lopez Rekarte arrasatearra –Realeko kapitain– eta Jose Jabier Barkero aretxabaletarra zuri-urdinekin aritu ziren. 2-0 nagusitu zen Realak eta Kovacevick eta De Paulak sartu zituzten golak.



GOIENA

HAU BE BADOGU!

Euskal diaspora izan dute gogoan txiolariek

Euskal Diasporaren Eguna izan zen eguaztenean, eta, horregatik, *trending topic* izan zen #euskaldiasporareneguna traola.

@TM_eLab: "Gaur Euskal Diasporaren Eguna ospatzen den honetan, agurrik beroena arrazoi desberdinengatik aberria inoiz utzi eta ahaztu gabe mundu zabalean barrena diren euskal herritarrei eta bere ondorengoei".

@herripublika: "Gaur Euskal Diasporaren Eguna da. Ez dugu ahaztu behar, zazpi herrialde + 1 garela, eta munduko beste lekuetan dauden euskaldunak osatzen dutela".

23 ikastaro, aurten, Musakolan eta Uarkapen

'Jardun zure alde, osasunez' lelopean, 23 ikastaro eskainiko dituzte 2021-2022 ikasturtean bi gune horietan, eta hiru berrikuntza egongo dira: 'core-stretching'-a, aire zabaleko 'crossfit'-a eta 'k-strech'-a, Uarkapez gain, Musakolan ere egongo da

Eneko Azurmendi ARRASATE

Musakolan honako ikastaro hauek egongo dira aukeran ikasturte honetan: pilatesa, pilates terapeutikoa, yoga, *body balance* egokitua, *k-strech*-a, *core-stretching*-a, *crossfit*-a, zumba, *spinning*-a, *body pump*-a, *spinning pump*-a, *jumping*-a, gazteendako zumba, gazteendako *spinning*-a eta 60 urtetik gorakoendako gimnasia. Halaber, uretako hainbat jarduera ere bai: *aquagym*-a, *matrogym*-a, helduen igeriketa, haurren igeriketa eta igeriketa egokitua. Uarkapen, berriz, *k-strech*-a eta hipopresiboak egongo dira aukeran.

Ander Garay Kirol zinegotziak onartu duenez, erabiltzaileak interes handia erakusten ari dira eskaintzarekiko. "Ikusten dute normaltasun baterantz goazela eta ikusten dute, halaber, kiroldegia segurua dela". Hala, izen-emateak nahiko aurrerata daudela nabarmendu du. "Ez gara iritsiko pandemia arrereko datuetara, baina ez gara urruti ibiliko".

Ate irekiak datorren astean

Ikastaro horien gaineko informazio osoa ate irekietan emango dute, irailaren 13an, 14an eta 15ean, eta diziplina guztiak probatzeko aukera egongo da, doan. "Gura dutena probatzeko aukera izango dute erabiltzaileek, eta gustukoena aukeratu. Beraz, animatu daitezela ate irekietara", nabarmendu du Kirol zinegotziak. Edozean ere, aurrez izena eman beharko da, 943 25 20 30 telefono zenbakira deituta. Ordutegi guztiak *Goiena.eus*-en daude ikusgai.

Igerilekuek "oso harrera ona"

Aurtengo udak emandakoaren balorazioa ere egin du Garayk, eta adierazi du "oso datu onak" eman dituela Arrasateko kanpoko igerilekuetan; izan ere, uda osoan 27.281 hitzordu inguru



Aitziber Muñoz udal teknikaria eta Ander Garay Kirol zinegotzia, igerilekuetan. E.A.

IRAILAREN 13AN, 14AN ETA 15EAN ATE IREKIAK EGINGO DITUZTE; IZENA EMAN BEHARKO DA AURREZ

ru eskatu dituzte abonatuak eta saldutako sarreren artean, iaz baino 7.891 gehiago (%40,7). 27.281 hitzordu horietatik 5.806 goizean hartu dira eta gainontzeko 21.475 hitzorduak, arratsaldean. Uztailean hartu dira hitzordu gehienak, 14.647 -3.299 goizez eta 11.348 arratsaldean. Jende gehien ibili den eguna uztailearen 22a izan zen, 995 erabiltzaileekin. "Oso positibotzat hartzen ditugu kopuru horiek. Uztailean izan zen hilabeterik onena, baina ekaineko hamar egunetan ere datu onak izan genituen. Gainera, edukiera handiagoa izanik, sarrerak ere saldu ditugu eta hor ere oso ona izan da jendearen erantzuna", azaldu du Garayk. Izan ere, 1.589 sarrera saldu dira -283 ekainean, 587 uztailean eta 718 abuztuan-. Irailaren 19ra arte egongo dira zabalik kanpoko igerilekuak.

Haurren izen-ematea, irekita

Era berean, haurrentzako igeriketa ikastaroak laster hasiko dituzte. Astean egun bat edo bi egiteko aukera izango dute 4 urte arteko haurrek. Izen-ematea irailaren 17ra arte dago zabalik. Behin-behineko zerrenda irailaren 20an argitaratuko da eta zozketa irailaren 22an egingo dute; ikastaroak urriaren 4an hasiko dira.

Ur-parkeak, hilaren 30era arte

Bestalde, Santa Marina eta Villa Amparoko ur-parkeek ere "oso harrera ona" izan dutela azpimarratu du Garayk. "Jende asko ibili da bietan. Gainera, ikusi dugu oso erabilera ezberdina egiten dela batean zein bestean. Santa Barbarakora egun osorako joaten da jendea eta Villa Amparokora, momentuko uneaz gozatzera. Bestalde, azken horretako erabiltzaileen adina asko jaitsi da, ume txikiak ere ibili dira eta. Beraz, oso pozik gaude", dio Garayk. Oraindik ere egunero daude erabilgarri, goizeko hamarretatik iluntzeko zortzietara, eta irailaren 30ean itxiko dituzte.



Esther Lizarralde udal teknikaria eta Johanna Sanchez Berdintasun zinegotzia. X.G.

Bederatzi ikastaro eta lau tailer izango ditu Jabetze Eskolak

Egitaraua etxetara banatuko dute eta izen-ematea datorren astean zehar egin behar da, hilaren 13tik 17ra

E.A. ARRASATE

Bederatzi ikastaro, lau tailer, bi gune iraunkor eta mundu guztiak parte hartzeko bost ekintza barnebiltzen ditu Emakume Txokoaren Jabetze Eskolaren egitarauak, "gizonen eta emakumeen arteko berdintasunean eragiteko helburuarekin". Irailaren 24an Kulturaten egingo den *Erresistentzia arazo fisikoa da antzezlanarekin emango diote hasiera, eta ostein etorriko dira askotariko beste ekintza batzuk: dokumental aurkezpenak, bertso saioak, Azaroaren 25eko ekintzak, eta abar.*

Tailerren artean *Emakumeok eta hitanoaren erabilera: teoriatik praktikara* izeneko nabarmendu dute. Hain zuzen, ikastaro hori borobiltzeko, Noka bertso saioa egingo dute urriaren 28an, Amaia Agirre, Miren Amuriza, Oihana Arana, Haizea Arana, eta Eli Pagolarekin.

Tailer eta ikastaroez gain, bi gune iraunkor eta autogestio-natu izango dituzte: irakurketa feministen txokoa eta emakume migratzaileentzako topalekua.

Irailaren 13tik 17ra eman ahaliko da izena, Emakume Txokoan bertan, astelehenean eguenera 10:30etik 13:30era eta 15:00etatik 18:00etara eta egubakotzetan 10:00etatik 14:00etara. Egitarau osoa *Goiena.eus*-en dago ikusgai.

Ekin Emakumeak ere abian

Bestalde, Ekin Emakumeak elkarteak ere zabalik du joskitza, TAO eta kosmetika naturalaren tailerretarako izen-ematea. Hiru bide daude horretarako: *emakumeak@ekinmakumeak.eus* helbidera idatzita, 651 70 79 36 zenbakira deituta edo bulego gerturatuta: Pablo Uranga 4, behe. Herritarrei parte hartzeko dei egin diete. Informazio osoa *Goiena.eus*-en dago.

21 hilabete murriztu diote zigorra Unai Parot euskal presoari

Arrasateko Sarek baieztatu duenez, 2006ko otsailaren 21etik 2007ko azaroaren 2ra behin-behineko espetxealdian igarotako denbora deskontatu dio Espainiako Auzitegi Nazionalak, Parotek berak kondena berraztertzeko egindako eskaera bati erantzunez. Hala, 2029ko uztailearen 10ean beteko luke zigor osoa, Etxeratek zahatu duenez.

OHARRAK

Erromesaldirik ez

San Juan Parrokiatik ohartarazi dute irailaren 12an ez dela Arantzazura erromesaldirik egingo. Dena den, meza nagusia 12:00etan egingo dute han.

Pentsiodunen ekintza

Asteon ekin diete berriz aldarrikapenei eta astelehenean, irailak 13, plazan batuko dira 12:00etan.

Zuntz optikoa jartzeko lanen atzerapena salatu du EH Bilduk

Berez maiatzean hastekoak ziren lanen "arrastorik" ez dagoela dio, eta alkateari azalpenak eskatu dizkio


Eneko Azurmendi ARRASATE

"Garaia da Arrasateko alkate Maria Ubarretxenak, herritarrak sutzen hasten direnean, giroa baretzeko egiten dituen suhiltzaile promesak aztertzeke. Hori artean, bada 3.000 herritar

ingururi eta Arrasateko hirigune historikoan bizi edota lan egiten duten denda guztiei zuzenean eragiten dien gai bat", azaldu du koalizioak ohar bidez, zuntz optikoari buruz. "Bizilagunek hasieratik sinatu dituzte

baimenak apiriletik aurrera, baina lanen arrastorik ez dago. Kaltetutako herritarren %95ek, guztiek ez esatearren, ez dute enpresa instalatzailearen baten berririk izan. Eta esan gabe doa inor ez dela atarrietan lanak egiten hasi, atarte askotan Udalak bidalitako etxeko lanak azkar batean egin zituzten arren".

Hori gutxi ez, eta TAOren gaineko informazio bulegoan –Olar-te kalean kokatuko dena– zuntz optikoa instalatu izana ere leporatu dio. "Teknologia hori



Alde zaharreko Erdiko Kalea. E.A.

Udalak bere eguneroko jarduerarako erabiltzen dituen lekuei bakarrik emango zaie, alde zaharreko bizilagun, komertzio eta zerbitzuek kapritxo hutsarengatik nahiko balute bezala".

Udal Gobernuak erantzun du bulego horretan ez dela zuntz optikorik ezarri. "Bertakoen txartelak egiteko egongo den TAOren bulegoan egin den esku-hartze bakarra izan da Udaleko errolda sistemarekin konektatzea, eta ez da inolako zuntzen zabalkunderik egin".

Ibai-artek 100 otzara zozkatuko ditu Aste Berdearen baitan

Hilaren 17an banatuko dituzte, Professor Cunningham & His Old School taldearen kontzertuarekin batera


E.A. ARRASATE

Ibai-arte merkatarien elkarteak 0 kilometroko produktuz osatutako 100 otzara zozketatuko ditu, Merkataritza Berdearen astearen baitan. Otzarek hauxe daramate: Bedoñako azenarioak, patata dultzeak eta kalabazako donutsak; Gesaltza baserriko gazta; Leintz Gatzagako gatz-potea; Belaskua baserriko txakolin botila; Oñatiko Txokolateixako bonboiak; Jakion tomate-potea eta Aramaioko ahabi-marmelada.

Zozketan parte hartzeko, Arrasate Txartelarekin erosketa bat

egin behar da eta txartelaren argazkia sare sozialen bidez partekatu: Whatsappen (688 73 41 49), Instagramen edo Facebooken. Argazkia bidaltzeaz gain, *km0 otzara nahi dut* adierazi behar da mezuan.

Horrez gain, New Yorketik datorren Professor Cunningham and His Old School taldearen kontzertuaz gozatzeko aukera ere izango da, Herriko Plazan, irailaren 17an, 19:00etan. Momentu hori aprobetxatuko dute, hain zuzen, sarituei otzarak banatzeko.



NIRE USTEZ

OLIANA SANCHEZ

Gorrotoa moztu

Egunotako Madrilgo adibidea azkena dugu. Garunik gabeko zortzi basatik, arratsaldeko bostak zirela, pertsona bati eraso egin diote. Labanaz eta ipurdian *maricón* hitza tatuatu diote. Azkenean, gezurra dela dirudi, baina hau ez da kasu isolatu bat. Azken hilabeteetan antzekoak entzun behar izan ditugu: *eraso*, *jipoi*, *hilketa*. Denak ere LGTBI+ siglak abizen. Denak ere gorrotoaren seme.

Kasuen igoaldiaren aurrean, batek baino gehiagok pentsatuko du atentzio gehiago ematen zaiela, salaketak sarriago egiten direla edo *trending topic* makabro batez ari garela. Nonork inoiz pentsatu du gorroto diskurtsoen eragin zuzena direla?

Dotore jantzitako heterosexual, zuri eta normatibo direnen hitzaldiak entzuteaz nazkatuta gaude. Tristeia bada ere, publikoa dute. Euren posizio garaietatik ekintzak piztu eta txakurrak hornitzea gustuko dutela argi dago. Are gehiago, haragi puskek aurpegia odolez zikintzen dizkietenean.

Aski da. Txakurrak elikatzeari utzi eta jabeei eskuak mozteko garaia dugu.

Merke 2021

Merkaua

Arrasateko stock azoka **iraila**

<h2>09</h2> <p>osteguna 16:00 / 20:00</p>	<h2>10</h2> <p>ostirala 16:00 / 20:00 + h. Auspo</p>	<h2>11</h2> <p>larunbata 10:00 / 20:00 + h. Auspo</p>
-----------------------------------------------	---------------------------------------------------------------------	----------------------------------------------------------------------

+ h. Auspo
irailaren 10ean eta 11n

Estabiezmendu bat baduzu eta parte hartu nahi baduzu deitu 688 73 41 49 telefonora

ARRASATEKO UDALA
Ayuntamiento de Arrasate

ibai-arte

Euzkadi, nagusia, here comes

Euzko Jaurlaritzak
GOBIERNO VASCO

Erguingo Herri Eskola, komunak eraberrituta

Arrasateko Udalak 152.000 euro bideratu ditu, BEZa kontuan hartu gabe, eraikineko lanetara; lau eremutan egin dituzte interbentzioak, eta espazioak argitsuago eta handiago bihurtu. Jagolearen etxeko obrak irailaren 17rako amaituko dituzte

Hasier Larrea ARRASATE

Udan zehar egin dituzte lanak Construcciones Aplibur SL enpresako langileek. Arrasateko Udaleko Hezkuntza Sailak aurtur egindako inbertsiorik poto-loena izan dela adierazi du Edurne Unamuno Hezkuntza zinegotziak.

Pandemia aurretik hasi nahi zituzten obrak. "Interbentzio handiak zirenez, bi fasetan egin nahi genuen, baina COVID-19ak galarazi egin zigun", aipatu du Iratxe Salaberriak, Erguingo Herri Eskolako ikasketa-buruak. Ondorioz, aurtengo udara atzeratu eta fase bakarrean burutu dituzte lanok.



Iratxe Salaberria, Victoriano Fuentes eta Edurne Unamuno, komun berrietan. H.L.

Komunek aurrez ateratzen zuten usaina desagertu egin dela ere nabarmendu du Unamunok: "Umeek disfrutatu egingo dutela uste dut; espazio zabalagoak dira, eta argi gehiago sartzen da". Eremu bakoitzak irisgarritasun komun bat du, gainera, baita tamaina askotariko konketak ere, adin guztietako ikasleentzako mesederako.

Udal ordezkariak ere gustura gelditu dira ikusitakoaz. Modu horretara erabiltzaileei "kalitatezko instalazio berrituak" eskaini ahal izango dizkietela adierazi du Victoriano Fuentesek, Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako zinegotziak.

Atezainaren etxea egokitzen

Eraikin nagusira itsatsita dagoen etxe hori hutsik zegoela-eta, ohiko gelak baino txikiagoak diren txokoak barruan kokatzea ere eskatu zioten Herri Eskolako arduradunek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari. Abuztuan hasitako lanei datorren barikuan emango diete amaiera, eta laguntza eskolak eta sukaldaritza tailerrak emango dituzte eraikin eraberrituan.

Gazte txokoak eta ludotekak, betiko martxa hartzera

Irailaren 13an irekiko dituzte ateak Okendoko, Santa Marina-ko eta Usaetxeko ludotekak, eta egun bat geroago auzoetako gazte txokoak. Dorleta Kortazar Gazte Bulegoko teknikariak aurreratu du aurtur ez dutela burbuilarik ezarriko: "Edukiera libreria itzuliko gara; behin bazkide izateko izena emanda, neska-mutilek ez dute aurrez joango direla abisatu beharko".

Bestalde, asteburuetan zabalik egongo den gazte txokoa Musakolako izango da.

Gainera, herriko euskaltegi-tan euskara ikasteko, 25 urtetik gorako langabeek Lanbide Heziketako ikasketak egiteko eta unibertsitatez kanpoko ikasketak ordaintzeko dirulaguntzak egongo direla gogoratu du Kortazarrek.

Informazio zehatzagoa nahi duena Biteriko Gazte Bulegora gerturatu daiteke, goizetan astelehenetik barikura bitartean, eta martitzen eta eguenetan arratsaldeetan ere bai.



DEBAGOIENENKO GREMIOAK



AROTZEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA
BERGARA / Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

**EXCAVACIONES Y CONTRATAS
ARRASATE SL**
ARRASATE / Meatzerreka 30
Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87
e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA
ARRASATE / Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA / Aranburuzabala 15
Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA / Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

LOREZAINZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA / Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 - 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45

"Iraupen luzeko proba izan behar du ligak"

JULEN OTXANDIANO MONDRATEKO ENTRENATZAILEA

Eskubaloi jokalariztatetik Arrasateko areto futboleko talde gorena entrenatzera pasada. Maila Nazionalera igo berri, urte historikoa da arrasatearrendako

Xabier Urzelai arrasate

Julen Otxandianok (Arrasate, 1991) zuzenduko du Mondrateko **Hirugarren Mailan**. Arrasateko eskubaloi taldearekin zenbait igoera fase jokatuakoa, kirolez aldatu eta orain areto futbola-ekin dabil gozaten, baina aulkitik.

Zer dute komunean eskubaloiak eta areto futbolak?

Bueno, kirol jarduera ezberdinak dira, baina, azken batean, lehiakorra izatea da helburua. Eskubaloiaren ez nintzen jokalaririk onena, inondik inora, baina ez zitzaidan galtzea gustatzen. Eta hemen berdin. Jokoari dagokionez, eskubaloiaren eraso jokaldi bakoitza garrantzitsuagoa da, jokaldia landuago egoten da eta gehiago irauten du, 40 segundo jabetzak izaten dira, eta hor, akatsak garestiago ordaintzen dira. Areto futbolearen, berriz, baloia galtzea ez da horren larria, ondo presionatuz gero segituan errekupeatu daiteke berriz, baina eskubaloiaren ez. Horregatik esaten diet jokalariei ez larritzeko baloia galtzen badute, lasai jokatzen.

Eskubaloi jokalariztatetik areto futboleko entrenatzaile izatera pasazara. Zer dela eta?

Eskubaloiaren ziklo bat egin nuen eta urte politak bizi izan genituen. Valentzian [Alcasserren] igoera fase bat jokatu genuen, hurrengo igoera fasea etxean, Iturripen, antolatuta genuen... Baina motibazioa galduta-edo eskubaloiaren uzteko erabakia hartu nuen. Hala, duela bost urte inguru Jon Zabaletari laguntzen ibili nintzen Mondraten, eta urtebete egin nuen taldean. Anaiaren kuadrillakoek sortu zuten Mondrate duela zortzi urte inguru, eta gertuan ibili naiz. Iaz, laguntzaile ibili nintzen, Zabaletari eskaintza polita egin diote Mondran, eta, horrenbestez, haren hutsunea betetzeko eskatu didate.



Mondrateko entrenatzaile Julen Otxandiano. J.O.

"ARETO FUTBOLEAN BALOIA GALTZEA EZ DA HORREN LARRIA, ERRAZ ERREKUPERA DAITEKE"

Datorren astean hasiko zarete; zelan ikusten duzu taldea?

Hasteko, udan jokalariek uste nuena baino lan handiagoa egin dute, fisikoki oso ondo etorri dira lehenengo entrenamendu saiora. Guk, gure sasoiaren, ez genuen halakorik egiten. Motibatuta daude Maila Nazionalen jokatu dutelako, eta opor aurretik esan genien denboraldiaurrea ez genuela pasatu behar korrikako saioak egiten, lan aerobikoa egiten, hori etxetik ekarri behar zutela eginda. Eta bete egin dute.

Ze alde dago Euskal Ligaren eta Hirugarren Mailaren artean?

Jokoa azkarragoa izango da, seguru. Eta buruz buruko jokaldietan zailagoa izango da gola egitea, iaz dezente egin genituen horrela. Orain, partidu osoan egon beharko dugu adi, hegale-

ko jokaldi bat ere landuta egon daiteke. Taldeek taktikoki lan handiagoa egiten dute, gehiago aztertzen da kontrarioa, ondo presionatzen jakin behar da... Bestalde, esango nuke iaz fisikoki ondoen landutako taldea ginela, eta horri eutsi behar diogu.

Eta lan mentala ere hor egongo da: irabaztera oso ohituta zaudete, eta aurten garaipenak ez dira barra-barra etorriko.

Zalantza barik. Talde gaztea dugu, eta kontziente izan behar dugu 34 jardunalditako liga batean bolada txarrak izango ditugula. Honek iraupen luzeko proba bat izan behar du, eta momentu txarrak gainditu egin behar ditugu. Ondo hastea garrantzitsua izango da.

Derbi ederrak izango ditugu aurten ligan...

Bai; duela urte gutxi eskoriatzarren kontra ere derbi politak izan genituen eta aurten ere parez pare egongo gara, baina Maila Nazionalen. Gainera, ligako azken partidua euren kontra izango dugu. Agian, taula erdian egongo gara ordurako; edo, igual, larri...

'Pitxi' Herrero torneo, liga prestatzen joateko lagungarri

Arrasateko eskubaloi taldeak egun osoko egitaraua prestatu du, kategoria askotako taldeekin, biharko

X.U. ARRASATE

Biharko, zapatua, *Pitxi* Herrero zenaren omenez egun osoko eskubaloi jaialdia prestatu dute Iturripen. Eta *Pitxi Txapelketa* baliagarria izango da kategoria guztietako taldeendako liga hasierara begira. Goizean 10:00etan hasita, kadete nesken eta kadete mutilen partidua jokatu dituzte. Kadete neskek Bergararen kontra jokatu dute hiruko torneoan. Kadete mutilak, aldiz, Gasteizko Gure Auzune Klubeko taldearen aurka arituko dira (12:30).

Arratsaldean gazte mailakoen (16:00) eta senior mailakoen (18:00) txanda izango da, eta hor ere biek ala biek Gure Auzune-koak izango dituzte aurrean.

Liga hasiera, urriaren 3an

Senior mailako taldeak Euskadiko Txapelketan neurtuko ditu



Etxekoak Urrietaren kontrako partiduan.

aurten ere indarrak, eta iazko denboraldi gorabeheratsuen ondoren gogotsu daude liga hasteko. Aurten Federazioak sei taldetako hiru multzo osatu ditu eta Mugarri-Ingou Arrasate taldeko mutilak onatiarrekin batera daude B multzoan.

AKADEMIA

BASIDA

Langileentzako kurtsoak

- HIZKUNTZAK**
- INFORMATIKA**
- ADMINISTRARITZA**

Langabetuendako kurtsoak

- SALMENTAK**
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK**

- TXARTEL PROFESIONALAK**
- SUKALDARITZA**
- DISEINU GRAFIKOA**
- SEGURTASUNA**
- MENPEKOTASUN ARRETA**
- GARBIKETA**

DOAKO FORMAKUNTZA - %100 DIRUZ LAGUNDUTA

Araba etorbidea 3 ARRASATE • 943 79 35 33 • 698 96 94 10
 bastida@bastida.es • www.bastida.es

Ibai-arteren hauspoa, trikitilarien mesederako

Merkemerkaua kalera irtengo den asteburu honi ukitu alai eta herrikoia emango diote Arrasate Trikitixa Eskolak eta merkatari elkarteak Hauspo Egunarekin; bertako trikitilari gazteak eta inguruko musikari beteranoak izango dira protagonistak

Hasier Larrea ARRASATE

Bigarren aldia izango du aurten Hauspo Egunak, eta hori, normalean, estreinakoa ondo joan zen seinale izaten da. Horixe bera baieztatu du Maixa Lizarribarrek, Arrasate Trikitixa Eskolako irakasleak. 2020ko urri hasieran egindako ekitaldiak "harrera mundiala" izan zuela nabarmendu du altzotarrak.

Gainera, Eskola Kalera ekitaldia bertan behera gelditu izana arintzeko balio izan zien iazko Hauspo Egunak, eta beste horrenbesteko balioa emango diote aurten ere: "Tamalez, ezin izango dugu gure ekitaldi propioa aurrera atera, baina Ibai-arterekin batera egindako egitarau honek eskainiko die ikasleei plazara irteteko aukera".

Bost emanaldi bi egunetan

Trikitixa Eskolako kideek kalejira egingo dute zapatu arratsaldean. Zehazki, 17:00etan irtengo dira Biteritik, eta, behin Herriko Plazara iritsita, hainbat pieza eskainiko dituzte irakasleek eta ikasleek. Bien bitartean, haurrek Txatxilipurdik antolatutako tailerrez gozatzeko aukera izango dute toki berean.

Bestalde, Trikitixa Eskolako hiru ikaslek joko dute kontzertua egun berean, arratsaldeko seietan, San Andresko Hiruki plazako oholztan. Bertan, Madi eta Izaro Inurrategi ahizpak Mirari Plazaolarekin batera arituko dira. Plazaola Zarauzko trikiti txapelketa hirugarren aldiz irabaztetik dator, baina kontzertuak jotzera oraindik ohituta ez daudela onartu du. 40 minutu inguruz "abesti dantzagarriak -tartean, kantu mexikarrak-" joko dituztela aurreratu du pandero-jole eta trikitilariak.

Hura amaitzeaz bat hasiko da Portaloian antolatutako emanaldia, 20:30ean. Bertan, ekaineko Pandero Jaialdian parte



'Izer' eta Eneko Dorronsorok girotuko dute zapatuan Portaloia. JONE OLABARRIA

SAN ANDRESEN, PORTALOIAN, HERRIKO PLAZAN ETA LAUBIDEN IZANGO DIRA KONTZERTUAK

hartu zuten Iosu Arrizabalaga *Izer* eta Eneko Dorronsoro arituko dira. Ohituta daude biak batera zein nor bere aldetik ikuskizunak ematera, bata pandero eta trikiti giroan eta bestea Los Zopilotes Txirriaos eta Unidad Alavesa musika taldeekin.

Domekan ere doinu alaiak hartuko dute Arrasateko erdigunea. Eskusoinuarekin maisu izandako Pepito Iantzi lesakarrari omenaldia egingo diote Iñaki Dieguezek eta Xabier Leturiak, 12:30ean, Jokin Zaitegi plazan. Izan ere, plazan zein txapelketetan sarri interpretatutako pieza ugari konposatu zituen Iantzik, eta haren zenbait abesti eroango dituzte plazara.

Ikuskizun horri erromeria ukitua emango diote Arrasateko Txikitxu Arrostitz dantza taldekoek. Maite Bilbao dantzariak aurreratu du "10 dantzari ingu-

ru" egongo direla nagusiki fandango eta arin-arin erritmoak interpretatzen.

Herriko Plaza izango da, azkenik, laugarren ikuskizuneko agertokia. Egun berean, 19:00etan hasita, Iñaki Plaza eta Koldo Uriarte musikariek elkarren artean landutako errepertorioaren berri emango dute.

Horrez gain, Lizarribarrek aurreratu du kontzertuetan informazio mahaiak ere jarriko dituztela, aurtengo kurtsoan Trikitixa Eskolan matrikulatu nahi dutenei begira.

Saia Goait eta Bizarro taldeek gaztetxean joko dute 18an

Atzo egin zion ongietorria sasoi berriari gune autogestionatuak, Alberto Pinzonen hitzaldiarekin

H.L. ARRASATE

Arrotxapeako gaztetxeari elkartasuna adieraziz ekin zioten denboraldiari AGAKOko kideek, Herriko Plazan elkarretaratzea deituta. Biharko, Iruñera joateko autobusa antolatu dute, Arrotxapean jazotako istiluak salatzeko manifestazioa egingo baitute bertan. 15:30ean abiatuko da autobusa, Zalduspetik, eta 21:00etan itzuli. Izena emateko "gaztetxearen Instagram kontura edo AGAKOko kide batengana jotzera" gonbidatu dute.

Gaztetxea ere jarri dute martxan, Alberto Pinzon erbestera kolonbiarrek atzo eskainitako hitzaldiarekin. Bere herrialdeko mugimendu paramilitarra eta bake akordioaren porrota izan ziren Pinzonek entzuleen aurrean jorratutako gai nagusiak.

Hilaren 18rako, zapatua, denboraldiko lehen kontzertua an-

tolatu dute. Bizarro rock talde oñatiarrak Mutrikuko Saia Goait hardcore bandarekin partekatuko du oholztza, 20:00etan hasita. Zazpi eurotan eskura daitezke sarrerak jadanik www.agako.eus atarian.

Bi libururen aurkezpena

Hilabetea borobiltzeko, liburu bana argitaratu berri duten bi idazle etorriko dira gaztetxera, hilaren 23an, 19:00etan. Zehazki, The Capaces taldeko abeslari Marta Fontana *Martillo*-k *La Casa de Verges* aurkeztuko du, fenomeno paranormalei buruzko ez-fikziozko bere lehen obra; Ivan Hernandez Prio izango du alboan, *Desafecto* izeneko ikerketa lanari buruz mintzatzeko.

Gaztetxean ekintzaren bat antolatu nahi duen edonork ostiralero izango ditu asanbladako atea irekita, 20:00etan hasita.

Adin guztietakoak abestera animatzera deitu ditu Goikobaluk

1989an sortutako herriko abesbatza taldeak lau adin-tartetan banatuko ditu aurtengo entseguak, eta dagoeneko antolatu ditu multzo bakoitzaren astero-ko hitzorduak.

Izartxoak -4 eta 7 urte artekoak- martitzen eta eguenetan batuko dira, 18:00etatik 18:45era. Bi egun horietan baina 18:45etik 19:45era izango da *Txikien* -8

eta 12 urte artekoak- txanda. Eguazteneko ordu eta laurdeneko saio bakarra hitzartu dute, 19:00etan hasita, *Gazteentzako* -13 eta 17 urte artekoak-. Eta *Nagusiek* -18 urtetik gorakoak-, azkenik, martitzenetan 20:30etik 22:30era eta eguenetan 20:00etatik 22:00etara berotuko dituzte euren ahots kordak.

Izena emateko bi aukera daude: 685 75 02 22 telefono zenbakira deituta edo Erdiko kaleko Harresi aretoan izango diren entseguetara joanda.



Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82



Eguaztenean, ikasturteko lehenengo egunean, ikasleak eskolatik irteten. A.E.G.

Lanerako gogoz hasi dute ikasturtea eskolan

Eguaztenean hasi zuten 2021-2022 ikasturtea San Martin eskolan: 105 ikasle izango ditu eskolak ikasturte berrian. Eraikinean aldaketa txiki batzuk egin dituzte uda partean; gainera, patioko sabaia ere konponduko dute isolatzaile finkoa jarritz

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Urduri baina gogotsu hasi dute ikasturte berria Aramaioko neska-mutikoek. Eguaztenean, irailaren 8an, izan zuten lehen eskola eguna. Hasiera lasaia izango dute; izan ere, lehenengo aste honetan goizez bakarrik izan dituzte eskolak, eta datorren astean hasiko dute goiz eta arratsaldez ikasturtea.

Eskolako zuzendari Saioa Uriartek azaldu zuen "oso ondo" joan zela lehenengo eskola eguna, eta "pozik" daudela itzulerarekin.

Protokoloa jarraitu


Iazko ikasturtean egin zuten moduan, aurtengoan ere Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ezarritako protokoloa bete beharko dute eskolan. "Eskola txikia izanda ondo egokitu gara protokolora", dio Uriartek. Gaineratu du kalean egiten denarekin alderatuta eskolan maskara denbora guztian jantzita izan

beharko dutela, hori dela aldaketa nabarmenena.

Eraikinean hainbat lan


Udako oporrak aprobetxatu dituzte eraikin barruan lantxo batzuk egiteko. "Lehenengo zikloko gelak batu egin ditugu, eta beirate bat jarri. Modu horretan, talde guztien adin aniztasuna bermatu nahi dugu", dio Uriartek.

Bestalde, irailean zehar eskolako patioko sabaia konponduko dute, isolatzaile finkoa jarritz. Udalak Jaurlaritzaren Udalaguntza lerroan eskutatuko dirulaguntza baliatuko du horretarako: 12.165,25 euro. Lanak Cubiertas y Cierres Gasteiz SL enpresari esleitu zaizkio eta 13.144,46 euroko aurrekontua izango dute.



HAIZEA UNAMUNO
IKASLEA

"Lehenengo eguna izanda urduri etorri naiz. Lagunak ikusteko gogoz etorri naiz; udan partean egon naiz eurekin, baina gutxi".



AIMAR ETXANIZ
IKASLEA

"Irakasle aldaketa izan dugu, talde banaketa... Urduri etorri naiz, egia esan. Hala ere, lagunak ikusteko gogoz nengoen".

Dr. Mahas Miracle Tonic taldeak girotuko du parkeko iluntzea

Parkean egingo dituzte emanaldiak, aire zabalean, 19:00etan hasita, eta gaur izango da lehen saioa

A.E.G. ARAMAIO

Sastiñako Musika Jaialdiak hamabigarren aldia izango du aurten; hala ere, egoerak behartuta, berrikuntzekin etorriko da. Musika emanaldiak aire zabalean izango dira, parkean.

Gaur, barikua, izango da lehen saioa. 19:00etan kontzertua eskainiko du Dr. Mahas Miracle Tonic taldeak. 2011n Bilbon sortutako taldeak western swing eta rhythm-and-blues musika egiten du: 30eko hamarkadara eramaten ditu entzuleak. *Bank Robbers* lana aurkeztuko dute,

hamaika abestiz osatutakoa. Saul Santolaria teknikariarekin grabatutako lana da, Folks Records diskoetxeak editatutakoa.

Irailaren 17an izango da hurrengo emanaldia. Joyful Gospel Choir taldearen ahotsez gozatzeko aukera egongo da. Gasteizko gospel abesbatza bat da Joyful Gospel Choir. 35 abeslarik osatzen dute taldea eta bost musikariren laguntza dute.

Emanaldiak irailaren 24an amaituko dira. Hotel Ruido taldeak emanaldia eskainiko du parkean.

Irailaren 26ra arte eman daiteke izena eskola kirolean

Zabaldu dute Leintz eskola kiroleko izen-emate epea. Irailaren 26ra arte izango dute hurrek eta gaztetxoek kirol eskaintzan apuntatzeko. *Leintzeskolakirola.com* atariko *Izen-emateak* atalean dagoen formularioa beteta eman beharko da izena. Informazio edo argibide gehiago behar dituenak eskolako koordinatzailearekin jarri beharko du harremanetan.

Leintz eskola kiroleko koordinatzaileen asmoa da urriaren 4ko asteen hastea ekintzak. COVID-19a dela-eta Eusko Jaurlaritzak ezarritako protokoloa jarraitu beharko da: kirol instalazio itxietan maskara nahitaez erabili beharko dute.

Rallysprintak eragina izango du Nardeaga kaleko trafikoan

Bihar, zapatua, jokatu dute Aramaioko rallysprinta. Lasterketak eragina izango du trafikoan; hala, Nardeaga kalea moztuta egongo da, okindegitik Arbelera bitartean -14:00etatik aurrera-. Tarte horretan aparkalekuek libre egon beharko dute 08:00etarako. Antolatzaileek bidali dute informazioa lasterketak eragina izango duen etxetara.

Traktoreen azterketa tekniko egingo dute Arbelen eta Oletan

Traktoreen azterketa tekniko egingo dute Aramaion datorren astean. Bi aukera egongo dira: Ibarran, Arbelen egingo dute irailaren 17an, egubakoitza, 11:30ean; eta Oletan, irailaren 23an egingo dute, 09:15ean.

Azterketa unean aurkeztu beharreko dokumentazioa izango da: zirkulazio baimena, azterketa teknikoaren txartela eta aseguruaren agiria.

Azterketan traktoreari begiratuko diote: identifikazioa, kanpoko eta barruko egokitzapenak, argiak eta seinalizazioa, frenoak, direkzioa, ardatza, pneumatikoak eta suspentsioa, motorra eta transmisioa, eta bestelako egokitzapenak.

'Merezi du' euskara ikastaroen kanpaina abiatu dute

Gorbeialdeko Kuadrillak zabaldu du euskara ikastaroetan izena emateko epea. Ikasturtea urrian hasiko dute eta eskolez gain bestelako ekintzen bitartez euskara indartzeko aukera ere egongo da: mintzalagunak, kultura ekitaldiak... Udaletxera deituta (945 44 50 16) edo *euskara@aramaio.eus* helbidera idatzita eman daiteke izena.



Asier Mujika teknikaria, Koldo Zubillaga zinegotzia eta Iñaki Olaetxea, Athloneko koordinatzailea. TXOMIN MADINA

Hogei jardueratik gora kirol denboraldi berrian

Eskaintako guztiak probatzeko ate irekiak izango dira irailaren 13tik 17ra; berrikuntzen artean daude igeriketa ikastaroak haurdun daudenentzat, 'aquagym'-a, nerabeentzat 'circuit training' saioak eta korrika egiteko taldea emakumeentzat

Mirari Altube ARETXABALETA

Pandemia aurreko egoerara eta datuetara itzultzeko asmoarekin %29ko jaitsiera abonatueta-, kirol "eskaintza ezin hobea" gertatu dute Ibarra kiroldegian, eta horren gaineko xehetasunak aurkeztu dituzte Koldo Zubillaga Kirol zinegotziak, Asier Mujika Kirol teknikariak eta Athloneko koordinatzaile Iñaki Olaetxeak. Hogeita lau jarduerak osatuko dute eta lau berriak izango dira. "Normaltasunera bidean urratsak egiten hasi gura dugu", zioen Zubillagak, eta Mujikak gaineratu zuen: "Nahiz eta oraindik edukiera eta funtzionatzeko era mugatua izan". Kiroldegiaren edukiera %60ra mugatzen da, gaur-gaurkoz, eta aldagelen kasuan %50era murrizten da. Hori horrela, kiroldegia erabiltzeko txandak mantendu egingo dituzte, baina gehiago iraungo dute horiek; asteen zehar hiru orduko bost txanda egongo dira; zapatueta, hiru; eta domeketan, bat.

Lau jarduera berri

Irailaren 20an jarriko dituzte abian jarduerak, baina aurretik, hilaren 13tik 17ra bitartean, debalde probatu ahal izango dira, besteak beste, *multifitness*-a, mantentze gimnasia, xunba, yoga, tonifikazioa, hipopresiboak, GAP eta *core training*-a. Edukiera murriztua dela-eta, parte hartu gura dutenek aurretik erreserba egin beharko dute, kiroldegira deituta (943 03 98 42) edo bertaratuta.

Horrez gain, lau berritasun nabarmendu gura izan dituzte. Uretako ekintzak bi dira: *aquagym* saioak martitzen eta eguenetan izango dira (10:00-10:45) eta haurdunentzako uretako jarduerak astelehen eta eguztenetan (14:15-

ATE IREKIETAN PARTE HARTZEKO, AURRETIK TXANDA ESKATU BEHAR DA IBARRA KIROLDEGIAN

15:00). "Instalazio egokiak ditugu eta zerbitzu duina eskaintzeko moduan gaude", zioen Olaetxeak. Lehorreko ekintzen artean beste bi daude: emakume korrikalari taldea *-running-* eta zirkuituko entrenamendu saioak nerabeentzat. "Atxabalta Mugik antolatutako egitasmotik sortu da azken hori, orduan 130 bat gaztetxok hartu zuten parte. Eta helburua da gaztetxoek jarduerekin jarraitzea", azaldu zuen Olaetxeak. Indarra eta erresistentzia kardio-baskularra lantzen dira, koordinazioarekin batera, eta musika hartzen dute oinarri kirolariak motibatuzko; martitzenetan eta eguenetan elkartuko dira (19:00-19:45).

Korrika eginez "gozatuko" duten emakumeendako taldea ere berritasuna izango da; martitzen eta eguenetan elkartuko dira (19:00-19:45). "Korrika egitea gustuko duen edozein emakumeri zuzenduta dago. Gidatuta eta ikasturte osoko planifikazioarekin izango da".



Lanak egiten diharduten Urkulu urtegiko gunea. IRATXE BENGOA

Urkulun egiten ari diren lanak urrirako bukatuko dituzte

Urtegi inguruko mendi ezponda egonkortzen dabilta abuztuaz geroztik, Ur Kontsortzioak aginduta

M.A. ARETXABALETA

Hainbat lan egiten dabilta Urkulu inguruan abuztuaren 9az geroztik. Prebentzio eta mantentze lanak direla adierazi du Ur Kontsortzioak eta Construcciones Zubieder enpresari eman diote horien ardura. Lanen kostua 61.182 eurokoa da.

joanda zeuden. Hain zuzen ere, ingurua gertatzeko hainbat zuhaitz moztu zituzten uztaillaren bueltan, eta horrek jakin-mina eragin zuen herritarrengan. Ondo bidean, urriaren 1erako bukatuta izango dituztela zehaztu du Ur Kontsortzioak.

Mendi ezpondari eusteko

Urtegiaren sarrerako errepidearen ondoan -presaren alboan- dagoen mendi ezpondari eusteko egin beharreko lanak direla zehaztu dute; izan ere, gune horretako lurra beherantz

Eraginik ez oinezkoengan

Urtegi inguruko ibilbidea ez dute itxi beharrik izan oinezkoendako zein bizikletan ibiltzera doazenentzako; hortaz, ez dabil izaten aparteko eraginik aisialdia aprobetxatzera gerturatzeko direnengan.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Urkulu inguruak oso zikin abuztuan

Abuztuan Urkulu inguruak oso zikin topatu dituztela salatu du herritar batek: "Kezkagarria da. Gainera, arrantzaleek pita, amuak... uzten dituzte, horrek dakarren arriskuarekin".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Herriko emakumeen historia jasotzea helburu

Aretxabaleako mugimendu feministaren eta, orokorrean, emakumeen ibilbidea jaso gura da, eta, horretarako, lehiaketa deitu dute Udalak eta Erdu talde feministak; lanak urriaren 4a arte aurkez daitezke eta lan irabazlearen egileak 1.500 euro jasoko ditu

Mirari Altube ARETXABALETA

Aretxabaleako genealogia feminista eraikitzeko lehiaketa deitu dute, lehenengoz, Udaleko Berdintasun Sailak eta Erdu talde feministak, eta herriko emakumeen gaineko ikerketa sustatzea da horien helburua. Historia beste ikuspuntu batetik kontatzea da lehiaketaren bidez bilatzen dutena. "Aretxabaleako historia zein memoria historikoa gizonezko garaileen ikuspegitik kontatu izan dira, eta Aretxabaleako memoria kolektiboan ez da aztarna feministarik ageri", diote antolatzaileek. Hala, mugimendu feministaren, emakume aitzindariaren eta feministen inguruko informazioa lortzea da lehiaketaren funtsa, "historia osatzeko" asmoarekin.

Egilea, emakumea

Ikerketa lanak honako hauek jaso beharko ditu, gutxienez: Aretxabaleako genealogia feministaren ibilbidearen eta historiaren bilketa; eta emakume talde, profesio edo norbanakoen datu eta erreferentziak.

Proposamenak urriaren 4a arte aurkeztu ahalko dira, gehienez hiru bakoitzak, eta hor jaso beharko dute ikertu nahi denaren laburpena, ideiak eta ildo



Hainbat emakume feminismoaren aldeko banderekin Herriko Plazan. MIRARI ALTUBE

nagusiak, honako atal hauetan banatuta: ikerketa gaien zerrenda laburtua eta informazio bilketa egiteko lan metodologia. Euskaraz izan beharko du lanak, eta baldintzen artean dago emakumea izatea eta 2005ean edo aurreko urteetan jaiotzen izana. Bestetik, ez da ezinbestekoa izango Aretxabaleako edo eskualdekoa izatea, baina epaimahaiak baldintza hori kontuan hartuko du. Aurkeztutako ikerlanak bat etorri beharko du aurretik egindako proposamenekin; horrela izan ezean,

lehiaketa hutsik gera daitekeela zehaztu dute antolatzaileek oinarrietan. Lanak Berdintasun Sailera bidali beharko dira – berdintasuna@aretxabaleta.eus –, Udalaren webgunean zintzilikatu duten eskaera orria beteta.

Aukeratutakoa zein den urriaren 18an jakinaraziko dute. Ondoren, egileak abenduaren 27ra arte izango du lan hori egiteko, eta saria 2022ko urtarriean emango diote. Lan irabazleak 1.500 euroko ordainsaria jasoko du.



Ana Heriz eta Ainhoa Cabero, astearen berri ematen. JOKIN BEREZIARTUA

Domekako azokak borobilduko du tomateari eskainitako astea

Herriko barietatearekin egindako pintxoak dastatzeko aukera dago herriko zazpi tabernatan aste osoan

M.A. ARETXABALETA

Bosgarrenez antolatu dute Aretxabaleako Tomatearen Astea, gastronomia turismoa bultzatzeko helburuarekin, eta astelehena ezkerro da abian: *Haziak mugitzen* erakusketa dago Arkupen eta pintxo ibilbidea egiten dabilta herriko zazpi tabernatan, tomatearekin egindako mokadutxoak eskainita. Hona hemen tabernak: Dagda, Expres, Gurea, Hirusta, Iosu, Mugi eta Taberna Berri.

Azoka eta sari banaketak

Asteko ekitaldi nagusia domekan izango da (10:00-12:00). Azoka berezia egingo dute Durana kalean eta hogeitabat postu elkartuko dira. Tomatea izango da protagonista; bereziki, azken asteotan bi sari garrantzitsu jaso dituen Aretxabaleako tomateari eskainitako, baina antolatzaileek jakinarazi dute beste-lako elikagai batzuk ere egongo

direla. Gainera, ortu lehiaketa eta tomatearen erakusketako sariak banatuko dituzte; tomateari itsusiena aukeratzeko lehiaketa ere egongo da, beste behin.

Debagoieneko Mankomunitateak, Deba Garaia Landa Garapen Elkarteak eta Udalak antolatu dute astea eta bailaran errotzen doan ekimena dela uste dute. "Lehenengoa San Migel jaiekin batera egin genuen eta txiki geratu zen. Jende asko hurbildu zen galdezka, haziak eskatzera... Eta horregatik erabaki genuen aste propioa eskaintzea", adierazi du Mankomunitateko Turismo teknikari Ana Herizek. Bestetik, Ainhoa Cabero Kultura zinegotzia gustura agertu da Larrinogarai baserrian ekoiztutako tomateek Kantabriar jasotako bi sariarekin: "Harrituta eta pozik, Aretxabalearen izena Estatuan zabaldu delako".



RPS: 83/19



ORTODONTZIA IKUSEZINA

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

ZURE IRRIBARREA HOBETU AHAL IZANGO DUZU INORK IGARRI GABE.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55

"Errespetua kirolaren aurretik jarri behar da"

ODEI VAZQUEZ KARATEKA

Uztailaren 17an Getxon jokaturako probetan Hirugarren Dan gerriko beltza eskuratu zuen UDAko karateka Odei Vazquezek. Orain, erronka berriak prestatzen ari da

Imanol Beloki ARETXABALETA

5 urte zituenetik karatean ari da Odeiz Vazquez aretxabaletarra. Sendo entrenatuz gerrikoak batzen eta, aldi berean, txapelketetan maila ona ematen aritu da orain arte, eta bide beretik jarraitu nahi du. Iazko denboraldi gorabeheratsuen ondoren Hirugarren Dan gerriko beltza lortuta, orain denboraldiaurrea prestatzen ari da, eta bere buruari erronka berriak ezartzen. **Hirugarren Dan gerriko beltza lortu duzu. Zer dakar horrek?**

Gerriko asko daude, zuritik hasi eta beltzeraino. Behin gerriko beltza lortuta, maila ezberdinak daude: hamar Dan daude, baina ibilbide luzea izan behar da guztiak lortzeko. Esaterako, hirugarrena eskuratuta, laugarrena lortu nahi izanez gero, beste lau urte beharko nituzke. Hala, Hirugarren Dana lortzea maila bat gorago egotea da, eta garrantzitsua da, baina gerrikoa ez da txapelketetan lortzen. Karatea kirol karatea da, dominak lortzeko balio duena... eta gerrikoa lortzeko, berriz, azterketa bat egin behar da tribunal baten aurrean.

Zure hurrengo erronkak zeintzuk dira?

Hirugarren Dan gerriko beltza lortu dudana moduan, aitak Laugarren Dan gerriko beltza lortu du, eta biok ondo entrenatu gara gure helburuak lortzeko, bata besteari lagunduz. Orain, berriz, batetik, Laugarren Dan gerriko beltza eskuratzea dut helburu, eta, bestetik, txapelketetan goi mailan aritzea eta ahalik eta lan txukunena egitea. Iaz, gerrikoan zentratu nintzen, zenbait txapelketa bertan behe-gera geratu zirelako. Aurten, baina, txapelketetan gehiago arituko naiz. Irail amaieran Kantabrian jokatu dut txapelketa bat, eta ondoren Tole-dora joateko gogoz nago. Gero, urriko hirugarren asteburuan



Odei Vazquez karateka aretxabaletarra gerriko beltzarekin. UDA ARETXABALETA

"FISIKOKI ETA MENTALKI GAUZA ASKO LANTZEN DIRA KARATEAN, ETA BALIO ASKO JASO"

Liga Nazionala izango da Azkoitian, aurten etxetik gertu; beraz, asmoa bertara ahalik eta prestatuen joatea da.

Aita duzu irakasle. Alde onak eta txarrak izango ditu horrek.

Gauza on asko ditu aita entrenatzaile izateak, baina txarrak ere beste horrenbeste. Nire aita 18 urte zituenean hasi zen karatean, eta, beraz, txikia nintzenetik ikusi dut etxean, aitarren borroketako bideoak ikusi ditut txapelketetan lehiazten... Berak zaletu ninduen karatera, eta beti esan izan diot bera nahi nuela nire entrenatzaile. Hala, irakasle titulua atera zuen, eta ordutik ari naiz berarekin. Aita beti dut laguntzeko prest, eta, ez soilik entrenamendu ordue-tan. Horrekin batera, eskatzen didan exijentzia maila handia da, eta konfiantza dagoenez, badakizu...

Zer eman dizu zuri karateak?

Txapelketetan ibili zaitezke edo ez, gerrikoak lortu ala ez... Aukera zabala da, baina biak uz-tartzean zure mugak gainditzen dituzu eta motibazioa ere altu-goa da. Fisikoki eta mentalki gauza asko lantzen dira karatean, eta balio asko ematen ditu.

Errespetua ere oso presente dago kontaktuzko kirolean, ezta?

Kirolaren aurretik eramaten da errespetuz jokatea. Tatamira sartzen zaren unetik ikusten da hori. Agurtu egiten duzu borroka aurretik, irteten zarenean; zure gerrikoa altuagoa bada, gainera, ardura bat duzu besteei laguntzeko. Irakasleari ere ezin zaio gaizki erantzun, epaileei ere ezin diezu ezer esan, nahiz eta beraien erabakiarekin kon-forme ez egon...

Karateka baten entrenamenduak nolakoak dira?

Astean hiru egunetan ditugu entrenamenduak, baina nire aldetik ere egiten ditut entrena-menduak, guztiak karateari zuzendutakoak. Horrenbestez, astean bost edo sei egun egiten ditut, zalantza barik. Ondo ent-renatu beharra dago, emaitzak lortzeko.

Basotxoko kideok kantuei eta dantzei ekingo diegu berriro

Dantza-taldeak dagoeneko hasi ditu entseguak eta kantu-taldeak hilaren 8an ekingo dio lanari

Basotxo erretiratuen elkarte

ARETXABALETA

Gure poza partekatze eta elkarrekin gozatzeko elkartzeko gara, abesten dugu eta dantzan egiten dugu; lagun talde baten parte gara. Eta nahikoa ondo egiten dugunez, beste batzuei ere eskaini gura izaten diegu abesbatzen arteko topaketetan, ospakizunetan eta, bereziki, hainbat herritan antolatzen diren *Kalean kantuz* ekimenetan. Ospakizuna eta festa; alaitasuna eta sozializazioa. Era bateko edo beste hamaik bat ospakizunetan parte hartzen dugu urtero.

Taldeetan parte hartzeko

Gure taldeetan parte hartzeko ezinbesteko baldintzak dira erretiratuta egotea eta kantuan edo dantzan egiteko gogoia izatea. Eta eskatzen den konpromisoa ez da handia: astean behin or-



Basotxokoak dantzan. BASOTXO

dubete irauten duten entsegue-tara agertzea.

Kantu edo dantza taldea eza-gutu gura izanez gero, etorri eguazten batean, entsegu orduan, komentuko kaperara -dantza-tal-dea 17:00etan eta kantu-taldea 18:00etan-.

Ludotekarako koordinatzailea behar du Loramendik

Loramendi Euskara Elkarteak Aretxabaletako Algara ludotekarako koordinatzaile-hezitzaile behar du, bertako lanak egiteko. Urtebeteko kontratua eskaintzen dute, luzatzeko aukerarekin, eta egun erdiko lana izango litzakeela adierazi dute, arratsaldean egin beharrekoa izango dena. Horrekin batera, irailan lehenbailehen hasteko

prestutasuna ere nahi dute Loramendi Euskara Elkarteak.

Euskalduna izatea eta bigarren mailako Lanbide Heziketa, gradua edo diplomatura-lizentziatura titulua izatea eskatzen da. Aretxabaletarra izatea, bertako euskara menperatzea eta hezkuntzarekin lotutako ikasketak eta hurrekin esperientzia izatea ere baloratuko dituztela jakinarazi dute. Interesdunek curriculum bidali dezakete euskara@loramendielkartea.eus helbidera, irailaren 13a aurretik.

Kurtzebarri mendiko eguna ospatuko da domeka honetan

Irailko bigarren domekan ospatu izan du Aretxabaletako Murruxiko mendizale elkarteak Kurtzebarri mendiko eguna. Iaz ez zuten ospakizunik egin pandemiak ezarritako egoera bereziarengatik, baina aurten Kurtzebarriko tontorrera joango dira herritarrak eta mokadutxo eskainiko diete han Murruxiko mendizale elkarteak kideek.

Mobiliario
ARENAZA

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



2019an moduan, Ipuru taldeko gimnastek erakustaldia eskainiko dute Eskoriatzan. SAN PEDRO ETA INTXAURTUETA JAI BATZORDEA

Bi auzoren arteko elkarlanetik sortua

San Pedro eta Intxaurtxuetako auzotarrek asteburu kulturala prestatu dute. Egitaraua zabala antolatu dute, orotariko proposamenekin, eta, bertara joatera animatzeaz batera, neurriak errespetatzeko eskatu dute antolatzaileek

Imanol Beloki ESKORIATZA

2019an, auzolana bultzatuz berreskuratu zituzten 2001ean azkenengoz egin ziren San Pedro eta Intxaurtxueta auzoetako jaiak; herritarren artean *San Pedro Txiki* jaiak moduan eza-gunagoak diren festak. Hala, konpromiso sendoa agertu zuten bi auzoetako bizilagunek jaiak antolatzeko, eta, iaz egin ezin

zirenez, aste bukaera honetarako prestatu dute adin guztiekin zuzendutako ekintza mordo, jaiak bere horretan izan beharrean asteburu kulturala izena ezarrita programari.

Gaur, egubakoitza, txupina botata hasiko dira ospakizunak, eta horren ostean, buruhandiak izango dira txikienentzako, eta ondoren, Irulitxa fanfarreaz eta

Duo Imperial taldeen musikaz gozatzeko aukera izango da. Zapatuan eta domekan ere izango dira egun osoan ekintza ugari.

Kirol elkartekoen aurkezpena

Domekan, 13:00etan, Eskoriatza Kirol Elkarte taldeek 2021/2022 denboraldian izango duten kamiseta berrien aurkezpena egin-

go dute San Pedro eta Intxaurtxuetako asteburu kulturalaren barruan. Ikerra eta Hemen Garbiketarako enpresak izango dira Eskoriatza Kirol Elkartearen babesle berriak, eta horien ordezkariak areto futboleko eta saskibaloi taldeetako zenbait jokalarirekin argazkiak egingo dituzte Manuel Muñoz kiroldegian.

Erantzukizuna eskatu dute

Eskoriatzako Udalak arduraz jokatzeko eskatu eta arauari kasu egiteko eskatu die herritarrei: "Pandemia hasi zenetik, Eskoriatzako Udalak edo herriko elkarteek antolatutako hainbat kultura ekitaldi egin dira; betiere, indarrean dauden neurriak errespetatuz eta ingurune segurak bultzatuz. Ekainean, adibidez, EskoZapek antolatutako jaiak ospatu zen, eta Udalak parte hartu zuen. Eskoriatzan bezala inguruko herrietan antolatutako ekitaldiek izan duten harrera ona ikusita, San Pedro eta Intxaurtxuetako Jai Batzordea ohiko formatuak aldatzera animatu da, egungo egoerara egokitzeko, eta une oro ziurtatu du betetzen direla COVID-19aren aurkako protokoloak eta indarrean dagoen araudia. Hala, asteburu honetan emanaldi guztiak karpan egingo dira, eta jendea eserita egongo da ikuskizuna ikusten, maskara jarrita. Edukiera bat ere egongo da, bete arte. Gaur, 00:00etan amaituko da dena; eta zapatuan, 23:00ak baino lehen. Bakoitzaren erantzukizuna eskatzen dugu; izan ere, urte eta erdi daramagu pandemiarekin, eta denok dakigu zer egin daitekeen eta zer ez. Espero dugu auzotar guztiak arduraz gozatzea asteburu honetan eta datozenetan".

Neurri guztiak hartu dituzte



ANDONI MOTO
JAI BATZORDEKO
KIDEA

San Pedroko eta Intxaurtxuetako bizilagunek ilusioz berreskuratu genituen jaiak, eta iaz, programa prestatuta genuen. Hala ere, bertan behera uztea erabaki genuen, eta aurten, hainbat ekintza ditugu, baina neurriak hartu ditugu horiek gauzatzeko. Bi auzoetako plazetan zein Manuel Muñoz kiroldegian izango dira hitzorduak, eta, bereziki, Partxis parkean jarriko dugun karpa erabiliko dugu horretarako. Edukiera izango du eremuak, sarrera eta irteera, karpa barruan musukoa erabiltzea derrigorrezkoa izango da, desinfekzioa ere kontuan hartuko dugu, eta eserita egon beharko dute bertara sartzen direnak. Azpimarratzeko hitzorduen artean, azoka aipatuko nuke. Izan ere, 35 postu izango ditugu, hainbat eremutan banatuta.

PARTXIS PLAZAN JARRITAKO KARPAN IZANGO DIRA HITZORDU GEHIENAK, NEURRIAK HARTUTA

Ikasturtea eguaztenean hasi arren, izena eman daiteke

Elkartekide berriak eginda hasi dute ikasturte berria Buztinate buztintza eta zeramikako ikasleek

I.B. ESKORIATZA

Zubiare labean eskaintzen diren buztintza eta zeramika saioetako Buztinate elkarteko kideak hasi dira ikasturte berriarekin. Iaztik hona elkartekide berriekin hasi dira, gainera, eta elkarte-

ren helburua kide kopurua handitzea izanda, jakinarazi dute interesa duenak aukera duela oraindik izena eman eta saioekin hasteko. "Esperientzia pixka bat dugunak gauden arren, hutsetik hasi berri diren zenbait lagun

ere badaude gure taldean, eta interesa duena bertara etorri daiteke zer egiten dugun ikustera, eta probatzera...".

Eguaztentean batzen dira ikasturteko kideak: haurrak 16:45etik 17:45era bitartean eta helduak, aldiz, 11:00etatik 13:00etara bitartean edo 18:00etatik 20:00etara. Informazio gehiago eguaztentean Zubiare labetik pasata, buztin.ate.elkartea@gmail.com helbidera idatzita edo 688 87 00 53 telefono zenbakira deituta jaso daiteke.

Ordutegi zabalagoa izango da Udalaren arretra zerbitzuan

Eskoriatzako udaletxean obrak egiten ari direnez, herritarrentzako zerbitzua Ibarraundi museoan ari dira eskaintzen. Orain arte ohiko ordutegian aritu diren arren, astelehenetik aurrera arretra ordutegi zabalagoa izango dute.

Astelehenetik egubakoitzera 08:00etatik 14:30era izango dute herritarrek aukera Ibarraundi

museora joan eta dituzten zailtasunak argitzeko, informazioa eskatzeko edo tramiteak egiteko. Horrekin batera, kontaktu hauek erabili ditzakete harremanetarako: 943 71 44 07 telefono zenbakira deituta, udala@eskoriatza.eus helbide elektronikora idatzita edo 650 49 51 65 telefono zenbakira *whatsapp*-a bidalita. Udaltzaingorekin harremanetan jartzeko, berriz, 943 71 45 32 telefono zenbakira deitu daiteke, edo udaltzaina@eskoriatza.eus helbidera idatzita.

Imanol Beloki ESKORIATZA

Atxorrotx Kultura Elkarteak Eskoriatzako Udalarren babesarekin, eta beste hainbat laguntzailerekin batera antolatutako Errekan Gora kultura jaialdiaren hamahirugarren edizioa izango da iraileko hirugarren asteburuan, irailaren 17ko, 18ko eta 19ko asteburuan. Musika eta ikuskizuna batzen duen jaialdia berezitasunekin etorriko da, beste behin. Izan ere, jaialdia uztaileko asteburuetan antolatu izan da beste edizio batzuetan, baina aurten, iraileko aste bukaera bakarrera mugatu dute, herrigunetik atera eta txoko berezi bat aprobe txatuko dute emanaldi bat eskaintzeko... edizio berezia, borobila eta ahazteza izateko asmoz. Etzex etxe triptikoak banatuko dituztela jakinarazi dute antolatzaileek; gaur hasita, asteburuan zehar. Hala, antolatu dituzten hitzorduen informazio gehiago izan dezaten herritarrek.

Puntako sei musika talde

Errekan Gora hitzordu kultural garrantzitsua da Eskoriatzan, eta, edizioz edizio lanketa eginez, puntako taldeak ekartzeko ahalgina egiten dute antolatzaileek. Hala, herrian ondo errotutako jaialdiaren zati inportanteenetakoa musika izanda, hamahirugarren edizio honetan sei talderen emanaldiak egongo dira: Swingtronics, Broken Brothers Brass Band, Idoia Asurmendi, The Allnighters, Wood Strings eta Moonshine Wagon.

Kaleko ziklo musikal zaharrena

"Debagoienean kalean egiten den ziklo musikal zaharrena da Errekan Gora egitasmoa, Eskoriatzan hasi ginena egiten duela hamahiru urte. Beste herri batzuetara ere irekitzen joan da halako formatua, eta funtzionatzen duela ikusi da. Hau da, musika kontzertuak egiteko ohiko plazak erabili arren, herriko txoko ezberdinetan ere antolatuz emanaldiren bat edo beste. Hala ere, azpimarratzekoa da halako jaialdi bat antolatzea ez dela batera erraza; programa pertsona ororentzat presatu behar izaten da, eta, punta-puntako taldeen apustua eginaz, oraingoan ere halakoak izango ditugu Eskoriatzan. Beraz, jaialdiak erantzun ona izango duela aurreikusten dugu...", adierazi du

Kultura lehortearen ostean, Errekan Gora musika jaialdia oasi

Atxorrotx Kultura Elkarteak antolatutako Errekan Gora jaialdia irailean egingo da hamahirugarren edizio honetan. Uztaileko asteburuetan banatuta egin beharrean, iraileko aste bukaera bakarrera mugatu dute jaialdia, eta "aurreikuspenak onak dira"

Iñaki Kortazarrek, Atxorrotx Kultura Elkarteko kideak.

Asteburu bakarrea

Errekan Gora jaialdia uztaileko asteburuetan izan ohi da aurreko edizioetan, baina, oraingoan, irailean eta asteburu bakarrea egitea erabaki dute. "Pandemiaren eragina izan da Errekan Gora jaialdiaren data aldatzearen ezaugarrietako bat. Batetik, uztailean hitzordu kultural ugari izaten dira bailarako herrietan, eta horregatik irailean egitearen aldeko apustua egin dugu. Bestetik, asteburu bakarrera mugatu dugun arren, ez dugu baztertzeko bide beretik jarraitzea. Herritarren hasierako inpresioak oso onak izan dira, eta behin jaialdia amaitzean baloratu beharko da zerk funtzionatzen duen eta zerk ez".

Txoko berria, Santa Lutzia

Jaialdi honen berezitasun bat eta urtez urte errepikatu izan dena da ekintzak herriguneko hainbat txokotan antolatzen direla, eta, aurten ere hala egingo duten arren, berezitasun batekin dator. Izan ere, emanaldiak Fernando Eskoriatza plazan, Gernika plazan eta herriko kaleetan zehar izango dira, baina, esaterako, Idoia Asurmendi musikariak irailean 19an eskainiko duen kontzertua Leten izango da, Santa Lutzia ermitan. "Leku berezi batean kontzertu berezi bat eskaini nahi genuen edizio honetan. Horretarako, herrigunetik atera dugu egitarauko hitzordu bat. Santa Lutzia ermita alboko eremua aproposa iruditu zitzaigun horretarako, eta funtzionatuko duela aurreikusten dugu", adierazi du Iñaki Kortazarrek, Atxorrotx Kultura Elkarteko kideak.

Agian, aldaketak

Izango diren musika taldeak eta euren informazioa, datak eta ordutegiak argitaratuta dituzten arren, antolatzaileek adierazi dute emanaldiren baten tokia aldatzekotan daudela, baina, hala bada, emango dutela lekualdaketaren berri datorren astean. Horrekin batera, aste honetan musika taldeen ezaugarriak argitaratuta, egunotan helaraziko dute kontzertuetan izango den edukiera muga, ikus-entzuleek hartu beharko dituzten neurriak...

Errekan Goraren egitaraua



SWINGTRONICS

Irailaren 17an, egubakoitza, Fernando Eskoriatza plazan, 19:30ean. Eider Saratsaga 'frontwoman'-ak gidatuta, Bilbotik datorren talde honek swing klasikoari oinarri elektronikoa erantsen dizkio eta erritmo dantzagarriak eta dibertigarriak eskaintzen ditu.



BROKEN BROTHERS BRASS BAND

Irailaren 18an, zapatua, kaleetatik zehar, 19:30ean. Aitzindari izandako Amama Luisa Brass Bandako musikariekin, gaur egungo New Orleans brass banden kaleko soinu bizi eta alaietan oinarritzen da, funka, gopela eta jazz modernoa uztartuz.




IDOIA ASURMENDI

Irailaren 19an, domeka, 13:00etan, Lete auzoan. Aramaioarrak apirilean argitaratu zuen bere lehenbiziko diskoa: 'Ilun eta abar'. Eskoriatzan Santa Lutzia ermitan eskainiko du emanaldia, Joanes Ederra kontrabaxu-jolearen konpainian.



THE ALLNIGHTERS

Irailaren 18an, zapatua, Fernando Eskoriatza plazan, 13:00etan. 1988an Gasteizen sortutako taldeak rhythm-and-blues musika estiloa lantzen du. 50eko hamarkadako boogie estilotik 70eko pub-rockera arteko bidea egingo dute, 60ko hamarkadako soul eta blues 'cool'-enetik pasatuz.



WOOD STRINGS

Irailaren 18an, zapatua, Gernika plazan, 22:30ean. Aretxabaletako boskoteak, bere erroko zeintzuk diren ahaztu barik, rockaren beste iturri batean sakontzeko erabili duen lana atera berri du: 'Isladak'. Lan honetan zein aurrekoetan batutakoak eskainiko ditu.



MOONSHINE WAGON

Irailaren 19an, domeka, 19:30ean, Gernika plazan. Gasteizko taldeak 1.000 kontzertutik gora eman ditu Europan eta Amerika osoan. Heavy-bluegrass musika estiloa lantzen duen bandako kideek mandolina, biolina, gitarra, banjoa, bauzoukia eta kontrabaxua astinduko dituzte.



Mazmela hutsik geratu den ur depositua. IMANOL BELOKI

Depositua hutsik geratu ostean, uraren garrantziaz jabetu dira

Irtenbide probisonala ezarri arren, etorkizunera begira soluzio bat behar dutela adierazi dute auzotarrek

I.B. ESKORIATZA

Uda lehorra izan da Debagoieanean, eta Eskoriatzako Mazmela elizateko zenbait bizilagun ur gabe geratu dira abuztu bukaeran. Epe laburrerako konpondu dute arazoa, baina, aurrera begira, irtenbideren bat nahi dute, arazoari "partxe bat" jarri diotela iritzita.

Mazmela elizateko hamabi etxebizitza eta auzotarrek bertan duten Basauria elkarteko lokala izan dira ur faltaren eragina sufritu dutenak. Honako hau gertatu dela adierazi du Iñaki Zurutuzak, Mazmela elizateko auzo-alkateak: "Aurten, goiz hasi gara sumatzen ur falta, apirilaren amaiera aldera. Hala, neurten hasi ginen egunetik egunerako deposituaren jaitsiera. 25 zentimetro geratzen ziren depositua guztiz husteko, eta erabaki genuen Udalaren laguntzarekin zisterna bete ur ekartzea

sare publikotik, eta horrela egoera nolabait konpondu dugu oraingoan". Aurrera begira deposituan duten ur kopurua ez dela nahikoa erabiltzaile guztiontzat esanaz, soluzio bideak ere aztertzen ari dira bizilagunak.

Ur Kontsorzioaren proiektua

"Gure aldetik beste iturbururen bat bilatzen saiatuko gara. Badaude, baina inbertsio bat eskatzen du horrek, eta modu bakarra gure kontu egitea da. Beste alde batetik, Eskoriatzako Udalak herriko ur kudeaketa Gipuzkoako Ur Kontsorzioari eman dio, eta esan digute ari direla proiektu bat garatzen sare orokor bat ekartzeko ur falta duten auzoetara; Mazmela zati handi batean, Marinen eta Zarimutzen. Irtenbidea Urkulutik ura ekartzea dela uste dut, baina horrek proiektu handia eskatzen du".

Herrian kontsumitzeko bonuak, berriz salgai

Eskoriatza Bizirik ekimenarekin jarraituz, irailean tokiko kontsumoa sustatzeko bonuak salgai jarriko dira berriro. Oraingoa aurtengo bonuen bigarren fasea izango da eta azaroaren 30era arte iraungo du.

Bonuak herriko merkataritzan, ostalaritzan eta bestelako zerbitzuak ematen dituzten zerbitzuetan gastatzeko dira, eta

ezingo dira erabili loteria eta bestelako joko establezimenduetan, farmazietan eta estankoetan, eta horiek erosteko bi baldintza bete behar dira: Eskoriatzan erroldatuta egotea eta adinez nagusia izatea.

Ibarraundi museoan jarriko dira salgai irailaren 20tik aurrera, bukatu arte, egunero, goizez 11:00etatik 13:30era bitartean eta arratsaldez 17:00etatik 19:30era. Edozein zalantza argitzeko, 943 71 54 53 telefono zenbakira deitu daiteke.



Ainhoa Barandiaran eta Dorleta Elkorobarrutia gatzagarrak, Dorlape aisialdi-gunea atzean dutela. HASIER LARREA

Dorlape aisialdi-gunea forma hartzen ari da

Gatz Museoaren azpian egiten ari diren aisialdi-gunean sastrakak kendu dituzte, enborrekin egindako eserlekuak jarri... Dorlape izenarekin batailatuta dute lekua, eta, aurrera begira, mahaiak eta argiteria jarri nahi dituzte auzolanean ari direnek

Imanol Beloki GATZAGA

Gatz Museoaren azpian aisialdirako espazio bat atontzen dabilta gatzagarrak, auzolanean. Hasiera batean, erreka bazterra garbitzen hasi ziren haurrak bertan bainatzeko, baina apurka-apurka beste zenbait lan egin dituzte, eta aurrera begira gehiago egitea da asmoa.

Dorleta Elkorobarrutia eta Ainhoa Barandiaran ari dira gidatzen, besteak beste, gunea egokitzeko lanak, eta nolatan hasi ziren gunea atontzen adierazi dute: "Errekako toki eguzkitsuen eremu hori zela ikusita, eta museo alboan egonda, hasiera batean sastrakak garbitu eta eskailera batzuk egin

nahi genituen, haurrak bertara jaitzi eta bainua hartzeko moduan egoteko eta museoko bisitariek edo Gatz Bidea egiten dutenek erabiltzeko", adierazi du Dorleta Elkorobarrutia.

Dorlape izango da

Dorletako santutegitik gertu, Gatz Museoaren azpian dago txokoa. Dorlabidea Deba erreka gainetik pasatzen dela eta iraganean gatzak produzitzeko dorlak museoan gordeta daudela aprobetxatuta, aisialdi-gunearen izena toponimiatik tiraka atera dute. "Bukatzen dugunean jarriko diogu izena, baina esan beharra dago bertan aritu garen guztiok bat egin

dugula izen honekin", dio Dorleta Elkorobarrutia.

Harresia, begi-bistan

Hilabete ugari eman dituzte sasiak garbitzeko makina pasatzen eta eskailera jartzen. Hasierako ideari forma eman ahala, tokiak uste baino aukera gehiago eskaintzen zituela ohartu ziren, sastrakek estalirik baitzeukaten erreka alboko lautada. "Aurreikusitako baino sastraka gehiago kendu ditugu, eserlekuak jarri, itxura dibertigarria eman, eta abar. Horrekin batera, paretak agertzen hasi ziren, eta euste-pareta bat delakoan gaude", adierazi du Ainhoa Barandiaranek.

Aste bukaera kultural aparta

Aizkorarekin eta harriarekin egindako erakustaldia, kontzertuak eta puzgarriak izan ziren asteburuan. Antolatzaileak "pozik" daude. "Andramari jairik ez izan arren, merezi izan du aste bukaerako ekintza hauek antolatzea. Errespetuz aritu dira bertaratutakoak eta ekintzak seguruak izan dira", adierazi dute Gatzagako Udaleko ordezkariak.



Jokin Bereziartua BERGARA

Labegaraietako kiroldegi berrituan elkartu ditu kazetariak Marian Mellado (Bergara, 1967) eta Ion Beistegi (Bergara, 1984). Lehen 2007a ezker Bergara Kirol Elkarteko saskibaloi sailleko presidentea izan da, eta bigarrenak lekukoa hartu berri dio lehenari. Beistegirekin batera zuzendaritzako kide izango dira Borja Elkoroberezibar, Xabat Irazola eta Aitor Esnaola. Hori bai, talde berriak, orain arte moduan, gurasoen ezinbesteko laguntza jaso beharko du denboraldi osoan zehar.

Zortzi talde ziurtatuta

Kiroldegi berrituko harmailetan eseri eta neska kadeteen entrenamendua gertutik jarraitzen hasi dira Mellado eta Beistegi, elkarrekin lan egitera ohituta dauden eta saskibaloia pasioz bizi duten seinale.

2021-2022 denboraldira begira ere pandemiak inkognita batzuk argitzeke dituen arren, saskibaloia saila gogotsu dago ligari ekiteko. Irailaren 18ko eta 25eko asteburuetan ekingo diote denboraldiari eta aurten ziurtatuta dituzte zortzi talde. Emakumezkoetan lau talde izango dituzte, seniorretan, gazte mailan, kadeteetan eta infantil mailan talde bana. Gizonezkoetan ere lau talde daude: senior mailako bi talde, gazte mailako talde bat, kadeteetako bat eta infantil mailakoa osatu nahian ari dira. Beistegik dioenez, denboraldi honetako helburu nagusien artean dutelako eskola indartzea: "Zortzi talde izatea pozgarria; hori bai, saskibaloia eskolan talde bat eratzeari garrantzi handia ematen diogu". Aintzat hartu behar da pandemia aurretik 120-130 neska-mu-



Marian Mellado eta Ion Beistegi, Labegaraietako kiroldegi berrituko kantxan, martitzen arratsaldean. JOKIN BEREZIARTUA

Buru berria, eta saskia bete lan

2007a ezkero BKEko saskibaloia sailleko presidente izan den Marian Melladoren lekukoa hartu berri du Ion Beistegik. 14 urte hauetan egindakoaz pozik eta lasai doa Mellado; Beistegik gogotsu ekin dio karguari, gazteenak erakartzea lehenetsita

tiko mugiarazten zituela BKEko saskibaloia sailak.

Kiroldegi berrituarekin pozik

Neska-mutikoak erakarri nahian saskibaloia probatzeko dei egin du presidente berriak: "Giro oso

ona dugu. Entrenatzaile gazteak ditugu eta ondo formatutakoak dira, oso gogotsu dabilzanak; uste dut neska-mutikoek asko ikasi dezaketela entrenatzaile hauekin. Kirol guztiak probatu behar dira, baina niri dagokit

saskibaloirako dei egitea, ez zaie-eta damutuko". Hain zuzen ere, martitzen arratsaldean Labegaraietako kantxan gogor entrenatzen ari zen kadete mailako nesken taldea jarri du adibide moduan: "Bi edota hiru

urte daroate saskibaloian eta dena ematen dute kantxan, oso gustura ari dira".

Denboraldi berrira begirako nobedadeen artean dago, zalan-tza barik, kiroldegi berrituz gozatzeko aukera izango dutela. Pozik dago Beistegi emaitzarekin: "Ondo dago, oso itxura ona dauka. Neguan hotzetik babestuko gaituela espero dut; jokalariek eskertuko dute, eta baita ikusleek ere. Espero dugu harmailak beteta ikusi ahal izatea".

Ondo ezagutzen du kluba

Aspaldi harrapatu zuen saskibaloia Beistegi: "13 urte nituenetik nabil saskibaloira lotuta, hasieran jokalaria moduan eta gero 12 urte egin nituen entrenatzaile. Zuzendaritzan ere egondakoa naiz... Kluba ondo ezagutzen dudala esan daiteke". Kluba ondo ezagutzeaz gain, Gipuzkoako gainerako taldeekin badu harremana; horren adibide da GBC taldeak Labegaraietan jokatu duela Urrezko LEB Ligako denboraldiaurreko partidu bat: "Aurreko astean Aitor Uriondok [GBCko entrenatzailea] deitu zidan Zarautzen jokatzekoak ziren partidu baterako zailtasunak zituztela obregatik eta galdetu zidan ea Labegaraietan jokatzetik izango zuten". Irailaren 18an jokatu du Donostiako taldeak, Clavijo Loñooren aurka (19:00).

Melladoren "lan handia"

Melladoren *agintaldiko* bereizgarri bat izan da saskibaloia ohiko kantxetatik atera eta kirola herrian errotzeko saiakera. Horren adibide dira hiruko txapelketak, Gabonetan zein udan San Martin plazan, udal pilotalekuan eta Labegaraietan antolatutako zirenak. Gainera, euren lana herrian ezagutzera emateko ahalegin berezia ere egin du Melladoren taldeak, eta horren adibide dira, besteak beste, irailan San Martin plazan egin ohi zuten talde guztien aurkezpena. Horrez gain, Euskadiko Federazioan "lan handia" egindakoa ere bada Mellado: "Eskertu beharrean gaude", dio Beistegik.

NESKETAN LAU TALDE DITUZTE ETA MUTILETAN BESTE LAU; INFANTILETAN BESTE BAT NAHI DUTE

Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI
LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Balorazioak eta aurreikuspenak



MARIAN MELLADO SASKIBALOI SAILEKO PRESIDENTE OHIA

"Pozik noa, kluba oso esku onetan dagoela jakinda"

"2007tik gaur egunera asko aldatu dira gauzak eta pozik uzten dut kargua, 14 urte hauetan egindako lana oro har ona izan dela sinistuta. Sekula ez nuen pentsatuko halako esperientzia aberasgarri bat biziko nuenik, ederra izan da. Denak du hasiera eta bukaera bat eta niri klub honetako buru izateko zikloa amaitu zait. Ion Beistegik eta bere taldeak hartuko didate erreleboa eta horregatik oso lasai noa, Beistegik aspaldi ezagutzen du-eta kluba. Oso esku onetan utzi dut kargua".



ION BEISTEGI SASKIBALOI SAILEKO PRESIDENTEA

"Motibazioan eragin nahi dugu, eta eskola indartu"

"Mariani egindako lana eskertu egin behar zaio, 14 urte hauetan kudeaketa eredu ona garatu duelako klubean eta Federazioan. Orain, niri tokatzen zait lekukoa hartzea; lana seguru egongo dela, baina aterako dugu denbora. Lan pozgarria da, gainera. Bestalde, denboraldi berrirako erronka nagusia izango da jokalariek berriro ere motibatzea, iaz zaila izan zen eta. Gainera, saskibaloia eskola ere indartu nahi dugu, pandemiagatik erakartzeko arazoekin gabilta eta".



IDK Gipuzkoa eta Errioxako Promete, Bergara Hiria leheneko edizioan. I.S.

Bergara Hiria hirugarrena dator

Gaur, irailak 10, goi mailako saskibaloia izango da protagonista Labegarietan: Bergara Hiria emakumezkoen saskibaloia txapelketaren hirugarren edizioa jokatuko da, 19:00etan. Aurreko edizio guztietan moduan, IDK Euskotren taldea etorriko da eta aurten Barakaldoren aurka neurtuko ditu indarrak. Sarrera doakoa izango dela aintzat hartuta, Melladok ez du zalantzarik izan herritarrei Labegarietara hurbiltzeko dei egiteko: "Emakumeen saskibaloia bultzatzeko asmoz sortu genuen eta IDK moduko talde bat ekartzea neska gazteendako pizgarri izan daitekeela uste dugu". Bestalde, irailaren 18an, gizonezkoen Urrezko LEB Ligan jokatuko duen GBC Gipuzkoak denboraldiaurreko partidu bat jokatuko du Labegarietan (19:30), Clavijo Logroñoren aurka. Sarrera doakoa izango da partidu horretan ere.



Astelehenean San Martin plazan egin zuten ikasturteko lehen elkarretaratzea. I.U.

Pentsio publiko duinak eskatu, eta argindarraren prezioa salatu

Irailaren 13an berriro elkartuko dira plazan (12:00), eta "argindarraren igoera eskandalagarria" salatuko dute

Jokin Bereziartua BERGARA
Oporren osteko etenaldiaren ostean, astelehenean egin zuten herriko erretiratuek eta pentsionistek ikasturte berriko lehen elkarretaratzea, San Martin plazan. 50 bat lagun elkartu ziren eta, besteak beste, 1.080 euroko gutxieneko pentsio publikoak aldarrikatu zituzten beste behin ere: "Pentsio publikoak eta duinak behar ditugu denondako. Batak zein besteak gobernatu, pentsioak defendatu behar ditugu; pentsiodunak aurrera!".

"Tarifazo elektrikorik ez!"

Datorren astelehenean, irailak 13, berriro ere egingo dute elkarretaratzea San Martin plazan (12:00). Pentsioez harago, hurrengo astelehenean argindarraren prezioak izan duen igoera ere salatuko dute: "Argindarrak gora egin du azken hila-beteetan, modu eskandalagari-

an, eta muga historikoko gainditu ditu. Etxeko argindarraren faktura azken urtean izan da, batez beste, 336 eurokoa. Elektrizitate konpainia handien etekinak ugaritu egin dira urteko lehen seihilekoan. Energia elektrikoaren eta gasaren **publifikazioa** behar dugu, eta energia berriztagarrien aldeko apustua egitea".

Datuei erreparatuta, diote EAEko familien %5,1ek, 112.000 bat herritarrek, pobrezia energetikoa pairatzen dutela; Nafarroan 60.000 lagun inguru direla diote eta Espainian, berriz, lau milioi pertsonak baino gehiagok. "Horrek kontsumoa murriztera garoatza oinarrizko beharretan. BEZaren murrizketak ez du lortu apenas tarifa elektrikoaren igoera arintzea; erakunde publikoek oligopolio elektrikoak kontrolatu beharko lituzkete", gaineratu dute.

Gazte Eguna gaur, "topagune sozialistak" aurkeztea helburu

Gazte Kontseilu Sozialistak eta Ikasle Abertzaleek Gazte Eguna antolatu dute gaurko. Ikasturte politikoari hasiera eman eta "Euskal Herriko Gazte Topagune Sozialista" aurkezteko antolatu dute; izan ere, urriaren 8tik 12ra, Altsasun elkartuko dira kurtsoari hasiera "indartsu" emateko, eta irailean zehar aurkezpenak egingo dira hainbat herritan; Debagoienean, Bergaran egingo dute. Seminarioko karpan izango da aurkezpena (19:00) eta ondoren, 20:00etan, Lemak eta The Clayton taldeen kontzertuak izango dira. Sarrera ordaindu egin beharko da; agortu ez badira, Pol-Pol tabernan daude salgai bost eurotan.

OHARRAK

Futbola: Bergara Hiria

Bergara eta Urola aurrez aurre. Domekan, Agorrosinen (12:00). 10:00etan neska futbolariendako teknifikazio saioa eta jolasak izango dituzte klubeko entrenatzaileekin, eta futbol eskolan izena eman ahalko da.

Pol-Pol: beteranoak

Irailaren 12an egingo dute 2021eko lehen irteera, Burgosko Obaranes mendietara. Izena emateko, bulegora deitu: 943 76 48 51. 08:00etan elkartuko dira.

Alkateen Mugimendua

Erakusketa irailaren 12ra arte dago ikusgai, udaletxean, 16:00etatik 19:00etara.

GLOBAL STUDIES

Ingeleseko eskolak: maila guztiak eta 3 urtetik aurrera irakasgai guztietarako laguntza eskolak

Beste hizkuntzak: alemana, frantsesa...

San Lorenzo 23, beheka 1 • BERGARA • Tel.: 943 22 93 24 - 605 76 32 72
global_studies_academy@yahoo.es

Zuhurtziarako eta herrira jai bila ez etortzeko deia

Udal Gobernuak argi utzi du jairik ez dela egongo, eta erantzukizunez jokatzeko dei egin du, beste behin; irailaren 1ean erabaki zuten taldeetako zuzendariak kalejirarik gabe danborradarik ez egitea. Azoka eta kultura emanaldiak izango dira protagonista

Jokin Bereziartua BERGARA

Pandemiaren egoera iazkoa baino hobea izanda ere, bigarren urtez jarraian ez da San Martin jairik izango Bergaran. Udalak argi utzi du jairik ez dela izango, eta bergararrei zuhurtziaz eta erantzukizunez jokatzeko dei egin die, kanpotik Bergara-ra jai bila ez etortzeko eskaera egitearekin batera.

Festarik egongo ez dela argi utzita, ekitaldi batzuk antolatu dira; tartean, azoka eta kultura emanaldiak. "Herritarrei kultura eskaintzearen alde egin genuen pandemia hasieratik, eta sortzaileei euren lana erakusteko aukera ere eman behar zaie; eta



Kalejirarik gabe danborradarik ez egitea erabaki dute; irudian, 2019koa. GOIENA

herrikoak bertakoak badira, hobeto", dio Kultura zinegotzi Kristina Markinak.

Danborrada estatikorik ez

Egingo ez dena da San Martin jaietako ekitaldi nagusia izan ohi zen danborrada. Uztailean egindako bileretan hainbat aukera aztertu zituzten eta azken erabakia irailaren 1ean hartzea adostu zuten. Bilera hartara hurbildu ziren taldeetako zuzendariak "ia aho batez" erabaki zuten ez egitea, aukera bakarra zelako modu estatikoan, San Martin plazan bakarrik eta edukiera oso murriztuarekin egitea. "Modu horretan egiteak zentzurik ez zuela erabaki genuen. Kalejirarik gabe egiteko, hobeto datorren urtera arte itxarotea eta ohiko danborradaz gozatzea", adierazi dio GOIENARI Zuloa taldeko zuzendari Aitor Erañak. San Martin bezperan egiten zen helduen danborrada, kalejirarekin eta San Martin Agirrerren gurutziltzaketaren errepresentazioarekin eta irailaren 16an, San Martin egunean, egin ohi zen umeen danborrada. Umeena ere ez da egingo.

Azoka bai, eta baita kultura ekitaldiak ere

Irailak 10, egubakoitza

- 19:30 Moises Azpiazuren omenezko 36. dantza askatu txapelketa, Seminarixoan.

Irailak 11, zapatua

- 09:30-14:30 San Martin feria, Ibargarain.

Irailak 12, domeka

- 12:00 'Erraldoien jatorria eta ohiturak' izeneko hitzaldia, Seminarixoan. Erakusketa Aroztegin, irailaren 10etik 26ra.

Irailak 16, eguena

- 12:30 Bandaren kontzertua, frontoian.

Irailaren 15etik 18ra

- Hainbat kultura ekitaldi, plazan, Xaxauren eskutik. Ikus 28. orria.

GOKI
erreformak

Gu ere bergararrekin!

Teilatuak, fatxadak, igogailuak,
sukaldeak, bainugelak.

Irizar ibilbidea 1 behea
BERGARA

Tel.: 943 76 53 42

Faxa: 943 76 52 16

bergara@gokierreformak.com

www.gokierreformak.com

itesa

Gu ere bergararrekin!

BERGARA • San Juan auzoa • 943 76 22 97

"Erritmoa nahiko hartuta iristen gara txapelketara"

SAIOA GALARRAGA ETA JULEN MURGIONDO DANTZARIAK

Moises Azpiauren omenezko txapelketaren 36. edizioan arituko dira Galarraga eta Murgiondo. Azken bi urteetan txapela eskuratuta, egindako lanaz gozatu gura dute gaur

Jone Olabarria BERGARA

Bergarako Musika Eskolako Udaren laguntzarekin antolatu duen bikote nagusiendako 36. txapelketa gaur iritsiko da Seminari-xora, 19:30ean. 16 urtetik gorako zortzi bikotek hartuko dute parte; horietatik bakarra Debagoienekoa, Bergarakoa, hain zuzen ere, Saioa Galarragak eta Julen Murgiondok osatzen dutena.

Bi urtez jarraian garaile Moises Azpiauren omenezko txapelketa honetan. Errepikatzeko gogoz?

Beti helburu berarekin irteten gara dantza egitera, txapelketa guztietara: guk egindako lanarekin gustura geratzea. Horren ostean txapela eskura-

tzen badugu, ba, are gusturago, baina ez da helburu nagusia izaten.

Bergaran etxean arituko zarete. Berezia izaten da txapelketa?

Beti da berezia etxean aritzea. Familiako kideak, lagunak, ezagunak,... hurbiltzen dira eta animo horiek asko igartzen dira txapelketan.

Edukiera neurriek ikusle gehiago egotea ahalbidetuko dute. Eskertzen duzue publikoaren berotasuna?

Publikoaren presentzia beti eskertzen dugu, asko. Esaterako, fandangotik arin-arinerako deskantsu tartetxo horretan, fisikoki larriago egon zaitezkeen

uneetan, beti laguntzen dizu barruko indar horiek ateratzen publikoa bertan sentitzeak.

Nola zaudete ostiraleko txapelketara begira? Azken bi urteak pixka bat arraroak izan dira; izan duzue aukerarik beste txapelketa batzuetan aritzeko?

Egia esanda, erritmoa nahiko hartuta iritsi gara gaurko etxeko txapelketara: Zarautzen, Donostian, Lekeitio... izan gara aurreten aurretik txapelketetan. Ez da lehenengotakoa izango, eta alde horretatik igarri egingo da, fuere samar iritsiko garela uste dugu.

Zein da zuen indargunea? Zer nabarmetzen du epaimahaiak?



Julen Murgiondo eta Saioa Galarraga, iazko txapelketan. I.S.

Bion arteko elkar ulertzea dela uste dugu. Azken batean, urte pila bat daramatzagu bikote moduan dantzan eta esperientzia hori asko igartzen da. Bestela ere, asko nabarmen dituzte gure fintasuna eta ditugun puntak.

Baduzue presio edo urduritasun punturik?

Beste txapelketa guztietan bezala, irten aurreko urduritasun puntu hori egongo da, baina, beti esaten dugun moduan, taula gainean urduri-

tasun horiek desagertu egiten dira eta disfrutatu egiten dugu. **Segurako txapelketarako tenperatura hartzeko proba izango da Bergarakoa?**

Nahiz eta hilabete baino apur bat gehiago geratu Segurako Euskal Herriko Txapelketarako, gaurko txapelketa izango da azkenetakoa aurretik. Hor ikusiko da zeintzuk dauden puntan, edo erritmo onean. Hala ere, oraindik badago denbora Segurarako prestatzeko.

Alberto Gorosabel Mendizabal eta Andrea Gorosabel Badiola doktoreak



RPS: 258/18

943 76 56 88 • 618 95 90 17

Fraiskozuri 5A, 1-D. BERGARA

clinicagorosabel

www.gorosabeldental.com

- Ortodontzia. Odontopediatria. PADI (Osakidetza).
- Estetika eta hortzen zuritzea TEKNIKA BEREZiarekin.
- ESKANER DIGITALA diagnostiko zehatzak egiteko.
- AHO eta INPLANTEEN KIRURGIA punta-puntako teknologiarekin.
- PRGF (PLASMA).
- SEDAZIOarekin, nahi baduzu, kirurgia eta gainontzeko tratamenduak.

Gu ere bergararrekin!

1990. URTETIK ZUEKIN BERGARAN. ESKERRIK ASKO DENOI!

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
Horma-Armairuak
Altzariak neurrira
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

Gu ere bergararrekin!

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com



Jokin Bereziartua BERGARA

2009ko Pentekoste jaietan egin zuen lehen agerraldia Xaxau birusak, eta, ordutik, gutxienez 2019ko sanmartinetara arte, jai herrikoien konpartsa dena herriko jai nagusiak kaleko giro alaiatzat kutsatzeaz arduratu da. 2020ko martxoan, baina, oso bestelako birus batek dena aldatu zuen; izan ere, COVID-19ak mundua hankaz gora jarri zuenetik ekitaldi publikorik antolatzeke apenas izan dute aukerarik Xaxaukoek. 2021eko Pentekosteetarako saiatu ziren pandemiara egokitutako egitarau bat prestatzen, baina azken intzidentzia tasek eraginda eta Udal Gobernuaren eskaera jaso ostean ez zuten ezer antolatu. 2021ean ere ez da San Martin jairik ospatuko, baina egitarau bat bai antolatu dute San Martin plazan egokituko duten gune baten, irailaren 15etik 18ra. Egitarau hori gaur arratsaldean egingo dute publiko; sare sozialetan aurreratu dutenez, txosna baterako txandak osatzen ari dira eta bereziki kultura emanaldiz osatutako egitaraua izango da.

Xaxau birusa bueltan da, COVIDak ahuldu badu ere

Xaxau konpartsak gaur arratsaldean egingo du publiko irailaren 15etik 18ra begira aurreikusi duen egitaraua; San Martin plazan gune bat egokituko dute bereziki kultura emanaldietarako, pandemiak eskatzen dituen neurri guztiak beteko dituen

"Ahal bezala, bueltan gatoz"

Xaxau bueltan dator, beraz, eta mezu argi batekin datoz: "Ahal dugun neurrian eta pandemiara egokituta, baina bueltan dator Xaxau. Egubakoitz arratsaldean [gaur] publiko egingo dugun kartelean ere Xaxau Bergarara bueltan datorrela islatu dugu. Ez da nahiko genukeen itzulera, baina... Lanean egon gara orain arte ere, baina COVID-19ak ez digu utzi nahiko genukeen moduan lan egiten. Ikusten ari gara herria poliki-poliki egoera zail honetatik irteten ari dela eta aukera ikusi dugu horren beharrezko zaigun aisialdirako eskaintza bat lotzeko".



Ibil Bedi taldeak sare sozialetan iragarri du hilaren 18an Bergaran joko duela. H. LARREA

Hilaren 15etik 18ra arteko egitaraua

Irailaren 15etik 18ra arteko egitaraua prestatu du Xaxauk San Martin plazan egokitzea aurreikusten den generako. Udalak ez dio baimenik eman GOIENARI egitarauaren berri emateko gaur, egubakoitza, arratsaldera arte. Orduan zabalduko du Xaxauk ere. GOIENAK jakin duenez, ekitaldiek edukiera mugatua izango dute eta txosna bat ere egongo da –Xaxauk dei egin die herritarrei txandak osatzeko–; gainera, esan du kudeatuko duen gunean segurtasun neurriak bermatuko dituela. Oholtzara igoko diren artisten artean daude, besteak beste, Ibil Bedi taldea, eta Katarsis eta June Odriozola bergararrak.

TELAETXE

Oihalen neurketatik etxean
ipintzera arte dena gure esku
Fabrikako preziotan

Elgeta bidea,
gasolindegitik
300 metrora
• BERGARA •

Tel.: 943 76 39 40 / 41
Astelehenetik
larunbatera
10:00etatik 13:00etara
eta
16:00etatik 20:00etara zabalik

Gu ere
bergararrekin!

- Kortinak
- Kortinoiak
- Estoreak
- Fundak
- Mantelak
- Nordikoak
- Izarak
- Oihalen neguko kolekzio berria ikusgai eta orain ALFONBRAK

Hogei urte baino gehiago erraldoiak dantzan jartzen

Ospakizun ekitaldietan murgilduko dira datozen asteetan Bergarako Erraldoi Taldeko kideak. Taldea sortu zutenetik hogei urte bete ziren iaz, nahiz eta COVID-19a tarteko ezin izan zuten ospatu; aurten, baina, erakusketa eta solasaldia prest dituzte

Jone Olabarria BERGARA

Iaz, 20 urte bete zituen Bergarako Erraldoi Taldeak, baina, pandemiak eraginda, bertan behera geratu ziren ospakizun-ekitaldiak. Hala ere, taldekideek lanean jarraitu dute, eta hilabete honetan konpartsaren sorrera hitzaldi eta erakusketa batekin ospatuko dute, Bergarako Udalarekin elkarlanean.

Herrian izandako garrantzia

Gaur hasi eta hilaren 26ra bitartean, *Erraldoiak eta Bergara; jaia, musika, herria* izeneko erakusketa egongo da ikusgai Bergarako Aroztegi aretoan. Konpartsakideen esanetan, au-



Bergarako Erraldoi Taldeak gaur egun dituen hemezortzi erraldoiak. A.G.

rretik Bergaran ez zegoen tradizio handirik: "Bi erraldoi baino ez zeuden, jaietan eta Aratusteetan. Taldea sortu genuenean prestutasun handia zegoen, baino ez genekien erraldoiak maneiatzen ere".

Gaur egun, 18 erraldoi ditu taldeak eta herriko kaleetan ezagunak dira oso. Hasierako urte haietatik orain arterako ibilbidea, erraldoiek Bergarako jaietan izan duten presentzia eta bestelako bitxikeria batzuk ikusi ahal izango dira Aroztegi erakusketan.

Jatorria aztergai domekan

Erraldoien jatorrian eta ohituretan sakontzeko hitzaldia ere antolatu dute. Hiru adituk jardungo dute Seminarixoa, domekan, 12:00etan. Zergatik dantzatzuten erraldoiek? Zer dantzatu dezakete? Horiek eta beste hainbat galdera argituko dituzte Iñigo Castellano Tuterako erraldoi konpartsako arduradunak, Patxi Laborda 25 urtez Iruñeko konpartsako kide eta egun Sestaoko konpartsako arduraduna denak eta Mari Ganuza erraldoi egileak.



T.M.

"Herriatik kanpogure erraldoien izena dakite"

IBON UNAMUNO ERRALDOI TALDEKO KIDE SORTZAILEA

"Gogoan dut erraldoi taldea martxan jarri eta lehen aldiz herrian kalejiran irten ginenekoa, baita Euskal Herriatik kanpoko lehen irteera. Urte eta erdiz gordeta eduki ostean, abuztu amaieran egin dugu lehen irteera erraldoiekin, 29 lagun Palentziara. Oso preziatuak dira, eta gertatu zaigu beste herri batera joan eta gure erraldoien izenak jakitea".

FP6: 227/18



ESTELLA

FARMAZIA-ORTOPEDIA SEKZ.

Matxiategi 5 • Bergara • 943 76 19 63



Gu ere bergararrekin!





Gu ere bergararrekin!

Ordutegia: 08:30 - 20:30 | Ibagarai ibilbidea 11 | Tel.: 943 76 28 92

Azoka, lehiaketak eta odolosteen postua bihar

Iaz Fraisko zurin eta oso modu murriztuan egin ostean, aurtengo San Martin feriak 40 postu izango ditu eta Ibargarai kalean zehar ere egongo dira salgaiak, 09:30etik 14:30era; barazki, fruta eta gazta lehiaketak bueltan datoz, baita odolosteen postua ere

Jokin Bereziartua BERGARA

Bihar goizean, irailak 11, egingo da San Martin azoka. Feriaren kokapena aldatu egin da aurten, iaz Fraisko zurin plaza ondoko errepidean bakarrik egin zen-eta, oso murriztua. Aurten azoka askoz handiagoa egingo da, eta postuak Fraisko zurin plazan egoteaz gain Ibargarai kalean zehar ere jarriko dituzte, 09:30etik 14:30era. Barazki, fruta eta gazta lehiaketa egiteaz gain, askotariko produktuak egongo dira salgai azokan: foieak, gazta, hestebeteak, ogia, gozogintza, kontserbak, ezta, likoreak, garagardo ekologikoak...

Odolostek, herriko harakinekin

Bestetik, Seminarioko patioan, 11:30ean, odolostek dastatzeko aukera egongo da, Bixain, Imaz, Leturia eta Urzelai harategien eskutik. Udalak mahaiak eta aulkiak jarriko ditu odolostek bertan jan ahal izateko. Bestalde, Seminarioko karpan baina ordubete lehenago, 10:30ean, San Martin jaietan klasiko bat izan ohi zen gazta lehiaketa egingo da.

Ferian maskara derrigor

Pandemiara egokitutakoa izango denez, gunera sartzeko derrigorrezkoa izango da maskara



Bergarako Elkoro baserriko Ane Gorosabel, iazko azokan. JOKIN BEREZIARTUA

erabiltzea, eta bertaraten diren herritarrek segurtasun neurriak bete beharko dituzte. Guneen sarreretan eskuak garbitzeko gel hidroalkoholikoa egongo da.

Eragina zirkulazioan

Bestalde, azokak eragin zuzena izango du zirkulazioan, gaurtik bertatik hasita. Postuen muntaia lanak egiteko zirkulazioa moztuko da gaur goizean, Fraisko zurin plazan eta Ibargarai kalean. Horretarako, aparkalekuak libre utzi beharko dira gaur goizera-ko. Feria egunean, bihar, 07:00eta-


tik aurrera errepidea itxiko da zirkulazioarentzat.

Denboraldiarekin zalantzak

Biharko azokan egongo den ekoizleetako bat da Etxague Azpikoa baserriko Carmen Etxeberria, eta dio, besteak beste, ez dakiela azoken denboraldia nola etorriko den ikasturte honetan. Baserriko lana "oso lotua" dela ere gaineratu du: "Oso lotua da, baina emankorra ere bai, aldi berean. Lan handia egiten da, baina, normalean, emaitza onak ematen ditu".

"Baloratzen dute gure lana eta produktua"

CARMEN ETXEBERRIA
ETXAGUE AZPIKOA BASERRIA



GOIENA

Zita berezia da zuretzat San Martin feria.

Oso egun polita izaten da. Eskatzen dudak bakarrik da eguraldi ona egin dezala, salmentetan izugarri nabaritzen delako. Izan ere, herritarrek gero eta gehiago baloratzen dute gure lana eta bertako produktua; sortzen den harremana ederra da.

Lehiaketa ere badago...

Ez pentsa lehiaketak askorik gustatzen zaizkidanik... Ferian

ondoan izaten ditudan ekoizle guztiek izaten dute lehengai ona, eta lehiaketak urduri jarri ohi nau. Lehia hori izateak nekatu egiten nau. Bestetik, baina, ulertzen dut lehiaketak antolatzea.

Zer eroango duzu?

Produktu asko ditut gertu. Batzuk aipatzearen, postuan izango ditut tomateak, lekak, letxugak, erremolatxa, arbia, eskarolak, azenarioak, tipulak... Denetarik.

40 postu, eta askotariko produktuak

Egoera epidemiologikoa konplikatua zen iaz eta ez-jaietako egitarauaren barruan azoka oso mugatu bat antolatzea erabaki zuen Udalak. Hala, iaz Fraisko zurin ibilbidean jarri zuten azoka, hamar postuz bakarrik osatua. Aurten pandemia egoera dago oraindik, baina azoka handiagoa antolatzea erabaki du Udalak.

Aurtengo azokari kokalekua aldatu diote, guztira 40 postu jarriko dituztenez Ibargarai kalean ere hartuko dituelako hainbat postu. Luzea da ekoizleen zerrenda eta baserria Bergaran bertan dituzten artean daude Etxague Azpikoa baserriko Carmen Etxeberria eta Elkoro baserriko Ane Gorosabel; askotariko barazkiak eta frutak jarriko dituzte salgai biek ala biek. Beste postu batzuk aipatzearen, biharko ferian izango dira, esaterako, Aramaioko Jose Lombideren barazkiak eta frutak; Antzuolako Pikunieta baserriko askotariko gaztak; Elgetako Mikel Irazabalaren artisau garagardoa; Soraluzeko Nagore Martinen ahuntz-gazta; eta Soraluzeko Ezoz Etxeberriaren barazkiak, frutak, ogia eta gozogintzako produktuak.

Urrunagotik etorriko dira, besteak beste, Colindresko eta Revilla Camargo herrietako (Kantabria) kontserbak eta arrainak; Cabezón de la Salgo (Kantabria) hestebeteak eta gozoak; eta Saint Crispin Chalossekoko (Frantzia) foieak.

SAN MARTIN EZ-JAIK

GOIENA TELEBISTA, 'HEMEN DEBAGOIENA'
IRAILAREN 13AN, ASTELEHENEAN, 18:00 / 20:00 ETA 22:00



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.





Protokoloa zorrotza bada ere oraindik, banda frontoian hasi da entseatzeko; irudian, martitzeneko entsegua. MIREIA LARRAÑAGA

Banda gozagarri, sasoirik onenean ez badago ere

Irailaren 16an, San Martin eguna, udal pilotalekuan joko du bandak (12:30); Enrike Txurrukak dio "pozgarria" dela ia denak batera ikustea, baina oraindik ere protokoloa zorrotza dela dio: "Baldintzak hobetzea beharrezkoa zaigu maila berreskuratzeko"

Jokin Bereziartua BERGARA

Pandemiak ez du bandaren San Martin giroko kontzertua zapuztuko. Irailaren 16an izango da, udal pilotalekuan (12:30). Hori bai, alde aurreko lanak bai baldintzatu ditu pandemiak, bandako zuzendari Enrike Txurrukaren arabera: "Egoera orokorrean hobetu egin denez, bandako musikari ia guztiak hasi gara berriz entseatzeko. Elkartu ezinik egon garenean hainbat etxeko lan egin ditugun arren -bideoak, esaterako-, oraindik musikari asko sasoi berreskuratu beharrean dira. Baina pozgarria da berriz denak batera ikustea".

Zailtasun handiko obrarik ezin

Hala ere, oraindik araudiak eta Jaurlaritzarekin Banden Federazioak adostutako protokoloa "nahiko zorrotzak" direla dio Txurrukak: "Horrek ezinezko egiten du baldintza egokietan entseatzeko. Horrek asko baldintzatzen gaitu, eta errepertorioa moldatu egin behar izan dugu. Ezin izango dugu egoera apur bat normaldu arte zailtasun handiko obrarik landu. Adibidez, pena handiz, alde batera utzi

behar izan dugu egun berezi honetan horren gurea den *San Martin* obra. Pena bikoitzarekin, oraindik Miguel Gonzalez Bastidari behar bezalako omenaldia zor diogulako, iaz bete ziren-eta 100 urte jaio zela".

Oztopoak oztopo, kontzertuan ez dira faltako San Martin kutsuko doinuak, herrian aski ezagunak direnak. "Horiez gain, beti bezala, askotariko estiloak eskainiko ditugu. Egongo da euskal musika klasikoa, Guridiren *Mirentxu* operaren preluioarekin; egongo da bandarako idatzitako gaur egungo musika, Jan Van de Roost-en *Suite Provençale*-rekin; eta egongo dira baita ere ukitu etnikoak dituzten pop doinuak, Van McCoy-ren *African Symphony*-rekin. Gustu guztietarako aukerak", aurreratu du Txurrukak. Aurrera begira zer? Honako hau adierazi du zuzendariak: "Egoeraren arabera jokatu beharko dugu. Federazioa badabil Jaurlaritzarekin protokoloa berrikusi nahian, egoera hobetu honetara egokitzeko. Entseatzeko baldintzak hobetzea beharrezkoa zaigu lehengo maila berreskuratzeko".

Bergara ●
metagra
 México ● Group

Gu ere bergararrekin!



Eneritz Orobengoa dinamizatzailea Antzuolako KZgunean. MAIDER ARREGI

Lau urteren ostean, KZgunea berriro abian

KZguneako dinamizatzaile Eneritz Orobengoa bi hilean behin etorriko da. Ikastaroa jaso nahi duten herritarrek aurrez txanda hartu beharko dute, 'tutor.antzuola@kzgunea.net' helbidera mezua idatzita edo 945 06 25 55 telefono zenbakira deituta

Maidar Arregi Antzuola ANTZUOLA
2017ko ikasturtean eskaini zuen azkenekoz Antzuolako KZguneak ikastaroa. Izan ere, 2018ko ekainaren 3ko uholdeen ondorioz, Torresoroa eraikinak jasandako txikizioak bete-betean eragin zuen KZguneako zerbitzuan. Ondoren, pandemiarekin, ikastaroen etenaldia luzatu egin da.

Ikasturte berri honetan, aldiz, KZguneak Gipuzkoako herri txikietan zerbitzua emateari ekin dio; tartean, Antzuolan. "Iurretan eta Antzuolan hasi gara ikastaroak eskaintzen, eta berriro pixkanaka martxa hartu nahian gaude", adierazi du Eneritz Orobengoa dinamizatzaileak. Hala, bi hilean behin eskainiko du zerbitzua -09:00etatik 13:00etara-.

Liburutegiko arduradun Lierri Legorburuk aitortu du Torresoroa berrituan KZgunearendako propio egokitutako gunea eginda zegoela, eta, nolabait, normaltasunera itzultzeko gogoa sumatzen zutela herrian: "To-

resoroako obra amaituta, KZgunearendako txokoa gertu geneukan, herritarrek erabiltzeko prest".

Online tramitazioek gorakada
Pandemiaren ondorioz, tramitazio digital gehiago egiten dira, eta mugikorrek aplikazioen erabilerak ere nabarmen egin duela gora aitortu du dinamizatzaileak: "Ordenagailuko programa ezberdinez galdetzen digutenak asko dira oraindik ere, baina mugikorraren erabilerak gorakada izan du. Aplikazioak instalatzen laguntzeko eskatzen digute; baita sare sozialetan murgiltzeko ere. Oro har, gailuei etekina atera gura diete erabiltzaileek. Pandemiatik

BI HILEAN BEHIN ETORRIKO DA KZGUNEKO DINAMIZATZAILEA ANTZUOLARA

ren ondorioz, tramite asko online egin behar dira orain, eta esango nuke geratzeko etorri direla. Gainera, dena horretara bideratuta dagoela ikusten da jada; hau da, trenera igo edo galdu. Ez dago atzerapausorik". Nagusiki erretiratuak gertatzen direla esan du, baina pandemia garaian COVID-19aren ziurtagiri edo pasaporte digitala eskuratu nahian gazte askok jo dutela herri handietako KZguneetara ere kontatu du Orobengoa.

Izena aurrez eman

Berez, zortzi erabiltzailearendako lekua dauka liburutegian kokatuta dagoen KZguneak, baina, osasun neurriek hala aginduta, edukiera mugatua du ikastaroak eta hiru lagunendako lekua dago. Bakarka nahiz hiruko taldeetan ere jaso dezakete zerbitzua. Izena aurrez eman behar da, 945 06 25 55 zenbakira deituta edo tutor.antzuola@kzgunea.net helbidera idatzita.

Puntatik Punta bidezidorren jaialdia urrian egingo da

Bosgarren bidezidorren jaialdia Antzuolan egingo da urrian; egitaraua eta data zehazten dihardute

Maidar Arregi ANTZUOLA

2020an zen Antzuolan egitekoa Puntatik Punta bidezidorren jaialdia, baina pandemiaren ondorioz ekitaldia bertan behera geratu zen eta atzeratzea erabaki zuten. Data zehazteke dagoen arren, natura eta kultura uztartzen dituen jaialdia urrian egingo dela baieztatu diote Antzuolako Udalak eta Debagoieneko Mankomunitateak GOIENARI.

"Osasun egoerak markatutako jaialdia izango da, eta, oraingoz, aurrera egitea adostu dugu Man-

komunitatearekin. Egitaraua eta data zehaztu gabe daude. Asmoa urriko erdiko asteetan egitea da. Aurrez bageneukan egitarau bat prest Arrolarekin elkarlanean, baina aurten oraindik ez dugu ezer lotu", azaldu du Garazi Larreak, Antzuolako zinegotzi eta Mankomunitateko ordezkariak.

Antzuolako bosgarren edizioa izango da. Hitzaldiak, mendi irteerak, haurrendako ekintzak eta kontzertuak antolatzeko lanetan dihardutela azaldu du Larreak.

Landatxopek ateak zabalduko ditu datorren irailaren 20an

Irteerak berreskuratu nahian, hilaren 29an, eguaztena, Leitzako Peru-Harri museora joango dira erretiratuak

Maidar Arregi ANTZUOLA

Landatxope erretiratuaren elkarrekin Torresoroako eraikinean duen lokala irekiko du berriro. Izan ere, pandemiaren ondorioz itxita egon da. Egungo osasun egoera ikusita, ordea, irailaren 20an irekiko dute berriro lokala, 17:30ean, -pintxoia eta edaria eskainiko zaizkie bertaraten direnei-. Funtzionamenduari dagokionez, lokaleko sarrera terrazatik izango da, eta zuzendaritza batzordeak mahaiak prestatuta edukiko ditu, edukiera errespetatuz. Kartetan joka-

tu ahal izango da eta jokalaritalde bakoitzak beti karta-joko berbera erabiliko du. Lokalean eserita eta maskara jarrita egon beharko da.

Irteerak berreskuratu nahian, Peru-Harri museora joango dira hilaren 29an. Izena emateko aukera izango da hilaren 20an eta 21ean, 17:30etik 18:30era bitartean Landatxopeko bulegoan. Prezioa 15 euro da. Leitzan, museoa bisitatu aurretik hamaitakoa egingo dute. Bazkaria, berriz, Doneztebeko Santa Maria jatetxean.

Pentsiodunen elkarretaratzea

Antzuolako pentsiodunek ekin diete ikasturte berriko elkarretaratzei. Hala, astelehenero, 12:00etan batuko dira Herriko Plazan, eta, besteak beste, gutxieneko 1.080 euroko pentsioa aldarrikatzen jarraituko dute. Urtarrilean hiru urte bete ziren mobilizazio horiek hasi zituztela. Herritar oro animatu nahi dute astelehenetako bilkuretar.



MIKEL OLABARRIA

"Formatzen dabilen taldea da Antzuolakoa"

IKER EPELDE ANTZUOLA

Laugarren denboraldiari ekingo dio Iker Epeldek AKEko entrenatzaile. Hastear den denboraldiaz eta Erregional Preferenteak duen talde berrituaz jardun du

Maidar Arregi ANTZUOLA

Bihar hasiko du Erregional Preferenteak denboraldia. Eztalan neurtuko ditu indarrak Beasainen aurka, 16:30ean hasita. Iker Epelde entrenatzaileak denboraldiaz jardun du.

Nola dago taldea?

Denboraldiaurre laburra egiten dugu, baina pixkanaka sasoia hartuaz goaz. Aloñaren aurkako lagunartekoa galdu egin dugun arren, denbora gutxian hobekuntza lortu dugu.

Partidu gogorra denboraldia hasiteko.

Goian ibiltzen den taldea da Beasain; izan ere, talde nagusiak kanpoko jokalarari asko ditu, eta Beasaingo bigarren taldean daude bertako jokalarari onenak. **Eta Antzuolak nolako taldea dauka?**

Oraindik formatzen ari gara, baina jokalarari langileak ditugu, eta lan egitea izango da gure eginkizuna. Helburua mailari eustea da, bai, baina baita ere bestelako nahiak betetzea. Azken bi urteetan aldaketak izan ditu taldeak eta estrategia aldatu behar izan dugu. Jokalarari altuak izatetik baxuagoak izatera pasa gara, eta jokora egokitu beharko dugu.

Pandemia tarteko, animoz nola zaudete?



Iker Epelde entrenatzailea. I.E.

"INSTALAZIO BERRIAK ERABILTZEKO AUKERAZ GAIN, ZALEAK ZELAIAN IZANGO DIRA BIHAR"

Ilusio handiz eta gogotsu. Aurretan txapelketa bi fasetan banatu dute, eta, hasieratik indartsu egon beharko dugun arren, bigarren faseak ere indartsu egotea eskatuko digu.

Laugarren denboraldia beteko duzu AKE.

Lehen urtea gazte mailakoekin egin nuen eta gainontzekoak, lehen taldearekin. Pandemiaren ondorioz, ordea, hauxe da Erregional Preferenteekin osorik egingo dudana lehena. Ilusioz eta gogoz nago.

Instalazio berriak ere erabilgarri. Bai; betiere, Eztalako instalazio berriak erabiltzea, dutxak barne, lagungarria da taldearenako. Zaleak ere bertan izango dira, eta hori asko da futbolarrendako.

Haurreskolak Herri Eskolako gunean abiatu du ikasturtea

Guztira, bost haurrek hasiko dute ikasturtea haurreskolan: lauk irailan eta batek urrian

Maidar Arregi ANTZUOLA

Astlehenean, hilaren 6an, abiatu du haurreskolak ikasturte berria. Lau haur hasi dira asteon eta bosgarrena urrian hasiko da. Bi hezitzailek dihardute eta jada haurrak egokitzapenarekin hasiak direla azaldu diote GOIENARI. "Aste hau haurren egokitzapenarekin hasi dugu. Gainera, lehengo tokira itzuli gara, Antzuolako Herri Eskolako eraikineko gunera, eta aste hau aprobetxatu dugu baita ere txukuntze eta prestatze lanak egiteko", azaldu du Vanesa Tamayo hezitzaileak. Tamayok gaineratu du pixkanaka normaltaterako bidean murgildu direla, eta oraindik ere osasun neurriak ezinbestean hartu behar diren arren eta funtzionatzeko modua iazkoaren berdintsua izanagatik, ohikotasun kutsuaz hasi dutela ikasturtea.



Haurreskolako egokitzapena. V. TAMAYO

Izen ematea zabalik dago

Haurreskolan izena emateko aukera urte osoan zehar dute herritarrek, eta interesa dutenek mezua bidali dezakete antzuola@haurreskolak.eus helbidera edo 943 78 60 15 telefono zenbakira deitu dezakete.

Yoga eta eskulan ikastaroetan izena eman daiteke

Antzuolako Udalak yoga eta eskulan ikastaroak antolatatu ditu 2021-2022 ikasturterako. Izena emateko epea zabalik dago eta interesa dutenek hilaren 24a dute azken eguna. Udal bulegora jo dezakete, edo www.antzuola.eus webgunean jaitsi dezakete izena emateko orria. Behin orria beteta, posta elektronikoz ere bidali de-

zakete, udala@antzuola.eus helbidera.

Izena aurrez ematea beharrezkoa da taldeak osatzeko eta eguna eta ordua zehazteko. Helduen eskulan ikastaroaren kasuan, COVID-19 dela-eta, ordutegien, txanden eta ikastaroaren kokapenari buruzko erabakiak izen-ematea egin eta gero hartuko dira, partaide-kopuruaren arabera. Yogaren kasuan, berdin: jende-kopuruaren arabera taldeak antolatuko dira.

Konpromiso handiko jokalaririk

Mikel Jauregi kapitainak taldearen gaineko balorazioa egin du: "Jokatutako azken lagunartekoaren balorazioa oso ona da. Aloña fisikoki eta teknikoki oso talde ona da. Ahal genuena egin dugu eta gauzak ondo irten zaizkigu, 2-0 galdu arren zapatuko partidua. Konpromisoa duten taldekide berriak ditugu, eta kategoria mantentzen saiatuko gara".



Aloñaren eta Antzuolaren arteko lagunartekoa, Azkoagainen. IMANOL SORIANO

Luzaketak egiteko ikastaroa abian da, herritar ororendako

Ima Beristainen gidaritzapean, egunero izango dute antzuolarrek luzaketak egiteko aukera. Hala, goizero, 09:30etik 10:30era bitartean luzaketa saioa eskainiko du Eguzki auzoan –orain arte haurreskola egon den lokalean–. Derrigorrezkoa da maskara janztea, gelaz eskuak garbitzea eta distantzia mantentzea. Edukie- ra mugatua izango da.

Gimnasia erritmikoa gertutik ezagutzeko, ate irekiak

Ariznoa Gimnasia Elkartek ate irekien jardunaldiak antolatu ditu Bergaran eta Antzuolan –hainbat mailatan–. Hala, hilaren 22an, eguaztena, 14:45ean, Antzuolako udal pilotalekuan nahi duen orok jarduera probatzeko eta gozatzeko aukera izango du. Aurrez eman behar da izena, ariznoa_ge@hotmail.com helbidera idatzita.



Elgetan Berbetan egitasmoko koordinatzaile Geaxi Ezpeleta eta Iraitz Lazkano alkatea eguazteneko aurkezpenean. L.Z.L.

Euskararen erabilera bultzatzeko eskaintza

Urriari abiaraziko dute ikasturtea euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea helburu duten ekimenek. A2 mailako ikastaroa herrian bertan egiteko aukera izango da aurtur. Gainerakoan, mintzalagun taldeak osatzeko bidelagunak eskatu dituzte

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA Hizkuntza ohituretan euskararen presentzia indartzeko helburuarekin, askotariko ekimenak izango dira martxan ikasturte honetan ere, eta proposamen berriak izango dira tartean. Eguaztenez egin zuten eskaintzaren aurkezpena Iraitz Lazkano alkateak eta liburutegiko

arduradun zein Elgetan Berbetan egitasmoko koordinatzaile Geaxi Ezpeletak.

Nobedadei dagokionez, urritik ekainera bitartean herrian bertan eskainiko den A2 mailako ikastaroa nabarmendu zuten. Horrekin batera, oinarritzko hitano ikastaro bat, gauzak ondo bidean eta taldea sortuz gero

udazken edo negu partean egingo dena.

A2 mailako ikastaroa AEK-ko irakasle batek gidatuko du. "Aurtur apustu berezia egin gura dugu euskalduntze edo alfabetatze akademikoago batean", azaldu du Lazkanok. Ezpeletak gaineratu du badela herrian bizpahiru urtez Euskaralagun

taldean aritu den jendea prest egon daitekeena A2 mailako ikastaroa egiteko. "Pauso hori emateko aukera dagoela ikusita dator ikasturte osoko ikastaro formalagoa antolatzea saiake-ra", esan du.

Hitano ikastaroak bestelako formatua izango du. Ez du ikasturte osoko iraupena izango, eta antzekotasun handiak izango ditu 2017an egindakoarekin. Bina orduko lau saio izan ziren Elgetako hitanoaren oinarritzko ezagutza jasotzeko. "Helburua da hitanoa sustatzea eta martxan den Hikalagun taldea indartzea".

Gainerako dinamikak

Gainerakoan, herritarrek aukera izango dute azken sei urteotan martxan diren Elgetan Berbetan mintzapraktika saioetan parte hartzeko. Askotariko modalitateak izan dituzten taldeak sortu izan dira. "Kuadrilla barruko taldeak, guraso taldeak, bestelako taldeak...", azaldu du Ezpeletak.

Martxan izango dira, baita ere, liburutegitik antolatzen diren Hitzez Pitz Berbalagun irakurketa klubeko saioak.

Euskara hutsetik ikasi nahi dutenendako, berriz, Euskaralagun taldea eskainiko da. Ahozko ulermena lantzen da bertan.

Herrian bertan gauzatzen diren ekimenak dira guztiak, eta herritik kanpora ikastarorik egiten duten herritarrei begira 900 eurora arteko dirulaguntza lerroa

du Udalak matrikula gastuak dituztenen artean banatzeko.

Bi hutsune esanguratsu

Hutsuneak nabarmentzekotan bi aipatu ditu Ezpeletak: "Aurreko ikasturtean bidelagun falta izan genuen, eta horrek ordutegiak bateratzea zaildu zuen apur bat". Bidelagunak dira euskaraz jariatutasunez hitz egiten duten hiztunak, eta bidelariei mintzapraktika egiten laguntzen dietenak. "Taldea txikiagoak izan arren bidelagun gehiago izateak saihestuko luke ez gelditzea bidelariarik bidelagunik gabe. Pena da bidelariak egonda bidelagunak falta izatea".

Hikalagun talderako, berriz, gizonetako hiztunak eskertuko lituzkete; izan ere, modu horretan, bidelariak hobeto trebatuko liriateke hitanoaren bi erregistrotan. "Oso ondo etorriko litzateke taldea guztiz osatzeko".

Izen-ematea zabalik

Talde horiek guztiak zein A2 mailako ikastaroa urriari jarriko dira martxan, eta zabalik da izen-ematea. Informazio zuzena jaso nahi dutenek liburutegira jo dezakete.

2017KO DATUEN ARABERA, EZAGUTZA MAILA %78KOA DA ELGETAN, ETA ERABILERA %61EKOA

Egonaldi artistikoa

Belen Cruz, Oier Zuñiga eta Eneko Gil aktoreek bost eguneko egonaldi artistikoa egin dute Elgetan. 'Eresia' izeneko antzezlanaren sorkuntzan dihardute, eta 'Geuretik sortuak' bekak ahalbidetuta izan dira herrian. Antzuolan eta Bergaran izango dira hurrengo. Urtarrilean itzuliko dira Elgetara, sorkuntza amaitzeko eta jendaurrean eskaintzeko.



Domekan bisita gidatua Arantzetako baselizak ezagutzeko

Ezkutuko altxor egitasmoaren barruan, Arantzeta auzoko baselizak ezagutzeko bisita gidatua iragarri dute domekarako. Taldea 10:00etan abiatuko da, Mendizaleen plazatik, eta Nerea Villak gidatuko du bisita. Aurreikuspena da pare bat ordu irautea. Ibilbide horretan, besteak beste, Uriarteko Ama elizaren hondarrak eta San Martin, San Bartolome eta San Blas baselizak ezagutzeko aukera izango dute bisitariak.

Komeni da interesatuek aurrez izena ematea. Horretarako, *infoturismo@debagoiena.eus* helbidera idatzi behar dute, edo 943 79 64 63 telefono zenbakira deitu.

Iristear da 'Sasi artean Elgeta' komiki-albuma

Bi urteotan 'Xabiroi' aldizkarian atalka argitaratutako lanak komiki-album formatua ere izango du. Bultzatzaileek urri hasieran Getxon egitekoa den komiki azokarako nahi dute gertu argitalpena. Jacinto Rivas 'Elgeta' trikitilaria da protagonista nagusia

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Xabiroi komiki aldizkaria eza gutzen dutenek ondo dakite *Sasi artean Elgeta* zer den. Ikastolen Elkartek argitaratzen duen aldizkarian 2019ko ekainean estreinatu zuten izen bereko saila. Ordutik, bi urteotan atalka plazaratu dute Elgetako Intxuzabal baserriko Jacinto Rivas trikitilariaren ibilerak komiki formatuan jasotzen dituen lana.

Euskal Herriko Trikitixa Elkartearekin elkarlanean burututako proiektua da, eta hasieratik jakinarazi zuen **Xabiroi** aldizkariako koordinatzaile eta ilustratzaile Dani Fanok denborarekin komiki-albuma ere kaleratuko zutela. Eta iritsi da unea. Komiki-albuma aste honetan sartu da inprentan. Gauzak ondo bidean, asmoa da urri hasieran Getxon egitekoa den komiki azokan eskuragarri egotea. Aurkezpena, berriz, irailaren 29rako iragarri dute.

Soinu txikiaren maisua

Euskal Herriko Trikitixa Elkartek proposatu zion **Xabiroi** aldizkariari Jacinto Rivas *Elgeta*-ren figura gero album bihurtuko zen sail bat martxan jartzeko. Eta horrela izan da.

Koldo Izagirrek eginda zeukan *Elgeta-ri* buruzko biografia, *El-*



Jacinto Rivas 'Elgeta', Kontxako badian, soinu txikia bizkarrean. XABIROI ALDIZKARIA

INPRENTAN DA 46 ORRIKO KOMIKI-ALBUMA ETA HILAREN 29AN AURKEZTUKO DUTE JENDAURREAN

geta, sasiaren sustraiak izenburupean, eta abiapuntua izan da. *Elgeta*-ren bizitza ezagutzeak gerra aurreko eta osteko garaietara gerturatzeko aukera ere ematen du. Umezurtza zen eta Intxuzabal baserrian hartu zuten.

Ez zituen baserriko lanak maitate, eta trikitiarekin hasi zen.

Eibarren garatu zuen bere kontzientzia politikoa. Sozialista zen. Gerra eta kartzela ere ezagutu zituen, eta beti ibili zen boteretik urrun zegoen esparruetan. Akaso, horregatik dago hain informazio gutxi, baina esan daiteke trikitilari belau-naldi oso baten maisu izan zela. Baserriz baserri ibili zen eskolak ematen, eta hori izan zuen bizimodu. Trikitia bera hobetu zuen, eta errepertorioa nabarmen aberastu **ere bai**.



L.Z.L.

Leiho aldaketa kiroldegian

Beirate berriak jartzen ari dira gimnasioan eta gimnasiorako pasilloan. Lanon helburua da egun euritsuetan ur gehiagorik ez sartzea eta, horrekin batera, eraginkortasun termikoan eragitea. Leihoak modu motorizatuan irekiko dira, eta horrek aireztatzean ere eragingo du. Aurreikuspena da lanak hurrengo astean zehar amaitzea. 30.000 euroko aurrekontua dute.

Odol ateratzeak astelehenean kiroldegian


Zure odola ezinbestekoa da leloa zabaldu du odol-emaileen elkar-teak udan; izan ere, abuztuko odol-ateratzeen jaitsiera urterokoa baino handiagoa izan da aurten. "Zorionez, deialdia egin eta bost eguneko epean hilabete oso batean besteko odol-ateratzeak egin ditugu Gipuzkoan", adierazi du elkarteko presidentek Sabin Urcelayk.

Odola, ordea, beti da beharrezkoa, eta astelehenean herrian bertan odola emateko aukera izango dute herritarrek. Sendagile eta erizain taldea kiroldegian izango da 16:30etik 20:10era, eta deialdia egin dute odola ematera joateko.

Batez beste, 40 bat odol-ateratze egiten dira Elgetan aldiro, eta urtean zehar bi bisita izaten dira. COVID neurriak direla-eta oraingoan ere beharrezkoa izango da aurrez txanda hartzea, 943 00 78 85 zenbakira deituta.

'Elgeta'-ren bizitza, soinu txikia

Udaberrian argitaratu zuten azken atala 'Xabiroi' aldizkarian, eta irakurleek laster izango dute esku artean atal guztiak batzen dituen komiki-album osoa. Zazpi atal izan ditu 'Sasi artean Elgeta' sailak, eta 46 orriko komiki-albumean jasoko dituzte guztiak. Koldo Izagirrek sortu du gidoia, Dani Fanok egin ditu marrazkiak eta Garluk Agirrek eman dio kolorea.



'Sasi artean Elgeta' komiki-albumaren azala. XABIROI ALDIZKARIA

OHARRAK

'Azaleko Ipuinak' tailerra liburutegian

Eguaztenean izango da lehen saioa. 0 eta 2 urte artekoendako da eta heldu bat sartuko da umeko. Izena eman behar da.

Ludoteka zabalik astelehenean aurrera

Astelehenean barikura bitarteko zerbitzua emango du, 16:00etatik 19:00etara. Ikasturte osoko bonua 280 euro da eta lehen hiruhilekoa, 120 euro. Izen-ematea zabalik da.

Baserritarren azoka irailean

Herriko baserritarren eta artisauen azoka irailaren 18an izango da aurten. Salmenta postua ipini gura dutenek zabalik dute izena emateko aukera udaletxean.

Euskal hartzaile kopurua handitu gura dute

'Uler-saioak' izeneko ekimen berri bat eskainiko du ikasturte honetan udal euskaltegiak. Euskaraz ez dakiten herritarrei dago bideratuta eta helburua da oinarrizko komunikazioan euskaraz ulertzea, 'belarriprest' kopurua handitzea

Oihana Elortza OÑATI

Erronka berri bati heltzeko asmo sendoarekin ekingo dio ikasturte berriari Bedita Larrakoetxea udal euskaltegiak. *Uler-saioak* izena du ekimenak eta euskaraz hitz egiten ez moldatu arren ulertzeko gai izango diren herritarrek prestatu gura ditu, euskal hartzaile edo *belarriprest* kopurua handitzea.

Hartzaile kopurua handitzea

Joan den urtean Pasaiain jarri zuten martxan ekimen hori; bi talde sortu ziren. Gipuzkoako gainerako herrietara zabaldu zuten gero ekimena probatzeko gonbidapena. Dozena bat herri batu dira, eta Oñati da animatu den herri horietako bat. "Ulermena landuko dugu saio honetan. Lehenbizi, irakasle batek ikastaro bat jasoko du eskolak nola gidatu jakiteko, eta ondoren, ikasleekin hasiko gara ulermena lantzen. Asmoa da herritar hori ulertzeko gai izatea norbait euskaraz mintzatzen zaionean. Euskal hartzaileak izateko prestatuko ditugu", dio udal euskaltegiko irakasle Roberto Altunak.

Euskaraz ez dakien edozein herritarrek eman dezake izena saio horretan. Entzumen proba egingo diete hasieran, eta, A1 mailaren %50 baino baxuagoa baldin bada emaitza, saio horretan parte hartzeko moduan izango dira. 60 orduko ikastaroa izango da, hasiera batean, urritik otsailera, astean bi orduko bi saio. Bukatutakoan, beste entzumen proba bat egingo diete ikasleei, eta, emaitza aurrekoa baino hobea bada, A1 mailara pasatzeko moduan izango dira. "Euskaraz ulertzeko gaitasuna lortzea da helburua. Oinarrizko informazioa eskatzerakoan, ohiko elkarrizketetan, euskaraz ulertzeko moduan egotea, nahiz eta berriak gazteleraz hitz egin. Har-



Joan den ikasturteko ikasle taldea. BEDITA LARRAKOETXEA UDAL EUSKALTEGIA

tzaile onak izatea da gure helburua", dio Altunak.

Izen ematea, zabalik

Euskaltegian bertan dute proiektu horri buruzko informazio gehiago. Irailean eman ahal izango da izena eta eskolak urrian hasiko dira, astean bi egunetan, bazkalostean, bi ordu.

Uler-saioa izango da ikasturte honetan izango duten eskaintzarik berriena, baina ez bakarra. Esaterako, euskararen C2 maila lortzeko ere badago aurreten. "Joan den urtean ez zen egon eta jendea maila hori lantzeko gose dago. Interesa agertu dute askok, eta, horrenbestez, aurreten ere egongo da aukera euskararen maila goreneko titulua lortzeko".

Horrez gain, etxeko ikasleekin ere eskaintza dute. Joan den urtean hasi ziren horretan. Hasiera

EUSKARA MAILA GORENEKO TITULUA LORTZEKO ESKOLAK ERE EGONGO DIRA AURTEN

batean, ostalaritzako langileei erakustea ere bazen asmoa, baina talde hori ez zen aurrera atera; bai, ordea, etxeko ikasleena. Eta horiek jarraipena izango dute aurtengo ikasturtean.

Ikasleak ere bai

Bestalde, herriko ikastetxeetan antzemandako behar bati erantzuteko ahalegina egingo dute aurreten ere Bedita Larrakoetxea udal euskaltegian. Irakasleek antzeman dute, DBH mailako ikasleen artean, hainbatek arazoak dituztela ikasketak euskaraz jarraitzeko, eta laguntza eskatu zuten euskaltegian. Horrela, joan den urtean hasi ziren behar hori zuten ikasleei euskaraz eskolak ematen, eta aurreten ere egingo dute. Euskaraz ikasi gura duen herritarrendako saioak ere egingo dira, bestalde, betiko moduan. "Hori ohiko eskaintza da, euskaraz ikasi gura duen herritarrendako laguntzeko gaude gu hemen. Bertara etorri eta behar den informazio guztia emango diegu". Bidebarrieta kalean dago udal euskaltegia. Telefonoz deitu gura duenak, zenbaki hauxe markatu behar du: 943 78 24 96.

Martitzenean da harrobiaren gaineko informazio saioa

Ustiaketa mugetatik kanpo ez handitzeko, aldaketa puntuala egingo du hirigintza arauetan Udalak

O.E. OÑATI

Arantzazura bidean dagoen Gomittegi harrobia ustiatzen duen enpresak ustiaketa eremua handitu gura du, eta, harrobia handitzea galarazteko asmoz, aldaketa puntuala egingo du Udalak Hiri Antolaketarako arauetan. Horren berri emateko eta herritarren iritzia jakiteko, informazio bilera irekia egongo da datorren astean. Irailaren 14an, martitzena, izango da saio hori, 18:30ean, zinema aretoan.

Auzia lehenik dator. 2018ko martxoan onartu zuen udalbatzak

Hiri Antolaketako arauetan aldaketa batzuk egitea harrobiaren ustiaketa eremua ez handitzeko. Ingurumen-ebaluazio estrategikoari dagokion ingurumen-txostena egin gabe zegoela esanez, EAEko Auzitegi Nagusiak onartu egin zuen Aridos Aloña enpresak jarritako errekurtsioa. Txosten hori egin da Udalak eta aldaketa puntuala egiteko prozesua berriz jarri du martxan, parte-hartze prozesuarekin batera. Horri buruz ere egingo dute berba martitzeneko saioan.


Ikastaroak egongo dira Pake Leku, aspaldiko partez

Urte eta erdiren ondoren, ikastaroak antolatu ditu Pake Leku erretiratuen elkarteak. Areto dantzak eta dantza linean, bitxiak egiteko, euskara eta ingeles ikastaroak, informatika, orratz lanak, puntua, solfeoa, yoga, antzerkia, marrazketa eta pintura, memoria tailerra, irakurketa taldea, abesbatza eta Wikipedia ikastaroa egongo dira.

Domekan bukatuko da udako bainu denboraldia

Domekan, irailak 12, bukatuko da udako bainu denboraldia. Usakon soroslea egongo den azken eguna izango da, ur-uhinen parkeko txorrotak ere itxita egongo dira gero eta Zubikoa kiroldegiko solariuma eta berdeguna ere domekan itxiko dituzte. Igerilekuan jolaserako gordetako hiru kaleak normal erreterbatuko dira astelehenean.

GORA ETA BEHERA



11.

Batzuen erosotasuna, arazoa besteendako

Arrapalak beharra dutenek erabiltzeko diren ustetan bidali du argazkia herritar batek, hor ikusten den moduko ohiturak aulki gurgildunean daudenendako arazo direla sinetsita.

Abesbatzak gogotsu, ikasturte berria hasteko

Ganbara Faktoriak hainbat proiektu aurkeztu ditu, parrokiako abesbatzak zapatuetako mezatan kantatzeko ohitura berreskuratuko du urte eta erdi ondoren eta Oñati abesbatzak martitzenean du pandemia hasi osteko lehen entsegua

Oihana Elortza OÑATI

Ikasturte emankorra izateko, indartsu dator Ganbara Faktoria. Proiektu asko ditu aurreikusita hastear duen ikasturterako, eta, egoerak agintzen dituen neurrian betez eta zainduz, presentzialtasunaren alde egingo dute.

Ganbara eta Hots abesbatzak eta Kantu Eskola dira Ganbara Faktoriaren hiru zutabeak, eta, bakoitzak bere programa propioa prestatu duen arren, badira elkarrekin egingo dituzten emanaldiak ere. Maiatzean egingo duten bazkideendako kontzertua da horietako bat, *Emakumeek idatzia*. Ganbara eta Hots abesbatzek, gainera, elkarrekin hatuko dute parte *Basoaren hotsa* udako kontzertuan. Avilesko eta Varnako eta Ejea de los Caballerosko eta Miranda de Ebroko lehiaketetara joateko planak ere badituzte, hurrenez hurren. Txikiendako proiektuak ere badituzte: filmei abestiak ipintzea eta musika *Makilakixki* ipuinari. Gipuzkoako Abesbatzen Federazioarekin batera Kukubiku proiektuan ere hartuko dute parte txikienek. "Berezia izango da aurtengo ikasturtea. Kulturak arazo asko izan ditu azken bi urteetan, eta horregatik dator Kultura Arnastu leloarekin.



Aitor Biain eta Aitor Garitano eguaztenez egindako aurkezpenarekin. A.A.

Inklusiboa izan gura du, guztiondako izatea. Hartu, jaso eta sortu da helburua", Aitor Biain zuzendariak eguaztenezko prentsaurrekoan azaldu duen moduan.

Oñati abesbatza ere bueltan

Ganbara Faktoriakoak ez ezik, herriko beste abesbatza batzuen dako ere berezia izango da ikasturte berria. Oñati abesbatza koak, esaterako, 2020ko martxotik gelditu egon ondoren, datorren martitzenean dute lehenengo entsegua, Agustindarren elizan.

"Badugu hasteko beharra, bai. Gogotsu gaude. Gabonetako kontzertura begira hasiko gara lanean, ea aurrean posible den egitea", dio zuzendariak, Mirengu Plazaolak.

San Migel parrokiako abesbatzak ere pandemia aurreko ohitura berreskuratuko du asteburu honetan: zapatuetako elizkizunetan kantatzea. Azken hila-beteetan hiletetan bakarrik abestu dute, eta bihurtik, zapatuetako mezatan ere kantatuko dute, Iñaxio Ibarrodo zuzendariak baieztatu duenez.



ORIO PRODUKZIOAK

'Herri txiki' bakarrik ez

Aste honetan ibili dira 'Herri Txiki, Infernu Handi. Oñati' saioa grabatzen. Launa herritarrekin izan dira Zuhaitz Gurrutxaga eta Mikel Pagadi aurkezleak eta urriaren 13an ikusiko da emaitza Euskal Telebistan. Beste programa batzuk ere egingo dituzte Oñatin: bihar, zapatua, esaterako, Poloniako Masterchef, plazan.



NIRE USTEZ

CAROL PALACIO

Nosaltres les valencianes

Udaro, milaka turista etortzen dira nire herrira, Valentziar Herrira. Horien artean, euskaldun asko. Hauetariko gehienek ez dakite Valentziar Herria bere historia, hizkuntza eta kultura propioa duen herri kolonizatu bat dela. Valentziako erresuma Aragoiko Jaume I.aren konkista feudalarrekin jaio zen (1208-1276). Lurraldea erresuma independente berri bihurtu zen, bere legez hornituz, Aragoiko koroaren barruan -Valentziako erresuma, Aragoiko erresuma, Bartzelonako konderrria, etab.-. Katalan hizkuntza ezarri zuten bertara emigratu zuten katalanek, eta, horregatik, valentziarra izan da Valentziako hizkuntza nagusia. Felipe V.a Borboikoak eta diktadura frankistak valentziarren gaitasun politiko, linguistiko eta kulturala erreprimitu zuten etengabe. Hala ere, gaur egun, Valentziar Herriak erabateko subiranotasuna lortzeko borrokan dirau, herri gisa iraun nahi badugu geratzen zaigun bide bakarra delako. Gure herria ezagutzera doan pertsona oro bertako historiari galdetzeraz, bertako kultura ezagutzera eta bertako hizkuntza erabiltzen saiatzera gonbidatuko nuke. Gora herri askeak!

Gualbi
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLOKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK

Bezero guztien beharrei erantzuteko prest!

Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasores.com • www.gualbiasores.com



Aloña Mendiko futbol saileko Juan Luis Guridi, Iker Egaña eta Jabi Agirre, bazkide kanpainako karteekin. JULEN IRIONDO

Bueltan datoz bazkide berriak lortu nahian

Egun 300 herritar ingururen babeserak jasotzen duen Aloña Mendiko futbol sailak bazkide kanpaina abiaraziko du laster; bazkide arruntek 30 euroko kuota ordaindu beharko dute eta babesleek 50 eurokoa. Denboraldi berria hasteko ilusioz daude

Amaia Txintxurreta OÑATI

Azken asteetan prestaketa lanetan ibili ostean, Aloña Mendiren Ohorezko Erregionaleko mutilen taldeak domeka honetan ekingo dio lanari; eta gainerako taldeek, datozen asteetan. Ilusioz eta ahalik eta normalena izateko esperantzarekin hartu dute denboraldi berria Oñatiko klubean.

Bazkide berrien bila

300 bazkide ditu gaur egun. Bestelako baja gutxi batzuk ere izan arren, batez ere heriotzek eraginda dihardu azkenaldian behe-rantz bazkide kopuruak, eta berriak lortzeko kanpaina jarriko dute martxan laster, *Bueltan gatzoz* leloarekin. Pandemiaren eraginez 2019-2020 denboraldia normal bukatzerik egon ez zela-eta, iazko bazkidezta kuota merkatu egin zuten, 15 euro. Iazkoa ere ia ezerezean geratu zela aintzat hartuta, aurtengoa doakoa izatea ere aztertu zuten zuzendaritzak, baina, azkeneko, eta Batzar Nagusiak eta

hainbat zalek ere hala izan behar duela iritzita, beste murrizpen batekin baina kuota pasatzea erabaki dute. 30 euro bazkide arruntentzat, ohikoak ziren 60 euroen erdia. Eta babesleek 50 euro ordaindu beharko dituzte.

Bestelako berrikuntzak

Igo egin dituzte jokalariek ordaindu beharreko kuota. Kategoriararen arabera, 30 edo 45 euro izango dira hilean, hamar alditan. Igoera horrekin, teknikari lanetan jardungo dutenei ordaindu egingo diete zertxobait.

Jokalariren artean eskaera egin eta lortu dute ia talde guztietan bizpahiru teknikari izatea. Jokalariei dagokienez, 200 neska-mutiko inguru ariko dira futbol

BESTE ERAIKIN BAT PRESTATU DU ALOÑA MENDIK AZKOAGAINEN AURTENGO

eskolan, eta 14 talde izango dituzte hortik gora, hamar mutilek eta lau neskenak. Kadete mailako bi neskek Realean eta batek Eibarren jokatu dute.

Mutiletan ere badira Realean Oñatiko jokalaririk; bi gazte daude astean behin Zubietara joaten direnak.

Azkoagaingo eraikin berria

Eraikin berri bat ere prest du Aloña Mendik aurtengo. Aldagelak, fisioterapia gela, bildegia, arropa garbiketarako gunea eta bulegoak ditu eraikinak.

Leku berean edo beste batean futbol zelai berria egitea da asmoa, baina, denbora pasako denez, Azkoagaingo belar artifiziala hurrengo denboraldirako aldatu nahi dute, oraingoaren erabilerarako iraupenaldi ego-kia aspalditxo agortu zelako eta aldatu beharra duelako.

Domekako partiduari begira, gehieneko edukieragatik 300 zale sartu ahalko dira Azkoagaingera, maskara jantzita.

Uretako ikastaroei berrekingo diete igerileku berrian

Irekiera festan hartu beharko dute parte ur ikastaroetan parte hartu nahi duten umeek, aurrez izena emanda

A.T. OÑATI

3 eta 8 urte bitarteko umeek izango dute aukera uretako ikastaroetan parte hartzeko, 2018tik 2014ra bitartean jaiotakoek, hain zuzen. Ikastaroak hasi aurretik, baina, jolas eginez irekiera festan parte hartu beharko dute lehenengo. Bertarako izen-ematea astelehenean egubakoitzera bitartean izango da, webgunearen bidez edo kiroldegian, eta irekiera festa hilaren 20tik 24ra bitartean egingo dute –adinaren arabera, egun eta ordu jakin batzuk izango dituzte, eta horiek

Udal webgunean kontsulta daitezke-. Posta elektronikoz jakinaraziko dute, hilaren 28an, zein abilezia taldeetan parte har dezaketen, eta izen-ematea urriaren 6tik 12ra bitartean egin beharko dute. Izen-emateetan aldaketak urriaren 12tik 15era bitartean egin ahal izango dira, eta urriaren 18an hasiko dituzte saioak.

Helduendako igeriketa saioak, *aquagym-a*, *aquatrainig-a* eta *aquapower-a* ere eskainiko dituzte. Izena urriaren 6a eta 12a bitartean eman beharko da.

Gary Baños gogoan Mikel Deuna txirrindularitza sarian

Bihar, zapatua, 83 kilometroko lasterketa izango dute junior mailako txirrindulariek, 10:00etan hasita

A.T. OÑATI

Otsailean mendiko istripu batean hil zen Gary Bañosen memoria izango da bihar, zapatua, Oñatin egingo den Mikel Deuna txirrindularitza saria. Aloña Mendiko txirrindularitza sailekoek Bañosen falta igartzen dute oraindik ere, "handia" izan baitzen urteetan egin zuen lana. Hunkituta gogoratzen du taldeko kide Ruper Arkauzek: "Txirrindularitzan Aloña Mendira-ko lan asko egin izan duen pertsona izan da, askok uste dutena baino gehiago. Bai txi-

rrindulari moduan egon zenean, baita zuzendari moduan izan zenean, eta gerora ere taldean laguntzen jarraitu zuen beti. Guretzako oso gogorra izan da bere galera, asko igartzen dugu bere falta. Arrasto handia utzi zigun". Argi zuten Baños gogoan izateko zerbait egin behar zutela, eta probak bere izena eramango du aurrerantzean.


Unibertsitate etorbidean hasiko da bihar, 10:00etan, lasterketa eta eguerdi aldean amaituko da. Ulma taldeko sei txirrindularik hartuko dute parte.

Pilotako San Migel Txapelketako partidua hasi dituzte

Gizonezkoen gazte eta promes mailako partidua hasi dituzte San Migel Txapelketan. Final handia Errosario Domekan, urriaren 3an, izango da. Partidu guztiak Zubikoako frontoian ikusi ahal izango dira, doako sarrerarekin. Emakumezkoen txapelketa Gabon ingurura atzeratu dute, garai honetan partidu ugari izaten ari direlako.

Antxintxikako bazkidezta kanpaina, hilaren 30era arte

Antxintxika Triatloi Taldeko kirol egokituko sailekoek hilaren 30ean emango diote amaiera proiektuari jarraipena bermatzeko kanpainari. Oraindik ere bazkide egiteko aukera egongo da, txoske@yahoo.es era idatzita edo 688 63 51 53ra deituta. Bestetik, taldearen azken zozketako zenbaki saritua hau izan da: 05. Hurrengo zozketa, abenduan.



17 UDAKO ARGAZKIEN .GOIENA LEHIAKETA *egin klik!*

**Eskerrik asko
parte hartzeagatik!**

Bidali zure argazkiak irailaren 20ra arte posta elektronikoz (argazkiak@goiena.eus) edo Whatsapp/Telegram bidez (688 69 00 07). Lehiaketaren oinarriak irakurri eta sariak ezagutzeko, sartu Goiena.eus-en.



Argazki guztiak kanal berezi honetan:
<https://labur.eus/lehiaketa-2021>



SAGAR FESTA! | Argazkia: Aitziber Oianguren



MENORCA | Argazkia: Inma Miguel



ALAIA, ABARUZAN FRESKATZEN | Argazkia: Iñigo Zubia



EOLIKOETAN, ARABAN | Argazkia: Ixiar Elkorobarrutia



ITSASOAN MARMOKAK, VALENTZIAN | Argazkia: Nekane Igarza



ZERUA LURREAN (PIZOL, SUITZA) | Argazkia: Jasone Basurto



FAJA DE LAS FLORES, ORDESA | Argazkia: Nerea Uriarte



UDALATX ANBOTOTIK, 2021EKO ABUZTUA. | Argazkia: Jon Dtxantegi



DOMME, FRANTZIA | Argazkia: Kristina Kardenal

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

EROSKI
ARRASATE

GURE AMETSA
Restaurante • Jantetxea

BERGARA
**EREIN
DA
JAN**

GU
Travel
Halcon bidaiak
Arrasate



Badira bost urte Aloñak eta UDAk elkarren kontra jokatu ez dutela. GOIENA

Liga 'suabe' hasteko, derbia

FURTBOLA Asteburuan hasiko dute Mondrak, Bergarak, Aloña Mendik eta Aretxabaletak denboraldia; edukiera mugatuarekin, baina zaleak egongo dira harmailetan. UDAkoek urtebetez futboleant jokatu ez duten jokalaririk oñatiarrak izango dituzte aurrean

Xabier Urzelai ARRASATE

Denboraldiaurrean normaltasunarekin jardun eta gero –iaz, COVID-19 kasuak tarteko Aloña Mendiko eta Mondrako jokalariek konfinatuta egon behar izan zuten–, asteburuan hasiko dute liga. Hain zuzen, iaz, denboraldia hasi gabe zegoenean, Oñatikoak jada jabetu ziren urte gogorra izan behar zutela aurretik, eta gurago izan zuten ez lehiatu. Ez zen erabaki erraza, eta urtebetez futboleant jokatu barik egon dira: "Gogo handiz gaude. Egia da urtebete egin dugula berdeguneetatik urrun, baina nik uste dut mentalki besteak baino freskoago gaudela, pandemia urte honetan futbolak ez gaitu baldintzatu, eta gainontzeko taldeendako denboraldi zaila izan da. Eta freskotasan hori baliatu behar dugu", adierazi

dio GOIENARI Gaizka Irizar kapitainak.

Aloña Mendi-UDA etzi


Urteak dira Aloña Mendik eta UDAk elkarren kontra jokatu ez dutela; bost, zorrotzak izateko. Eta domekan bien arteko derbiarekin hasiko dute liga (16:30, Azkoagain). Bergarak, berriz, Allerru hartuko du Agorrosinen (zapatua, 16:30), eta Mondrak, azkenik, joan den asteburuan Arrasate Hiria torneoa irabazi berri duen Elgoibarren zelaian jokatuko du (zapatua, 16:30).

ALOÑA MENDIKO JOKALARIK URTEBETE EGIN DUTE FUTBOL ZELAIETATIK URRUNDUTA

Leintzekoei zigorra


Emakumezkoen Ohorezko Erregional Maila irailaren 18ko eta 19ko asteburuan hasiko dute. Eta maila horretan izango dira Leintz Arizmendi eta Bergara. Hain zuzen, duela bi urte kategoriaz igo eta gero, pandemiagatik ligan partidurik ez jokatzeo erabakia hartu zuten Leintzeko neskek –Euskal Ligak aurrera egin zuten– eta Euskadiko Federazioaren partetik zigor proposamen baten berri izan zuten debagoiendarrek. Hala, zigorra gauzatu egin dute.

Zer moduz denboraldiaurrean? Ze helburu izango duzue ligan?




AITOR PEREZ
UDA-KO KAPITAINA

"Lauzpabost partidu jokatu ditugu denboraldiaurrean, eta taldea ondo ikusten dut. Denetik izan dugu: neurraketa batzuetan ondo ibili gara, beste batzuetan ez horren ondo, baina horretarako da sasoi hau, martxa hartzen joateko. Hala ere, guk landu nahi dugun hori lortzeko lanean gaude. Aurtengo helburua garbia da, ahalik eta goren sailkatzea. Bestalde, asko eskertzen da harmailetan jendea ikustea; iaz, publiko barik, batzuetan bazirudien ligako partiduak baino gehiago 'patxangak' jokatzen genituela".




OIER UGALDE
BERGARAKO KAPITAINA

"Denboraldiaurrean Zumaia koren kontra jokatu genuen lehenengo partidu ez zen batere ona izan, 2-5 galdu genuen, baina ondoren, Gasteizko Aurreraren kontra erritmoa hartzen hasi ginen, sentazioak berreskuratzen... Eta azken asteburu hau borobila izan da, UDARI 1-5 irabazita finala penaltietan galdu dugu, baina zapore ona utzi digu Arrasate Hiria. Bestalde, partiduak jokatzen hasten garen neurrian joango gara helburuak zehazten, orduan ikusiko dugu non egon gaitzekin".



JOKIN MUJIKA
MONDRAKO KAPITAINA

"Egia da Arrasate Hiria torneoa, emaitzei dagokienez, ez dela guretako positiboa izan, baina, orokorrean, gauza positibo asko izan ditu denboraldiaurreak eta uste dut taldea ondo dabilela lanean. Garbi daukagu Mondrarendako trantsiziorako urtea izango dela, beterano askok utzi dute taldea eta jende oso gaztea daukagu. Aldi berean, taldea sekulako ilusioarekin ikusten dut, lanerako gogoz. Horrek balio du. Gero, denborak esango du zein den sailkapenean merezi dugun tokia".



GAIZKA ZELAIA
ALOÑA MENDIKO KAPITAINA

"Dagoeneko hilabete daramagu entrenatzen, eta taldea ondo ikusi dut lanean. Uste dut lagunarteko partiduetan oraindik zerbait falta izan zaigula, baina denboraldiaurreko partiduetan garrantzitsuen ez da emaitza, eta, alde horretatik, uste dut taldea ligarako gertu dagoela, lehiatzeko gertu gaude. Denboraldira begira, uste dut gauzak ondo egiten baditugu aurrean egon gaitzekela, sinisten dut talde honek dituen aukeretan, eta helburuak izan behar du partidu bakoitzean lehiakorrik izatea".

Aramaioko rallysprinta, Lesakakoak baldintzatuta

AUTOMOBILISMOA Zapatuan Aramaioko rallysprintak bi hamarkada beteko ditu, eta hori bada ospatzeko motibo, baina antolatzaileak penatuta daude azken urteotako parte-hartze txikiena izango duelako. Iaz ia 60 automobil izan ziren eta aurten 32

Xabier Urzelai ARRASATE

Automobil gehiagorekin edo gutxiagorekin, baina bihar ikuskizuna egongo da Aramaioko errepideetan. Rallysprintaren norabidea aldatu egingo dute aurtengo edizioan, eta lasterketaren irteera frontoia- ren atzealdean egongo da, Uribarri auzora bidean. Hala, Arriolako eta Arexolako auzoetatik Etxaguengo bidegurutzeraino igoko dira autoak, eta handik Gantzagako bidegurutzean behera Andramariko bidegurutzeraino jaitsi: "Noranzko honetan iogoera luzeagoa da. Eta gero, adi ibili behar da jaitsieran, bihurtune itxiak daude, beste batzuk azkarrak dira, tarte batzuetan hartxintxarra dago...", adierazi du irteera puntuan izango den Aramaioko pilotu Eneko Uribek.

Pilotu kopuru txikiagoa

Aipatu moduan, baina, aurreko urteekin alderatuta pilotu ko-



BMW autoa, iazko edizioan, Arexolan eta Arriola arteko tramuan. GOIENA

puru txikiagoa izango da lasterketan: "Garbi daukagu zein den motiboa, eta ez da rallyak hilda daudelako. Duela urte batzuk beherakada handia egon zen, baina jendea lasterketetara itzuli da; iaz inoiz baino sarrera

gehiago saldu genituen. Kontua da aurreko astean Lesakako rallysprinta egin zutela, eta horrek eragin zuzena izan du gurean, bi astez jarraian lehiatzea askotxo da-eta, besteak beste, ekonomikoki".



Rafaren eta Pablaren Mini autoa, Nafarroako zirkuituan. GOIENA

Irizarrek Jaraman du hitzordua

Abuztuko etenaren ondoren, bueltan da Cooper Kopa, eta asteburuan txapelketako laugarren hitzordua jokatuko dute Jaramako zirkuituan. Hala, bertan izango da Pablo Irizar. "Gogotsu gaude; gainera, bai Rafak eta bai nik ondo ezagutzen dugun zirkuitua da", adierazi du bergararrak.

Azkeneko zirkuituan izan ziren Miniaren barruan, Alcañizko zirkuituan: "Ez ginen nahi moduko azkarrak izan. Nire taldekideak erabaki zuten zirkuitua ez genuenez ezagutzen ez zuela merezi gurpil berrietan dirua gastatzen ibiltzea, eta gurpil zaharrek lehiatu ginen. Eta, noski, sekulako aldea dago. Entrenamenduetan bederatzigarren sailkatzeko gauza izan nintzen, eta pozik geratu nintzen lasterketarekin, hiru postu aurreratu nituelako -6. postua-. Gero, taldekideak, Rafak, hartu zuen erreleboa eta ez zuen erritmoa aurkitu proban, 16. postuan amaitu genuen. Bigarren lasterketan, berriz, 20. postuan hartu nuen autoa eta ez nintzen oso animatuta hasi. Baina lasterketa 11. amaitu nuen".


Jaramako lasterketarako, berriz, aurrean ibiltzeko esperantza dauka: "Gurpilak estreinatuko ditugu eta entrenamendu saioetan bost onenen artean egon nahiko nuke". Eta Cooper Kopa amaitzeko azken hitzordua geratuko zaie, Jerezen, urri hasieran: "Harako ere oso gogotsu nago, zirkuitu azkarra da eta ondo ezagutzen dut hura ere".

Uriarte eta Jurado podiumeko lehenengo koskara igo dira

ZIKLISMOA Asteburuan nabarmendu dira biak: Markel Ainsako Bucardon eta Adiran La Adradan

X.U. ARRASATE

Aretxabaretako pilotu Markel Uriarte (Orbea) eta Adiran Jurado (BH Bikes) enduroko lasterketetan izan dira asteburuan. Uriarte Ainsan izan da, Bucardo Enduro Openaren barruan Ainsan egin duten zirkuituko hirugarren hitzorduan, eta aretxabalarra podiumeko lehenengo postura igo zen elite mailan, Iker Senarren eta Jon Otamendiren aurretik. Hala, bost tramuak batuta aretxabalarren 25.17an geratu zuen erlojua, bigarren sailkatua bai-



Uriarte, podiumaren lehen koskan. M.U.

no 30 segundo azkarragoa izan zen: "Enduroa ere eboluzionatzen dabil, eta gaur egungo lasterketak inoiz baino zentratuago daude maldan behera egin beharreko lanean; hau da, jaitsieretan azkar joan beharra dago". Aipatu behar da master 40 kategorian Zigor Urain arrasatearra bigarren sailkatu zela.

Adiran, e-bike kategorian

Eta emaitza berbera, lehenengo postua, lortu du Adiran Juradok La Adradan (Avila) egin duten Espainiako Openeko bigarren hitzorduan. Kasu horretan, aretxabalarra bizikleta elektrikoaren kategorian lehiatu zen: "Oso pozik nago egindako lanarekin eta lasterketaren nondik norakoekin, jakinda oraindik hobetzeko tarte handia daukagula".

ZIKLISMOA Izen-ematea zabalik Mondranbikemartxarako

Pandemia egoerak eskatzen dituen segurtasun neurriak kontuan hartuta, Besaideko lagunek erabaki dute irailean 18rako martxa antolatzea. Antolatzaileek hiru ibilbide prestatuko dituzte: errazenak 25 kilometro izango ditu eta zailenak 38 kilometro. Arrasateko erdialdean jendetzarik ez pilatzeko, irteera puntua Arruena parkean izango da -Eroski ondoko lautadan- eta proba amaierako luntxa ere egokitu egingo dute.

Horrekin batera, ibilbidea ez da plastikoz markatuta egongo -GPS gailua beharko da- eta izena ematen dutenek -kirolproba.com- bi egun lehenago jasoko dute track-a.

SASKIBALOIA Euskal Kopako finalerdia jokatuko du MUK

Euskal Kopako lehenengo jardunaldian Ulacia Zarautz taldeari 81-58 irabazi eta gero, arrasatearrak finalerdietan dira jada. Zarautzarren kontrako partidua denboraldiaurreko ohiko partidu bat izan zen, erritmoa hartzeko lanean dabilen bi talde izan ziren-eta aurrez aurre. Moreek, baina, ondo irabazi zuten, eta Easo, Baskonia eta Santurtzirekin batera izango da finalerdietan. Zapatuan moreek santurtziarren kontra jokatuko dute finalerdi hori (12:30), hain zuzen, Santurtziko Mikel Trueba kiroldegian. 10:30ean, berriz, Baskoniak eta Easok neurtuko dituzte indarrak. Sarrera mugatuta egongo da.

Folkarekin gozatzeko proposamen "bitxiak"

Eneritz Furyak bakarlaria, SonLosGrillos Valentziako bikotea eta Zarauzko Buffalo hirukotea Nacho Soto piano-joleak lagunduta izango dira gaur hasi eta domeka bitartean Kulturateko areto nagusian; emanaldi guztiak 20:00etan eta doan dira



Eneritz Furyak bakarlaria igoko da gaur, egubakoitza, Kulturateko areto nagusiko agertokira. E. F.

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE "Ezohiko" musika-proposamenak egitea du helburu aurreko astean abiatu eta oraingoan borobilduko duten Kulturate Akustikoak programak. "Gustura gaude eskainitako hiru kontzertuek izan duten harrerarekin; izan ere, ez ziren erraz entzuteko moduko proposamenak, baina publikoak oso ondo erantzun

du. Musikariek asko eskertzen dute jotzeko aukera izatea, eta, are gehiago, baldintza onak direnean", azaldu du Karmelo Alberdi Kultura teknikariak.

Eneritz Furyak gaur

Irungoak abiatuko du bigarren asteburua; aurten atera duen *Emadan* aurkeztuko du. "Bakar-

lari formatu ohikoenean. Gitarra akustikoak eta ahotsak kantuen haria gidatu arren, sintetizado-reak jo ohi ditut oinekin, pedaleran baten bidez, badira gitarra gabeko kantuak ere... Oro har, esango nuke kontzertu iluna izango dela, baina batzuetan bake apur bat ere ematen dizun iluntasun mota horri buruz ari naiz. Arrasaten irudiak jarriko

ditugu emanaldian zehar, eta esanen nuke *Emadan*-en benetak itxura ezagutzeko aukera ona izanen dela", dio Eneritz Furyakek.

Bakarkako bigarren disko luzea du *Emadan*. "Ezberdina da aurrekoekiko: alde batetik, ildo jakin bati lotutako gai batzuei men egiten dielako; eta, bestetik, musikalki, ez delako folk hutsa edo gitarraren eta ahotsaren arteko jolas soila. Elektronika-aren alde horrek giro batzuetan kokatzen ditu doinu eta gaiak, eta lehenagoko diskoetan erdietsi ez nuen norabait eraman. Galdera asko daude kantuotan eta musikalki ere erantzunen bila aritzeak -eta beti erantzun bat topatuko ez duzula jakitea-sortzen duen tentsio hori badaukate".

Folka ukitu psikodelikoekin

